


ttipi-ttapa



Bertsolaritzan egin duen bidea hizpide Estitxu Arozenarekin / 22

Errigorako saskiak azaroaren 12ra bitarte eska daitezke / 31



Amaiurko arkeologia zentroko Marian Ariztiarekin solasean / 40

SINADURAK



ZOKKETA / 12



Mirari ETXEGIA PERURENA

«ERRAKETAK DUEN LEKUA PALAK HARTZEAK POZTUKO NINDUKE»

30 urtez pala eskuetan herriz herri ibili ondotik, Goizuetako palistak iaz jokatu zuen bere azken txapelketa. Aurrerantzean lagunartean eta herriko pala eskolan ikusiko dugu. / 8

FELIX LOIARTE

Positiboen aztarnari segika

Covid-19an positibo ematen dutenen hurbileko kontaktuak bilatzea da aztarnarien lana. / 10

BERA LESACA

Agenda 2020

**URRIA
AZAROA**

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

URRIA

16-31

ERAKUSKETA
Bidasoko deportatuak erakusketa ibiltaria

Non Kultur etxeko erakusgelan
Orduetgia Ortzegunetik igandera irekia
Orduetgiak Ortzeguna-ortziralea: 17:00-19:00
Larunbata-igandea: 11:00-13:00
Antolatzailea Memoria historikoa Bidasoan
Laguntzailea Berako Udala

LESACA

AZAROA

29

JARDUERAK
Ziberfemenismoa. Emakumeak, sareak eta teknologia

18:00 Txokobiko aretoa, Harriondoa
Edukiera mugatua
Adina helduak eta gazteak
Argibide gehiago: 692 18 92 86 Gizarte-ongizate arloa
Antolatzailea: Lesakako Udala
Laguntzaileak: Nafarroako Berdintzamerako Institutua; Nafarroako Gobernua

LESACA

31

LARUNBATA

MUSIKA
Organo jardunaldia

Non San Martin Elizan
17:00 Organoaren inguruko esperientzia
Iosu Larumbe organo-joleak gidatua
18:30 Organo kontzertua
Laguntzailea Lesakako Udala, Nafarroako Gobernua

LESACA

1

IGANDEA

HAURRENTZAKO ANTZERKIA
Etixerik txikiena (Yarleku konpainia)

17:00 Kultur etxean
Iraupena 55 min
Sarrera 4 €
Adina 6 urtetik goiti
Antolatzailea Nafarroako Antzoki Sarea eta Berako Udala
Diruz laguntzen du Nafarroako Gobernua
Laguntzailea Cajanavarra fundazioa eta LaCaixa gizarte ekintza

BERA

2-6

FORMAKUNTZA
Mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko oinarritzko zainketak

Non Liburutegian
Orduetgia 08:30-14:30
Izen emateko azken eguna 2020/09/28
Izen-ematea www.empleo.navarra.es
Laguntzailea Lesakako Udala, Lases, Nafarroako udal eta kontzejuen federazioa

LESACA

7

LARUNBATA

KONTZERTUA
Gandeia hirukoa

(txistularia, biolinista eta pianista) + dantzariak

19:00 Kultur etxean
Sarrera 5 €
Antolatzailea Berako Kultur Batzordea eta Berako Udala

BERA

ALTSASU

TELESAIL BERRIA, ABENDUAN

GURE FIKZIOA LEHENA



NIRE TXANDA

MAIALEN IANTZI DANBORIENA

Gibelat utzi beharrekoak

Emakume baten gorputza tartean dagoenean, emakume horrek zer egiten duen eta zer ez epaitzeko eskubidea dutela sentitzen dute pertsona anitzek. Zer emakumeri ez zaio gertatu bizkotxo zati bat ukatu eta bueltan «jope, gaur egungo emakumeek nola zaintzen duzen zuen burua» edo «trankil, honek ez du loditzen» aditza. Edo kontrakoa, postrea errepikatu eta «kasu e, uda hurbiltzen ari da eta!». Eta ez janari kontuetan bakarrik, kirola egitean ere ez baitira guti aditu beharreko komentarioak.

Gizartea mantso-mantso aldatzen ari dela ematen duen honetan, zenbaiti kostatu egiten zaie bere epaiak alde batera uztea. Ez da hain zaila entenditzea; janariari ezetz erraten badiogu, momentu horretan jateko gogorik ez dugulako jda, puntu. Eta lasterka egitera joaten bagara, ez da gure ipurdiak gogortu edo bikinian hobe sartzeko; kirola egin nahi dugulako da, bertzerik gabe. Hurrengo egunean horrelako epai bat egiteko gogoia baduzue, aholku xume bat: eskaintzen duzen bizkotxo puska eder bat ahoan sartu eta hausnartu, anitzetan ahoa ixtea baita gauzak errateko modurik egokiena.

**«ANITZETAN AHOA
IXTEA DA GAUZAK
ERRATEKO MODURIK
EGOKIENA»**



EZPALA

AITOR AROTZEN A LBIZU

Nafarroako Jauziak

Nafarroako Gobernuak xirulak eta Espainiako atabalak jotako doinuak *Muxikoak* dantzari ari gara aspaldian. Itxialditik atera eta *Aintzina* hasi ginen kontent, *Lau urrats* eman genituen zauli, baina denborarekin, *Pika, erdizka*, ibili ginen plazari bueltan-bueltan eta orain *zote, erdizka, doble, eskuin, ezker, antrexatak eta fini* (?) Noiz(bait) hasiko gara sueltoan?

NABARMENTZEKOAK



**ERIKA
LAGOMA**
BERTSOLARIA



**JOXET
LAHETJUZHAN**
SENPEREKO IKERLARIA

Azaroaren lehen asteasun jokatu den II. Pello Errota sariketaren finalean izanen da bertsolari lesakarra, Amaia Iturriotz, Iñigo Izagirre, Izarne Zelaia, Jon Martin eta Unai Mendizabalekin batera.

Xareta aldea zeharkatzen duen Ur Hertsi, Urdazubi edo Urdazuri ibaiaren (Nivelle erdaraz) berezko izena, Sarrakari(a) alegia, atzeman eta liburu batean azaldu du senperarrak.

ATZERA BEGIRA



2010-10-28 · TTIPI-TTAPA · 529 zk.

Elizondoko Abesbatzari buruz solasean

1942an eman zituen lehenbiziko pausoak Elizondoko helduen abesbatzak. Koru ospetsua izan zen, nazioartean aunitz ibili zena. Urteekin, ordea, martxa galdu zuen, 2004an abesbatza berriua sortu zuten arte. Duela hamar urte ordura arte egindako ibilbideaz eta etorkizuneko erronkez mintzatu ziren Elizondoko Abesbatzako Maki Urtasun, Mari Jose Alaña eta Kristina Urtasun. «Kantatzea gustuko duten guztiei probatzeko» deia luzatu zieten, «gehienok ez dakigu deus musikaz eta afizioa izatea eta entseguetara joatea da kontua». Horrekin batera aitzineko urtean sortutako haurren koruari buruz aritu ziren. «Helduen koruak etorkizuna izanen duelakoan gaude eta haurrenak ere espero dugu izatea». Nahi hori adierazi zuten, eta hala izan da.

ttipi-ttapa

erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usoa Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Aranxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maider Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,

Aintzane Leiza, Pablo Irastortza,

Maita, Ana eta Itziar, Juan Mari

Barriola, Marga Erdozain, Maitane

Maritorea, Aranxa Iturralde,

Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi,

Jaione Zabala, Nerea Mortalena,

Virginia Oteiza, Pierre Bastres,

Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier

Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione

Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdi Aklarre elkarteak

2020ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	
eta Malerreka	39€
Leitza	28€
Hego Euskal Herria	47€
Ipar Euskal Herria, Europa	86€
Amerika eta Australia	139€





KOLABORAZIOAK

BEÑAT IANTZI ETXARTE

Gazteak

Aunitzetan aditu izan ditugu «gaztik besta, droga ta sexua bertzerik eztuzue burutan», «gaur egungo gaztik eztuzue fundamenturik», «arduragabe hutsak zate» eta kutsu horretako esaldiak. Hainbertzetan aditu ditugu guk ere aunitzetan erabiltzen ditugula gaur egungo gazteriaz solas egiteko. Batzuen ustez hala da, baina bagara bertze aunitz berdina pentsatzen ez dugunak.

Egia da, gazteak (aunitz) bestazaleak gara, eta? Nork ez du besta egin gazte izan denean (eta ez hain gazte). Behin irakurri nuen bezala, bestak dira gazteon udako *planing*-ean markatuta izaten ditugun egunak, izan Lesakakoak, Berakoak edo edozein txokotakoak. Izan ere, bestak aprobetxatzen ditugu aspaldi ikusi ez ditugun lagunekin egoteko, jende berria ezagutzeko, ongi pasatzeko, eta abar luze bat... Baina hori bakarrik dugu burutan? Bertzalde, pandemia honen 'bigarren fasearen' errudun bezala gaituzte aunitzek. Hauen ustez ez baitugu arduraz jokatzeko, ez baitigu deusek inporta.

Uda honetan ez dugu bestarik izan, eta beraz gure *planing* hori hankaz goiti jarri da. Honen aitzinean Lesakako hainbat adinetako gazteak Buruztanka Gaztetxean elkartzeko hasi ginen, udako plan alternatibo bat egiteko asmoz. Eta gazteok kritika aunitz jasotzen baditugu, zer erran gaztetxei buruz...

«EZ ZAITEZ GAZTE IZATEAZ LOTSATU ETA ANTOLATU ETA MUGITU ZAITEZ»

«Lokal bat», «drogatzeko tokia», «desastre bat»... Ziur nago hau erraten duten aunitzek ez dutela gaztetxe bat zanpatu ere egin. Gaztetxe bat eremu libre eta autogestionatu bat da, gazteok helduen agindurik gabe gauzak egiteko

gai garena erakusten duena. Eremu sozial, kultural, politikoa... bat da, mila gauza burutu daitezkeen tokia, eta ez gazteok drogatzeke erabiltzen ditugun lokal zikinak. Honen adibide dira antolatu ditugun mendi irteerak, mus txapelketa eta mahai jokoak, pintxo lehiaketa, urriaren 12an, jai egun arrotza izaki, auzolana... Bidenabar, Buruztanka irekitzeko egin beharreko lanei berriro ekin genien gogotsu, eta horretan gaude oraintxe, azken txanpan. Lan hauek egiteko ez dugu helduen agindurik jaso, gure artean antolatu, lanak banatu eta bakoitzak ahal duena eginez egin diegu aitzin lanei, ardura-tsuak garenaren seinale. Honez gain, Lesakako Endara Bizirik plataformarekin elkarlanean mural bat egin genuen, aitzinera atera nahi den proiektu txikitzaile, kapitalista eta inposatzai-learen aurka kokatuz. Honen harira, urriaren 2an Malerrekoak eta Baztango gazte asanbladak Donezteben antolatu zuten *Aroztegia eta gero zer?* hitzaldira joan ginen, eta gazte kuadrilla ederra juntatu ginen han. Pozgarria izan zen gure eskualdeko hainbat gazte bertan bildu izana, gazteok kontzientziatuta gauden eta mugitzen garen seinale baita. Ez al da hau gure herriak eta herriarrek arduratzen gaituztelako? Seguru denaz paso egiten dugula? Ez dut uste.

Beraz, hau leitzen ari zaren gazte, gazte izateaz ez zaitez lotsatu, gazteok baikara herri honen oraina eta geroa. Tokian toki antolatu eta mugitu, proiektuak landuz! Animo!



AINHOA ANSA ZUGARRAMURDI

Baserriko lanak eta aitortzak

Aurten urriaren 15a inongo aitortzarik eta omenaldirik egin gabe pasa zait niri! Ederki akordatu naiz nire bizitzan, baserriaren bueltan, zalantzarik gabe nire erreferente izan diren emakume guztiekin, baina letra hauek idatzi arte, ez dut eskerrak nola eman jakin! Amonak, izebak, auzokoak,...

Letra hauek idazten ari naizela, hain zuzen ere, ama dut aurreneko hizpide, nahiz eta bi amonek pisu handia izan oroitzapenetan! Gure amak baserriko bizimoduaren transmisioa, bere modura, egin digu guri eta, azken aldian, gozatu ederra hartu izan dugu kontu, kantu eta istorio asko entzun baitiogu bere haurtzaroz! Zorte handia dugu, balio handiko altxorra baita ahozko ondarea, eta honen gordailu eta transmisore asko izan baitugu guk familian, tartean ama.

Gure amak oroitzen duenez, gainerako lanak aski ez eta gizonezkoen pare aritu behar izaten zuten emakumeek auzolantetan. Eta auzolanetik etxera itzulitakoan, mahai gainean, ez zuten tokitik ateratako jakiekin otordua prestatu auzokoentzat. Haiek izango ziren, emakume haiek, lotsagatik, azkenak deus jaten gainera!

Mantalaurrekoarekin laburbiltzen du gure amak emakumearen lana baserrian. Beti soinean eramaten zuten jantzia izaki, hark zertarako ez ote zuen balioko? Haren azpian zeramaten

«EMAKUME BASERRITARREN JAKINTZA EZIN DA ITZALTZEN UTZI»

jantzia ez zikintzeko aurrena, gobara edo lixiba egitea ez zen-eta lan erraza izango orduan! Mantalaurrekoarekin kenduko zizkioten hautsak edozeri, eta ontziak lehertzeko ibiliko zuten. Sua pizteko zotzak ekarriko zituzten

hartan, edo baraztetik eltzekoa prestatzeko beharrezko aleak eta barazkiak, onddo eta gaztainak menditik,... Inor kontsolatzeko beharrik bazen, umeen zaintza ez bainuke ahaztu nahi, bertan izango zuten gaztaina erre gogorturen bat edo zorterik bazen, goxokiren bat goxagarri, eta ume hauen 'mutur' zikinak garbitzeko ere erabiliko zuten. Inoren aurrean agertu behar izanda ere, nola ez, duin eta eder agertzeko beharra izango zuten oraindik ere, mantalaurrekoa bilduz eta egindako lanen zikinak ezkutuan gordez.

Emakumeak baserrietan egindako lan guztia ikustarazteaz hitz egiten dugu oraindik eta emakumea bera ere ez da sekula jabetu zenbat lan eta zenbat ardura hartu izan dituen bere bizkar gainean. Horrela egin behar zen, eta kitto! Eta gaur egun ere, nahiz eta horrelakorik ez esan, horixe bera dugu barnera-tua,... Egin eta kitto!

Lehen esan dugu ahozko ondareak zenbateko garrantzia duen. Bada, galdetu eta hitz egin inguruko emakume baserri-tarrekin, horrelako jakintza ezin da-eta elkarbanatu gabe itzaltzen utzi! Eta hitz egin, ez adinekoekin bakarrik, gaur egun baserritik bizitzeko aukera egin duten emakume gazteak ere bai baitaude! Haiek erakusten digute, bizimodu hau erdigunean jartzea aukera bat dela, eta gero eta aukera hobea gainera! Errekonozi-mendua eta eskerrak, beraz, baserria ogibide bezala lantzen ari diren baserriar guztiei, eta bereziki emakumeei!

11 GALDERA LABUR

EUSEBIO MITXELENA LAGUN ARTEKO SALTSEROA

«Feriak ez dakit, baina lagun arteko bazkaria seguru egingen dugula»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Beti laguntzeko prest dagoen gizona eta lagun artean saltsero samarra!

Zein dira zure zaletasunak?

Zaletasun anitz ditut, baina batez ere, animaliekin lotura duten zaletasunak ditut: zaldian ibili, aziendekin egon eta ehiza batik bat.

Animaliekin denbora anitz igarotzen duzu hortaz, zein da zuri gehien gustatzen zaizun jarduerara?

Zaldian ibiltzea da gehien gustatzen zaidana, zaldi gainean ibiltzeak ematen duen askatasuna!

Nondik datorkizu zaldiekiko zaletasun hori?

Gaztetan etxean laneko erabiltzen genituen behorrak,

eta haien gainean hasi nintzen lehenbizi. Hortik nire afizioa! **Zein da zaldi gainean ibiltzeko zuretzat leku gustokoena?**

Edozein menditan ibiltzen naiz ni gustura.

Zaldiz egiten dituzun irteeretan bakarrik edo bertze lagun batzuekin ibiltzen zara?

Lagunekin gustura ibiltzen banaiz ere, noizean behin bakarrik ibiltzea ere eskertzen dut.

Sunbillako Itzaldeko bordatik Doneztebera bizitzera joan zinen. Zer dela eta aldaketa hau?

Gaur egun dudak bikotea ezagutu eta bertan elkarrekin bizitzea erabaki genuelako.

Herri ttiki batetik handi baterako aldaketarekin kontent?

Bai, ze erremedio! Baina, Sunbilla eta Doneztebe artean ez



dut preferentziarik. Bietan ere ederki moldatzen naiz ni. **Zer du Doneztebek inguruko bertze herriek ez dutena?**

Herrian bertan denetarik dugu. Ostatuak, dendak, elkartek, eskolak, medikua, bestak, udazken nahiz udaberriko feriak... Azken hau da, ziur aski, gehien gustatzen zaidana. Goizean azienda kikusi eta ondotik lagun artean ederki bazkaltzeko aukera izaten dut.

Tamalez, aurten Doneztebeko udazkeneko feriak ospatzeko aukerarik ez da izanen...

Feriak ez dakit, baina lagun arteko bazkaria seguru baietz. Bazkaltzeko gutti aski dut nik, ilarrak sakramentuekin, bazkari ederra!

Amets bat?

Loteria tokatzea (kar, kar...) eta irabazitako dirua, inork engainatu baino lehen nire zaletasunak disfrutatzen gastatu.



Funda nordiko eta edredoieta espezialistak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

GI-3455 errepidean neurriak hartzeko eskaera

DABID ITURRIA, JUANKAR UNANUA, MIGUEL MARI IRIGOIEN, LADIS SATRUSTEGI ETA AITOR ELEXPURU ARANTZA, IGANTZI, ETXALAR, LESAKA ETA BERAÑO ALKATEAK

Bidasoa ibaia bizkarrezurtzat dugun eskualdeko biztanleok, bai Gipuzkoa aldekoak nahiz Nafarroakoak, Nafarroa Gipuzkoarekin lotzen duen N-121-A errepide arriskutsuan, hainbat arrazoi direla medio harat-honat gabiltza: lana, ikasketak, erosketak, kontsultak Bidasoko Eskualdeko Ospitalean, etab.

Irailaren 21etik, N-121-A errepidea itxita dago Intxaurreta eta Gurutze arteko lotuneen artean, Gipuzkoako lurraldean. Hau dela eta, GI-3455 errepide zaharretik desbideratzen gaituzte, bi zubibide horietan sortu diren egiturazko arazoak konpondu arte. Hasiera batean, gutxienez abendura arte iraunen duten obrak izanen dira.

Egoera hau dela eta, aste hauetan zehar errepidearen erabiltzaileen aldetik hainbat kexa jaso ditugu, trafikoa hagitz trinkoa baita, kamioiz betea, eta aunitzetan, errepidea beraren eta abiaduraren baldintzak direla eta, kamioiak kontrako erreian sartzen dira. Segurtasun ezak kezka sortzen digu; zoritxarrez, ez dugu mugitzeko berte errepide edo alternatibarik. Jada hainbat 'susto eta eskapada' izan dira.

Gure harridurarako, errepide zahararen ezaugarriak zeintzuk diren jakinda eta dagoen arriskua kontutan izanda, ez da inongo neurri gehigarririk hartu: kamioiak desbideratzea edo salgaiak garraiatzeko ibilgailuen zirkulazioa mugatzea, adibidez.

Matrikula bikoitz eta bakoitien bidez egin izan da berte egoera batzuetan orain dela ez aunitz.

Bortzirietako alkateok ezbeharren bat gertatu aitzinetik neurriak hartu ditzazuen eskatzen dizuegu Nafarroako Gobernuari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Gure eskaerak kontuan hartuko dituzuelakoan, jaso ezazue agur bero bat.

BOTA BERTSOA

MIKEL ALTZUART ZALDAIN
ARIZKUNGO
BERTSOLARIA

**Iratzarri**

Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke.

*'Virus' batekin higatu dute
jendearen osasuna
atendu dugu gure izatea
eta galdu nortasuna
debekatutako hitza bihurtu
dugu gure askatasuna
urrunkeria nagusitu ta
urrundu hurbiltasuna
erne! 'normala' bihur daiteke
gaurko menpekotasuna!
Tralalarai tralalarai
gaurko menpekotasuna!*

*Hau ez da inolaz berez etorri
guretzat dute ekarri
agenda baten urratsak dira
boterearen egarri
teknologiaren adimena
gure gainetik ezarri
etorkizuna nahi ez badugu
beren eskuetan jarri
gure barneko indar guzia
behar dugu iratzarri!
Tralalarai tralalarai
behar dugu iratzarri!*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58

HEMEROTEKA



«22 urte daramatzat profesionaletan eta ez nuen sekula halakorik ikusia. Badakit taldearekin [Baiko enpresaren kudeaketaren aurka dauden taldearekin] bat egiten ez badut, kritikak jasoko ditudala, baina alde horretatik oso lasai nago. Enpresak ERTEa ireki zuenean hasi zen taldea biltzen eta martxoan esan nien nirekin ez kontatzeko. Egoera berezia zen eta jakina zen garai txarrak etorriko zirela. Ez naiz gauzak gaizki daudenean eskatzearen aldekoa. Hasieratik oso argi utzi nuen (...). Beraien iritzia errespetatzen dut eta beraiek nirea errespetatu beharko lukete. Errealista izan behar da eta zein egoeratan gauden ikusi behar dugu(...). Bakoitzak nahi duena pentsa dezala (...). Urtebeterako kontratua sinatu dut baina ez dut lehen baino gehiago kobratuko. Hori gezurra da. Alderantziz, gutxiago kobratuko dut.

AIMAR OLAIZOLA

GOIZUETAKO PILOTARIA
D. VASCO. 2020.10.14



«Donostiara edo bertze toki batera joatean baino seguruago sentitzen gara herrian. Lehen Berako jendeak noiznahi jotzen zuen Gipuzkoako hiriburura edo Iruneira. Baina orain ez. Beran geldituta arrisku guttiago dugula sentitzen dugu. Due-la hilabete batzuetatik honat Gipuzkoa aldera lanera baino ez gara joaten (...) Orain dela aste batzuk herrian kezka sortu zen positibo ugari atera zirelako eta denok kutsatutako norbait ezagutzen genuen. Ez zen inor ikusten karriketan eta ostatuan hutsik zeuden. Orain egoera diferentea da. Ez da kasu gehiago agertu. Jendea erne dabil baina aunitz dira Nafarroan indarrean diren murrizketak hemen zergatik ezarri dituzten galdetzen dutenak».

IRATI ERRANDONEA

BERAKO GAZTEA
D. VASCO. 2020.10.15




«Orain arte zergatik ez diguten kasu egin Nafarroako Gobernuan? Bertze interes batzuk egon dira: mendialdeko biztanleak bigarren mailakotzat hartu izan gaituzte. Aitzineko legealdian eta oraingoan ari gara solasean. Haien proposamena 2+1 da, Belateko tunelak bikoiztuko dira, Olaben egingen da saihesbidea, Arraitzen ere bai... Guk eskatzen dugu Sunbillako eta Berako puntu beltzak ere har ditzatela kontuan: herri sarrera eta irteerak hagitz gaizki daude, eta hildako kopuru handiena hemen egon da: lehenetsi dezatela hori. (...) Guk nahiko genuke trantsituko trafikoa astuna hemendik ateratzea, A-15etik desbideratuta. Hori eginez gero, ez litzateke beharrezkoa Belateko tunelak handitzea. Baina dagoen mamua da autobide bat egin nahi dutela azkenean. Gure ustez ez da behar: horretarako egin zen A-15a».

AITOR ELEXPURU

BERAKO ALKATEA
BERRIA. 2020.10.20

GOITI ETA BEHEITI

**Kalteak Belateko baselizan**

Urriaren 9an, Belateko baselizan eragin zituzten kalteak salatu ditu Donejakue Bideko Lagunen Elkar-teak. Kristal bereziak dituen leihoari kolpeka barreneko beiratea ere hautsi zuten.



ANA GALAR



laz jokatu zuen azken pala txapelketa Etxegiak. Hala ere, lagunarteko partidak jokatzen segitzea ez du baztertu. FELIX LOIARTE

«Txapelketetako lehiak jendea erakartzea zailtzen du»

MIRARI ETXEGIA PERURENA GOIZUETAKO PALISTA

Hogeita hamar urtez pala besapean herriz herri ibili ondotik, iaz jokatu zuen azken txapelketa Mirari Etxegiak. Aurrerantzean lagunarteko partidetan edo Goizuetan sortu duten pala eskolan ikusiko dugu

N.BAZTERRIKA | GOIZUETA

Pala bezain gogorra izan da emakumezko palistek «onartuak izateko» egin izan duten ibilbidea. Mirari Etxegia Perurenak (Goizueta, 1964) ongi oroitzen ditu «emakumezkoak izan eta kirola egite hutsagatik» aditutako irainak. Zailtasunak zailtasun, «kirolaz gozatzeko, ezagutza emateko eta gazteak lotzeko» eginahalak eta bi egin ditu. Bide horretan segitzeko asmoa du, Umore Ona elkarrekin sortu berri duen pala eskolan.

Noiz hasi zinen palan jokatzen?

Herrian beti pilotan, palan edo futbolean ibili izan gara. Aukera askorik ez genuen... Kalean edo plazan elkartzen ginen eta

horrelako jokoetan aritzenginen. 1988an edo, buelta horretan behintzat, irakasle ari nintzen Mugairin eta mutilekin palan jokatzen nuen. Ahizpa Xole ere Goizuetan bizi zen eta berari ere kirola gustatzen zitzaion. Bera lehenago hasi zen entrenatzen... Txapelketetan, berriz, aldi berean hasi ginen. Nire koinatua lesakarra da eta herrian txapelketa bat jokatzeak zela esan zigun. Horrelaxe jokatu

«PALAN EMAKUME GUTXI DAUDE ETA GEHIENAK ESKUZ ERE ARITZEN DIRA»

genuen lehenbiziko txapelketa, Lesakan.

Nola oroitzen duzu hasiera hura?

Lehenbiziko txapelketan urduri nintzela oroitzen dut. Txiki-txikitatik ez nintzen pilotan ibilia. Nire ahizpa gehiago ibiltzen zen, eta bere arri-muan hasi nintzen. Lehenbiziko aldiz Lesakan jokatu nuen eta txapelketa nahiko sendotua zen ordurako. Igantziko lizarditarrak ibiltzen ziren...

«ERRAKETAK DUEN LEKUA PALAK HARTZEAK POZTUKO NINDUKE»

Gu Bea Lizardi eta Marta Iguzkiagirreraren aurka aritu ginen. Hasieran urduri nengoen. 20-10 galtzen hasi ginen baina buelta eman genion. Gu ginen kanpokoak ginen bakarrak, besteek jarraitzaile sutsuak zituzten... Urduritasuna joan zitzaigunean buelta eman eta irabazi egin genuen. Egun hartan, Intxaurren emakumezko batzuk elkartzeko nahian zebiltzala esan ziguten. Hara joan ginen eta, pixkanaka, gehiago aritzen hasi ginen: entrenatzen hasi eta federatu egin ginen. Pauso horiek 90eko hamarkadatik aurrera eman genituen. Hasieran mutilen aurka aritu ginen eta gero herri-tako neskek elkartzen hasi ginen. Neskek nesken aurka lehenbiziko txapelketa Lesakan jokatu genuen eta hortik federazioak antolatutako Gipuzkoako txapelketetara jo genuen.

Zenbat emakumezko aritzen zirenen?

Bazter guztietakoak biltzen ginen, hoguei bat. Hasieran, bakoitza bere herrian aritzen zen eta izaera bereziko emakumeak bagina bezala ikusten gintuzten, beti mutil artean ginelako. Hastapenak horrela izan ziren. Futbola, pilota... kirola gustatuz gero, hori zen modua. Elkartu ginenean, Aizarna (Zestoa), Aia, Donostia, Irurita, Igantzi, Oronoz... inguruko lagunak egin nituen. Horrela hasi ziren txapelketak: Intxaurren, Donostian, Lesakan, Donezteben, Iruritan...

Bazterketa sumatu zenuen?

Mari-mutil eta tankerakoak esaten zizkiguten kirola egite hutsagatik. Gure garaian horrela zen. Gogoan dut txapelketak hasteko edo onartuak izateko Hernanin mutilen mailan jokatu behar izan genuela. Lehenbiziko partida, mutilen aurka, 30-6 galdu genuen. Izugarritzko egurra eman ziguten, gainera aurkariak aurreko urteko txapelkunak ziren... Has-teko eta ezagutza emateko sufritu behar izan genuen, bai.

Egun emakume asko aritzen dira?

Ez da hain arraroa, baina oraindik orain emakumeak mugitzea kostatu egiten da. Pala kirol gogorra da eta gustatu egin behar da. Pilotan bezala, palan ere emakume gutxi daude eta aritzen direnak eskuz ere bada biltza.

Esku-pilota probatzeko asmorik izan duzu?

Ez, ez... Eta adin honekin ez naiz hasiko (irri artean). Pala dut gustuko, eta bereziki trinkete modalitatea. Palan frontoian hasi ginen, ezker paretan, eta gero trinketekoak erakutsi ziguten. Mundialak, adibidez, trinketean jokatzen dituzte. Emakumezkoek ezker paretako munduko txapelketak ez dituzte jokatu.

Oraindik orain, emakumezkoen presentzia ez da gizonezkoena bestekoa kirolean... Palaren kasuan, koska hori nabarmenagoa dela esanzen zenuke?

Bai, telebistak ematen du eza gutzera eta orain emakumezkoak esku-pilotan hasi dira. Horrekin presentzia hori areagotzen da. Oro har, pala partida gutxi ikusten dira telebistan eta emakumezkoenak gutxiago. Babeslerik ez dagoenez, txapelketa gutxi antolatzen dira... Zaila izaten da.

Zenbat txapelketa jokatzen dituzue urtean?

Lehen asko mugitzen ginen: Etxarri Aranatzan, Lesakan, Iruritan, Irunen, Hondarribian, Hernanin, Donezteben... herri askotan antolatzen ziren. Beti emakumezkoak ziren bultzatzaileak. Gaur egun federazioak antolatzen ditu txapelketa batzuk, baina herrietan ez da hainbeste jokatzen. Iparraldean izaten dira, eta hemen [Hegoaldean], inguruko herrietan.

Urte dezentez aritu zara...

Bai, iaz Hondarribian txapelketa bat irabazi genuen eta hori izan zen azkena. Printzipioz txapelketetan ez dut gehiago parte hartuko. Jende gazte asko dago eta norbaitek hartu behar du haria.

Hala ere, entrenatzen segitzen duzu.

Etxegia 1995ean Amurrión jokaturiko txapelketa batean. UTZITAKOA

Bai, beti gustatu izan zait... Baina ez da erraza, lagun bakoitza txoko batekoa delako eta elkartzeko zailtasunak izaten ditugulako.

Zertan aldatu dira urteotan entrenamenduak?

Lehen zaletasuna zen, nahi genuelako aritzen ginen. Entrenatzailea zaletua genuen, ez teknikoa... eta berandu hartu genituen teknikak. Orain hamasei urtetan nabarmentzen

hasien dira. Gaur egun, helburua ez da bera. Federatua egoteko txapelketa bat edo bi jokatu behar dira. Lehen denak jolastu nahi genuen... Orain dena arautuago dago eta motibazioan eragina du horrek. Onak direnak oso ondo, aurrea egiteko modua izaten dute. Baina tartekoa izanez gero, zailagoa egiten da eta uztea errazagoa da. Guk jendea kirolera erakartzea genuen helbu-


ru, kirola egitea eta kirola mantentzea. Txapelketetan bikote parekatuak egiten genituen eta jokoa eman nahi izaten genuen, gazteak kirolera lotzeko. Egun go helburuak ez du horrenbeste erakartzen.

Lagunarteko partidetan segitzeko asmorik baduzu?

Txapelketak utzi ditudan arren, afizionatu bezala jokatzea ez dut baztertu. Iaz bezala, garai bateko emakumezko taldea elkartuta, berriz jokatuko nuke... Lagunartekoa gustatzen zait, elkartu eta partida batekin ospatzea.

Nola ikusten duzu palaren etorkizuna?

Zail. Palan aritzen ziren gazte txo batzuk eskuz hasi dira, hor irtenbide bat ikusi dutelako. Beharbada bultzada ematen dio esku-pilotak palari baina... Ez dakit, ez dakit. Leku askotan txapelketarik ez dute antolatzen. Palan aritzen alditik aldira gutxiago ikusten ditut eta horrek tristura eragiten dit.



Umore Ona elkarteak pala eskola sortu berri du eta astelehen eta asteazken arratsaldetan biltzen hasiak dira.

Palan ikasitakoa irakasteko prest

Umore Onak sortu berri duen pala eskolari esker, «herrian bertan elkartzeko eta kirola egiteko» aukera dute urriaren 7az geroztik goizuetarek.

Bederatzi kirolarik eman dute izena eta Etxegiaren gidaritzapean biltzen hasiak dira. Entrenamenduak bi taldetan banatuta egiten dituzte, astelehen eta asteazkenetan: «neskek 17:30etik 18:30era dute eskola eta tenis-pilotarekin hasi

dira; mutilek, berriz, 19:30etik 20:30era eta pilota trinkoarekin ari dira».

Pala eskola herrian

Trebatzeko eta gozatzeko gunea herrian bertan izatea, palak beharrezkoa duen bultzadatxoa emateko «aukera ona» da Etxegiaren ustez. Hortaz, izan ez zuena eskaintzeko prest agertu da: «entrenatzaile aritzeko proposame-

na pozik onartu nuen. Niri beti kanpora joatea tokatu izan zait eta herrian bertan izatea esker-tu izanen nuke. Lanetik atera, etxera etorri eta kirola egitera».

Eskola baino gehiago

Eskolaren sorrerak eragindako mugimenduak eragina izan du herrian: «herriko lau neskek esku-pilotan izena eman dute». Elkarren babesa izan liteke neskek kirolean beren tokia hartu ahal izateko garatu beharreko lanabesa.

Positibo bakoitzaren arrastoari segika

Covid-19an positibo eman dutenen hurbileko kontaktuak bilatzea da aztarnarien lana. Iruñeko Refenan aritzen diren 84 lagunek telefono bidez egiten dute hori, eta haiekin batera tarteka laguntzera bertze 124 lagun hurbiltzen zaizkie, tartean, Ana Ferrandez Elizondoko erizaina

G. PIKABEA

«Jendeari, oro har, positiboek berde fosforito kolorekoak izan behar dutela iruditzen zaio, koronabirusean positibo direnak zein diren urrutira ikusiko ditugula eta gure familian edo lagunartean ez dela kasurik agertuko. Baina hori ez da horrela». Hori «argi eta garbi» utzi nahi izan du Ana Ferrandez Gonzalok. Elizondoko Osasun Zentroan pediatriako erizaina da lanbidez; horrekin batera, irailaren 28az geroztik Baztan-Bidasoaldeko herritarrei Donetztebeko osasun zentro zaharrean PCR probak egiten ere aritzen da eskualdeko osasun etxeetako bertze erizainekin txandakatuz, baita Iruñeko Refenan aztarnari lanetan ere. Batean zein bertzean hurbilekik ikusten ari denak hori ondorioztatzeko bide eman dio.

Lan gogorra

Irailean hasi zen aztarnari gisa lanean, «udan hiru eguneko formazioa jaso ondotik». Argitu digunez, «tarteka» joaten da, «larunbatetan eta igandetan». Iruñeko Refenan lan egiten duen aztarnarien lantalde finkoa 84 bat lagunek osatzen dute, ofizioz «erizainak, gizar-te langileak eta administrariak» dira, baina Ferrandezen irudiko, «denentzako lana bada eta gehiago ere bai. Lanez gainezka daude, ezin ailegatuz». Hala, «haien lan karga arintzen laguntzeko» eta bide batez, «nola funtzionatzen dugun ikusteko baliagarria zaidalako» joaten da «noizean behin Refenara laguntzera». Guztira 124 dira «noizbehinka» joaten direnak,

«gure lanetik aparte eta beharra dagoenean. Espainiako Defentsa Ministerioi UVE zaintza epidemiologikoko unitateetako militarrek ere joaten dira, hamar goizez eta bertze hamar arratsalde». Probatu ondotik jakin du «aztarnarien lana, buruz, arras gogorra, nekagarria eta astuna» dela, «akitz

tzen ez dena». Baina gisa berean, haien «eraginkortasuna» nabarmendu du, positibo direnak bilatzeko borrokan ezinbertzeak direlakoan.

Aitzineko bi egunak

Positibo bakoitzaren arrastoari segitzean datza euren egitekoa, hau da, positibo eman

«POSITIBOAK EZ DIRA FOSFORITO KOLOREKOAK»

ANA FERRANDEZ, AZTARNARIA

«ETXEKOEK BEHAR LUKETE HURBILEKO KONTAKTU»

ANA FERRANDEZ, AZTARNARIA

dutenen hurbileko kontaktuak bilatu behar dituzte: norekin egon diren, segurtasun neurriak erabili dituzten, nork duen kutsatzeko arriskua... Aitzineko bi egunak dira gakoak: «sintomak agertu edo PCR proba egin baino bi egun lehenagotik harremana izan dutenen zerrenda osatzen dugu. Positiboa eman duenak izen-abizenak edo izengoitiak eta telefonoak ematen dizkigu eta hurbileko kontaktuei deika hasten gara». Egitekoa «beti telefonoz» egiten dutela azaldu digu eta «deitzarako, telefonoaren bertze aldean dagoena jakinaren gainean izan ohi da, positibo eman duenak aitzinetik abisatu diolako». Aztarnariak izaten dira laneko baja tramitatzen dutenak eta aldi berean, «hasieran bat eta hamar egunen buruan bertze PCR bat egin behar dutela jakinarazten diegu, eta tarte horretan, etxean konfinatuta egon behar dutela».

Jendeak deiak «normalean, ongi» hartzen dituela aipatu digu Elizondoko erizainak, nahiz eta «aunitzi, lana dela edo bertze edozein arrazoi dela ere, etxean egon behar izate hori gaizki heldu zaien». Hori bai, «euren kezka nagusia ez da gaizki jarri eta ospitalera joan daitekeela pentsatzea. Harrigarria bada ere, are gehiago kezkatzen ditu hamar egunez gelan bakartuak egon beharko dutela jakiteak».

Nor da hurbileko kontaktua?

«Babes neurririk hartu gabe, 15 minutu baino gehiagoz, bi metro baino guttiagora egon direnak dira hurbileko kontaktuak». Positibo bakoitzeko «bana bertze sei-hamar hurbileko kontaktu» atzematen dituztela dio.

Etxeok, adibidez, hurbileko kontaktuak dira, eta Ferrandezen irudiko, «berez, etxeok baino ez lukete izan behar hurbileko kontaktu, positibo bakoitzeko bizpahiru edo lauzpabortz lagun». Errealitatea, ordea, bertzelakoa omen da. «Neurriak behar bezala beteko

Covid-19aren ondoriozko berrogeialdirako gomendioak

ETXEBIZITZAN BERROGEIALDIA EGITEKO ADIERAZI BADIZUTE, IZAN LITEKE GAIXOTASUNA INKUBATZEN ARI ZARELAKO ESAN IZANA. DENBORA HORRETAN EGIAZTATU AHAL IZANGO DA KUTSATU ZAREN EDO EZ, ETA, HARTARA, BIRUSA BESTE PERTSONA BATZUEI TRANSMITTITZE SAHISTUKO DA ETA, GAIXO BAZAUDE, GAIXOTASUNARI HOBEKI HELDURI.

1 Zergatik agintzen da?

15 MIN

2 M

Koronabirusa duen pertsona baten **kontaktu hurbila** izan zarela. Hasi da, baina duen norbaitengandik bi metroz baino guttiagora egon zarela, 15 minutu baino gehiago, probentzio-neurriak gabe.

Edo COVID-19a duen pertsona batengandik gertu egon zarela, ibilbide luzeak, geroz, batean chegatzina, tren, autobusa, autobus (autobusa, ...).

2 Zer neurri bete behar dira?

Etxean gelditu. Ahal bada, bukatu eta ongi jantzerako logela berritu.

Logelatik atera behar bada edo beste norbaitek bertan sartu behar bada, eutsi 2 metroko distantziari, erabili maskara eta eskuak garbitu.

Ez hartu bisitaririk.

3

Eskuak maiz garbitu behar dira, ur eta saboi edo gel hidroalkoholikoa erabiliz.

Ahal bada, egunero emurritel eutsi eta erretiratu zure jarduerak egin irakurti ordenagailu erabil, telefon bidezko komunikazioak izan lagunekin edo sareetakoekin...

Ez hartu botika antitermikoak (paracetamol, ibuprofeno...).

Temperatura egunero bitan hartu eta idatzi.

Sintomak agertzea zaindu.

SUKARRA EDUKIZ GERO, EZTULA, ARNESA HARTZEKO ZAILTASUNA, USAMENA EDO DASTAMENA GALTZE, BESTE SINTOMARIK EDO ZALANTZARIK, DEITU OSASUN-ETXERA. ETA OSASUN-ETXEAREN ORDUTEOTIK KANPO, 948 290 290 ZENGAKURA. ZURE LAGUNTZA FUNTSEKOA DA BIRUSA HEDATZEA KONTROLATZEKO.

ZAINDU ZAITEZ, ZAINDU GAITZAZU

balira, hau da, maskarak erabiliko balira, segurtasun tartea mantenduko balitz edo eskuak maiz garbituko balira, etxekoez gainera ez genituzke hurbileko kontaktu gehiago izanen. Baina betetzen ez direnez, eta jendea neurriak hartu gabe ibiltzen denez, ezin da imajinatu halako egoeretatik zenbat hurbileko kontaktu ateratzen diren, zenbaitetan positibo batetik 20 kontaktu». Hori «aunitz» dela aipatu digu, ez baita hor akitzen zerrenda. «Horietako bakoitzak bere familia eta ingurua du eta horrek aztar-narion lana aunitz zailtzen du».

«Seriotasun falta»

Horren gibelean «arduragabekeria eta seriotasun falta» sumatzen ditu Ferrandezek. «Norberaren ardura da eta hor huts egiten dugu». Bere hitzetan, «herriar multzo batek arras arduratsu jokatzeko du, baina badira koronabirusa beraiekin bat ez datorrela diotenak ere, neurriak hartu gabe dabiltzanak». Horren harira, ñabardura bat ere egin du: «neurriak betetzen ez dituztenak ez dira inondik inora haurrak edo nerabeak, nahiz eta eurengan jarri den arreta». Adibide batzuk ere eman ditu: «seme-alabak eskolan egun osoan maskarekin baldin badaude, arratsaldean ez daitezela gurasoak gabe ibili, eredu izan behar dute. Edo nik maskara jantzi izatea eta ondokoak ez paratzea arduragabekeria hutsa da, nik bera ez baina berak nikutsatzen ahal nauelako».

Halako jokabideak «izugarriak» iruditzen zaizkio: «egoera den bezalakoa izanda, arduratsua edo koherenteago jokatzeko ez dugula ikustea da okerrera. Osasungintzan eta hezkuntzan neurri aunitz hartu ditugu. Osasungintzan, erraterako, ezin sinetsizko esfortzua egiten ari gara, lanez gainezka gaude, estresatuak, eta gizartean zertan ari gara? Eskatu denok egiten dugu, baina gero neurriak ez ditugu betetzen». Gehiago ere konta-



Ana Ferrandez Elizondoko osasun zentroko pediatriako erizaina tarteka aztarnari lanetan aritzen da Iruñeko Refenan.

tu du: «orokorrean deus ez zaigula pasatuko sentitzen dugu, baina denak zaurgarriak garela erakutsi digun birus bat ailegatu da. Egungo protesta aunitz geure burua zaurgarri ikusi izanarekin lotuta daude, zaurgarritasun egoera horrek ezinegon sortzen baitigu».

Kutsatzeak herritarren jokabidearen isla direla uste du. Aitzitik, Nafarroako Gobernua «gauzak ongi egiten» ari delakoan dago. Bere irudiko, «aztarnarien lana eraginkorra da, horregatik topatzen dira hainbertze kasu. Bertze herrialde batzuetan, kontaktuen jarraipena ez da Nafarroan adina egiten eta horrek ez du erran nahi positiborik ez dagoenik. Asintomatiko aunitz dago, %40

hala dira, baina PCRrik gabe ez dira atzematen. Nafarroan, ordea, ebakuntzak egiterakoan, ospitaleratzean, haurdun daudenei... egoera aunitzetan egiten dira PCRak». Hain zuzen, «asintomatiko aunitz» daudelako «kontaktuak lehenbailehen identifikatzea ezinbertzekoa» iruditzen zaio. «Horietako bakoitzak ohiko bizimodua egiten segitzen badu kutsatzen ari da, birusa zabaltzen». Ez hori bakarrik. «Sintoma arinak dituzten haurrengan» ere jarri du arreta: «arras sintoma guti dituzte, sukar pixka batekin edo muki guti batzuekin positibo eman izan dute eta helduek bezala, berdin-berdin kutsatzen dute». Bide batez, ondorioez ere ohartarazi du: «zenbaiten-

gan gaitzak ondorioak utzi ditu, eta ez adinekoengan bakarrik».

Ardura eta pazientzia

Gaixotasun «berria» izateak kezka areagotzen dionik ez du ukatu: «sintomak urteroko gripeta katarroen antzekoak dira, eta etor daitekeenak beldur pixka bat eragiten digu». Baina etsipenean erori gabe, «pazientzia» eskatu du: «bederatzi hilabete dituen gaixotasun batez ari gara, dena berria da, eta ahalik eta hobekien egiten saiatzen ari gara. Osasun langileengan konfiantza izan beharko genuke». Horrekin batera, konpromisoa eskatu du: «garrantzitsua da herritarrek neurriak betetzea. Kontziente izan behar dugu geure inguruan positiboak ager daitezkeela. Ez da deus kostatzen eskuak ura eta xaboiarekin garbitzea, distantzia mantentzea edota maskara erabiltzea. Helburua «kutsatu kopurua murriztea» delako, eta «Covid- 19a duena ez delako fosforito kolorekoa».

«OSASUNGINTZAN ESFORTZU HANDIA EGITEN ARI GARA»

ANA FERRANDEZ, AZTARNARIA

«GARRANTZITSUA DA NEURRIAK BETETZEA»

ANA FERRANDEZ, AZTARNARIA

Ttiti Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

768 aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

OKILLE TAILERRA


okilletailerra.blogspot.com



Eguzkilore bat

Galaxy Park

www.galaxypark.eus



2 sarrera

IRRISARRI LAND


www.irisariland.com



2 sarrera

LESAKA

www.lesakakoudalkiroldegia.com



2 sarrera

**LI
BU
RU
AK**



- Ez naiz beldur!
- Musurik handiena
- Otso txiki gose da



- Urtaroen erritmoan dantzan!
- Formak
- Musurik handiena

ibaizabal

www.ibaizabal.com

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.okilletailerraesp.blogspot.com.es



www.martiko.com

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

***'GAUR NIRE ZORIONAK DIRA' ala
'GAUR NIRE URTEBETETZE-EGUNA DA?'**

Interjekzio modura erabilia, guztiz jatorra da *zorionak*. Hala nola, 'Zorionak eta urte berri on!'. Baina okerra da *urtebetetze* hitzaren sinonimo gisa erabilia. Hortaz, honela behar luke:

-*Gaur nire zorionak dira.


> Gaur nire urtebetetzea da / Gaur nire urtebetetze-eguna da.

Zoriontzeko moduen artean, jakina, 'Zorionak!' bera bakarrik aski da. Horrez gainera, 'Urte askoan!', 'Urte asko(ta)rako!' edo 'Anitz urtez!' erratea ere egokia da, gehienetan. Baita biak batera ere, bereziki urtebetetze-egunean: 'Zorionak, eta urte askoan!'.

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Bitxikeriak

Osatu erran zaharra!



Zein da zuzena?

***Azarorarte** ala **azarora arte?**



Azaro arte, azarora arte, azarora arte edota bihar goiz arte, bihar goizera arte eta bihar goizera arte. Hiru erabilerak ontzat ematen ditu Euskaltzaindiak.

Hilabeteen izenekin, aste-ko egunekin eta mende hitzarekin, <Ø arte> mol-dea tradizioiduna da eta Iparraldean aski erabilia: azaro arte, igande arte...

Hegoaldean gehien erabiltzen den moldea, berriz, <-ra arte> da: azarora arte, igandera arte... Zenbait estilo liburutan horixe gomendatzen dute.

Bertzetik, <-a arte> moldea ere erabiltzen da: azarora arte, igandea arte...

Baina beti dira okerrak loturik emandakoak:

***azarorarte,**
***iganderarte,**
***menderarte,**
***urterarte...**

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61



Heldu den hilabeteen utziko dute mojek Berako egoitza. UTZITAKO ARGAZKIA

San Jose zahar etxean erizain bat behar dute

Lanaldi osoan aritzeko erizain bat nahi dute, hasieran urte baterako eta gero kontratu mugagabea egiteko aukerarekin

TTIPI-TTAPA

Berako San Jose zahar etxean lanaldi osoan lan egiteko erizain bat behar dute. Erizaintza gradua edo diplomatura izatea eskatu dute eta euskaraz jakitea edota geriatrian aritua izatea baloratuko dute. Hasiera batean urtebeteko kontratua eskainiko dute, gero mugagabea egiteko aukerarekin.

Interesa dutenek 948 63 01 04 telefonora (Amaia) deitu edo resibera@laresnavarra.org helbidera curriculum bidal dezakete azaroaren 13a baino lehen.

Zahar etxeko mojak agurtu dituzte

Mojek heldu den hilabeteen utziko dute Berako egoitza eta agur xumea baina berezia egin nahi izan zieten urriaren 8an zahar etxekoek. Sor Juanak 13 urte eman ditu bertan lanean, Sor Agustinak 20 urte, Sor Concepcione 17 urte, Sor Isabelek 10 urte eta Sor M^a Jesusek hiru urte. Beñardo Barredok jota batzuk kantatu zizkien eta ondotik Agur Jaunak txistuarekin eskaini zieten. Hamaiketako eder batekin borobildu zuten omenaldia.



UTZITAKOA

Urretabizkaiaren margolanak ikusgai

Urriaren 24az geroztik Ikastolako Areto Nagusian, Maider Urretabizkaia margolariaren koadroak ikusgai daude. Erakusketaren izenburua *Gezurretarainoko beldurra* da eta abenduaren 27a bitarte egonen da zabalik, larunbat eta igandetan, 16:00etatik 20:00etara.

Lizuniagako Igoeraren 40. edizioa bertan behera utzi du Gure Txokoak

Covid-19ak 2020an utzitako osasun egoera dela medio, Gure Txokoa elkarteak eta Manttale Mendi Lasterketa taldeak Lizuniagako Igoeraren 40. edizioa ez egitea erabaki dute.

Gure Txokoa Elkartek 1980. urtean antolatu zuen lehen aldiz proba hau eta orduz geroztik, 1984. urtea izandu da ospatu gabe gelditutako urte bakarra. Baina, tamalez, 2020an ere ezin izanen da lasterketa egin. Urteetan zehar lasterkari kopuruan aldaketa haundiak izan dira, baina az-

ken urteotan ehun lagun inguruk parte hartu du.

Aipatzekoa da, Batista Teiletxea beratarrek proba burututako urte guzietan egin duela igoera.

Aitzineko edizioa

Iazko edizioan 86 korrikalarik parte hartu zuten. Urte honetan Chakib Lachgar lasterketako irabazlea izateaz gain, errekorra ere gainditu zuen. Beratarren artean, Gwendal Larque eta Ane Elzaurdia izan ziren lehendabiziko helmugaratu zirenak.



ESKAERA EGITEKO:

M. 676 051 660 

T. 948 631 557

Ordutegia. 10:00-13:00 eta 16:00-18:00

Helbidea. Ziobi, 3 ALKAIAGA

eposta: maziziorsenper@gmail.com

- IBERIKOAK
Urdaiazpikoa, Saltxitxoia,
Solomoa, Txorizoa
- IRULEGIKO AHATEKIAK
ETA PATEAK
- NAFARROAKO KONTSERBAK
- OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA
- ARDOAK, CAVAK, TXANPAINAK,
PATTARRAK, SAGARDOAK
- BIO ETA MSC* KONTSERBAK (*arrantza jasagarria)

**ENPRESA ETA
PARTIKULARRENTZAT**

***Zure neurrira
prestatzen ditugu!***

***Eguberrietako eskaerak
etxera eramaten ditugu!***



Erakusketa ikusteko azken eguna azaroaren 1a, igandea, izanen da. UTZITAKOA

'Bidasoko deportatuak' azken txanpan

Asteburu honetan izanen da erakusketa ibiltaria ikusi ahal izateko azken aukera

IZASKUN REKARTE

Kepa Ordoki-Memoria Historikoa Bidasoan elkartearen eskutik, Berako Udalaren laguntzaz, *Bidasoko deportatuak erakusketa* ibiltaria ireki zuten kultur etxean. Erakusketa urriaren 16an hasi zen eta azaroaren 1ean itxiko dituzte.

Kepa Ordoki-Memoria Historikoa Bidasoan elkartek sortutako erakusketa 27 panelez osatua da. XX. mendeko erregimen totalitarioetan hasita, deportazioaren testuingurua azaldu dute. Ondotik, Bidasoa inguruko eta Euro-

pako esparru nagusien berri ere bildu dute. Azkenik, Bidasoko hainbat deportaturen xehetasunak azaltzen dira.

Erakusketa ikusteko ordutegia

Erakusketa ikusi nahi duenak ortzegun eta ortziraletan, 17:00etatik 19:00etara, eta larunbat eta igandetan, 11:00etatik 13:00etara, izanen du ikusgai kultur etxean.

Bertaratzen direnek agindutako segurtasun neurriak bete beharko dituzte, baita erakusketa guztian zehar maskara erabili ere.



IZASKUN REKARTE BENGOTXEA

Beratarrek ere izan Bidearekin bat

Sare plataformak deitutako presoen aldeko aldarriarekin bat eginez, urriaren 3an hainbat herritar bildu ziren Berako Udal-letxe aterpean. Eguraldi txarragatik, egun horretan Euskal Herriko 650 mendi tontorretara egitekoak ziren igoerak maiztaren 8ra gibelatu zituzte.

'Musika sortu eta nahasteko aplikazioak' ikastaroa azaroaren 6an

Aitzineko urtean hasitako bi-deari jarraipena emanez, euskarazko IKTen inguruko doako ikastaro-ziklo bat abian jarri du *Sarean euskarazek*. Zazpi ikastaro mota eskainiko ditu Nafarroan eta Berako kasuan *musika sortu eta nahasteko aplikazioak* landuko dituzte. Azaroaren 6an izanen da, 17:30etik 19:30era Bera-landetan.

Musika sortu eta nahasteko aplikazioak

Mugikorrek, tabletek eta antzeko gailuek eskaintzen di-

tuzten musika aplikazio berriak modu erraz, intuitibo eta dibertigarrian erabiltzen irakatsiko dute ikastaro honetan. Ikastaroaren zuzendaria Dj Makala izanen da eta izen-emateak www.sareaneuskaraz.eus webgunean egin behar dira eta interesa dutenek 948 12 19 76 telefonoan informazio gehiago eskura dezakete. Saiok bi orduko iraupena izanen du eta doakoa da.

Ohar gisa, nork bere smartphonea edo tableta eta aurikularrak eramatea ezinbertzekoa da.

LABE ZAR
Astelehenetik ortziralerara:
07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

ETXEZ ETXEO ZERBITZUA
Ortziralea, larunbata eta igandea
19:30 - 22:30
ESKAERAK: 948 631 519
www.xugabera.com xugabera xugabera

BRANDONEA, S.L.
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

AUZOA GO!
ANIMO GUZTIOI!
• Etxez etxeko zerbitzua egunero BERAn eta LESAKAN
• Itxierak irauten duen bitartean.
• Astelehenetik igandera, 12:30etik 15:00etara eta 19:30etik 22:00etara.
ESKAERAK:
www.auzoago.com • T. 948 631 509

Organoaren jardunadia antolatu dute larunbaterako

Iosu Larunbek kontzertua eskainiko du, Mikel Galardi (tronpeta) eta Gaizka Sarasola (txistua) herritarren laguntzaz

AITOR AROTZENA

Organo jardunaldia egingen dute larunbat honetan, urriak 31, San Martin de Tours elizan, Nafarroako Organoaren Lagunen Elkartek (ANAO) sortutako Bfabemi.org proiektuaren barrenean. Proiektu honek gure herri eta hirietako kulturaren balioak eta potentziala sustatzen ditu, ondare organistikoaren eta horren inguruan lan egiten dutenen bitartez.

Larunbatean, 17:00etan, organo tailerra emanen du Iosu Larunbek, jakinmina duen edonorentzat zabalik. 18:30ean organo kontzertua eskainiko du Larumbek berak, herriko Mikel Galardi tronpeta-jotzailearen eta Gaizka Sarasola txistulariaren laguntzarekin obra batzuetan. Lesakako Roques Organoaren lagunak (AAORL) elkartek kontzertua antolatzen lagundu du.

Organoaren Lagunen Elkartea

Elkarte honek urte pare bat daramatza lanean, Lesakak ezkutatzen duen altxor handia ezagutarazteko asmoz: elizak

Interes Kultureko Ondasun izendatutako organo erromantiko handi bat du, baina zaharberritzea behar du, distira egin dezan. Horretarako, irabazi asmorik gabeko erakunde hori eratu zuten, organo honen kontserbazio-egoera zaintzea eta haren aberastasuna ezagutarazteko helburuarekin.

AAORL elkartek hainbat jarduera eta kudeaketa egingen ditu ahalik eta laguntza handiena lortzeko eta organoa Lesakako kultura eta prestakuntza-bizitzan elementu aktiboa izan dadin. Hasieratik ari da lanean ANAOrekin (Nafarroako Organoaren Lagunen Elkartea), eta honen laguntza eta aholkularitza jaso du, hagitx lagungarria eta interesgarria baita elkartearantz.

Organoaren inguruan sortu diren eta sortuko diren jarduerak zehaztu ditu Facebook kontuan; gainera, MECNA proiektuaren barruan ekarpenak egiteko barrenean eman du. roquesorgano@gmail.com helbide elektronikoan edozein kontsulta, iradokizun edo ekarpen erantzunen dute.



UTZITAKOA

Jantoki Osasuntsuak proiektuan ikastola

Nafarroako hiru ikastola sartu dira ikasturte honetan JANOS (Jantoki Osasuntsuak) egitasmoan, tartean Tantarumairu Ikastola. Sektore ekologikoan nekazaritza-ekoizpen ugari dauden lurraldea da Nafarroa: CPAEM, Eko-logikoak eta Ekoalde. Horiekin lankidetzan bat egin dute ikastola hauek.



UTZITAKOA

Zalain-Zokoko bide bazterrak moldatu

Zalain-Zokoko auzotarren eskaeraren ondorioz, Zalaingo fabrika ingurutik hasi eta Zalain-Zokoko zubira arte kuneta garbitzeko lanak eginarazi ditu udalak. Javier Alzugarai eraikuntza enpresak egin ditu lanak 2.674,10 euroren truke eta itxura politarekin geldiratu dira bide-bazterrak.

XAGU LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETA KO FOTOKOPIAK
- USBUR EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA

Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Hemen erabili

kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

BEKO

LOREAK ETA LANDAREAK

Fraín Auzoa • LESAKA
T. 948 637 826

Gestel

KSAT
telekomunikazioak

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA

T. 637 40 86 40 • 31780 BEPA
andonimabako@gmail.com

Etixerako su-egurra eska daiteke urriaren 31 arte

Aitzineko urteetan bezala bi modutan egin daiteke eskaera, ohiko moduan edo etxera eramatea eskatuz

IRUNE ELIZAGOIEN

Azken urteetan bezala, 2021erako etxeko su-egurra eskatzeko deialdia zabaldu du udalak. Udaletxean bertan egin behar da eskaera urriaren 31, larunbata, baino lehen eta bi modu eskainiko dituzte horretarako: ohiko modua edota egurra etxera eramatea eskatuta.

Ohiko moduan 10 euro ordainduz eginen da eskaera baina egurra prestatzeko

lanen kostea ere ordaindu beharko da (zuhaitzak bota, bidera atera, etab). Lotearen zozketa egin ondotik, eskatzailearen ardurapean geldituko dira gainerako lanak eta martxoaren 31 baino lehen atera beharko du lotea.

Etxera eramatea nahi den kasuetan, udala arduratuko da lotea atera eta eskatzaileak errandako lekura garraitzeaz, eta eskatzailearen ardurapean geldituko dira gainerako lanak.

Guraso Elkarteko batzordea berritu dute eta 'Ttapa-ttapa' ekimenak segitzen du

I. ELIZAGOIEN

Leire Olagarai, Karmele Pika-bea eta Jasone Iparragirrek beraien etapa bukatuta, Aitziber Gorrotxategi, Jabier Iriarte eta Laura Elizagoien sartu dira guraso elkarteko batzordean, lehendik ari ziren Garbiñe Maiz eta Miriam Bengoe-txearekin batera 2020-2021 ikasturterako junta osatuz. Bertze aldetik, pasa den ikas-

turtean martxa jarri zuten *Ttapa-ttapa* ekimenak berriz indarrean segitzen du, eta goizero guraso boluntarioen laguntzarekin herriko bi puntutatik (Antsolokueta auzokotik eta herri sarrerako aparkalekutik) haurrak eskolara oinez joaten dira. Modu honetan eskola inguruan sortzen zen kotxeen joan-etorriak ekidin nahi dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskaraldian izena eman daiteke

Herritarrek Euskaraldiaren bigarren edizioan izena ematera animatzeko argazkia atera zuten etxalartarrek urriaren 8an eta honekin lotuta *ahobizi* eta *belarriprestak* prestatzeko tailerra egin zen kultur etxean urriaren 23an. Biharamunean monologoa ematekoa zuen Oihan Vegak.

Larraburuko ekintza batzuk aitzinera eta bertzeak ez

Aurten, momentuz, ez dute sukaldaritza tailerriekin, ezta gimnasia eta muxiko dantzarik ere. Yogaikastaroa, aldiz, aitzinera atera da eta Amaia Lasheras lesakarrak ematen du. Ekintza solidario bat ere martxan jarri dute Paris365 elkarteari laguntzeko. Parte hartzeko bi modu daude; puntuzko jantziak eginez edota haria erosteko dirua emanez. Yogaikastaroan izena eman edota ekintza solidarioan parte hartu nahi duenak, 948 63 51 66 edo 664 38 73 43 telefonoetara deitu.

Ehiza Jardunaldi Gastronomikoak bertan behera

Urriaren 16tik hasi eta azaroaren 30era arte egitekoak ziren Baztan-Bidasoko XXVIII. Ehiza Jardunaldi Gastronomikoak, tartean Herriko Ostatuan. Oraingo bertan behera utzi behar izan dituzte.



Usoa saltsan Herriko Ostatuan.

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

**Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Lan aferak**

Zerbitzua euskaraz ematen dut.
Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com



F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

**Eramateko janaria
astelehenetik ortziralera**

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



Beñat Ziarra, herriko artxibategian lanean. MAITE, ANA ETA ITZIAR

«1566ko latinezko agiri bat topatu dugu artxiboan»

Udal artxibategia eguneratzen ari diren Ereiten enpresako Amagoia Piá eta Beñat Ziarra historialariek in solasean

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Ereiten enpresako Amagoia Piá eta Beñat Ziarra historialariak artxiboen antolaketan espezializatuak dira. Bertze zenbait herriren artean Igantzikoa eguneratzen ari dira.

Zein da egiten ari zareten lana?

Une honetan Igantziko udal artxiboa eguneratzen ari gara. Hau da, artxibo gelan dagoen informazioa antolatzen ari gara, edozein kontsulta eginez gero, informazioa azkar batean topatu ahal izateko.

Bertze nonbait ere aritu zarete?

Bai, Euskal Herrian zehar toki askotan; batez ere Gipuzkoan. Nafarroan Baztanen izan gara; une honetan, Igantzin ez ezik, Lesakan, Arantzan eta Uxuen ere dihardugu.


Egin dituzuen lanetan, zein izan da aurkitu duzuen dokumenturik bereziena edo arraroena?

Zaila da dokumentu bakarra aukeratzea. Asko dira edukigatik, baliogatik edo momentuagatik gogoratzen ditugunak. Aukeratzen hasita aipatu ditzakegu Asteasuko Artxiboan gordeta dauden XVII. eta XVIII. mendeetako auziak (irainak, erailketak, bortxaketak, lapu-

rretak,...), Baztanen dagoen auzi batetan aurkitutako karta-jokoan aritzeko karta bat (tranpatan omen zebiltzan), Uxueko liburu batean ikusi ditugun marrazkiak (XVIII. mende bukaerako janzkera jasotzen dutenak).

Hemen Igantzin, zein dokumentu iruditu zaizue bitxiena?

Igantzin azken hogeitaz urteetako dokumentazioarekin lanean gabilzan arren, beti aurkitzen dugu tarte bat artxiboko dokumentu historikoak irakurtzeko. Honela, ikusi dugu 1566. urtean latinez eskuz idatzitako zor baten inguruko gutun bat (honi buruz artikulua idatzi zuen gure lankide Olatz Etxeberriak). Badago 1816. urte inguruan Berrizaun zubia berri zuzeneko espedientea, benetan interesgarria edukiengatik: planoak, langileen soldatak, eraikitze baldintzak,... Nabarmenezkoak dira XX. mendeko lehenengo erdialdeko jaien inguruko edukia ere, neska-mutilak hurbilegi dantzatzeari inguruko gutuna, 1925. urteko jaietako programa (zaldi lasterketa eta guzti!),...



1950. urteko bestetako programa

Zerbait gehiago aipatu nahi baduzue...

Artxiboak antolatzea eta informazioa eguneratzea izatea funtsezkoa da bertze ekimenak abiatu ahal izateko. Lehenik eta behin, udalaren zein auzokoen eskubide eta betebeharrak aldarrikatzeko eta gauzatzeko; gardentasunarekin bat egiten du horrek. Bigarrenik, tokiko komunitateen sena indartzeko, herrien bilakaera laguntzen baitu honek. Biek ala biek etorkizunari so egiten diote, iraganean eta orainaldian abiatu arren. Horregatik da garrantzitsua.

San Juan Xarren eta bide berdean moldaketa-lanak

San Juan Xarrera doan bidexka azken aldia hondatu xamarra ageri zen, eta jakin dugunez, hurrengo hilabeteetan berritzeko lanak egingen dituzte, egurrezko baranda berrituko dute, zubia moldatu eta seinale berriak era jarriko dituzte. Lan hauek guztiak Nafarroako Gobernuak diru laguntzarekin egingen dira. Era berean, Bide Berdean ere hormigoizko kunetak egingen dituzte Nafarroako Gobernuak eta Uraren Bailarak erakundeak emandako dirulaguntzarekin.

Jubiloteka zerbitzua eskaintzeko asmotan da udala

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen laguntzarekin, jubiloteka zerbitzua eskaintzeko asmotan dabil udala. Urriaren 20an hitzaldi informatibo baterako deia eginga zuen udalak Baratzondon. Hurrengo zenbakian eta ERRAN.EUS webgunean informazio gehiago izanen duzue. Bertze alde batetik, azken egunotan ur-mozketak izan dira herrian. Ura galtzen den lekuak badi-rela eta, enpresa baten zerbitzua kontratatatu du udalak eta Jokinen laguntzaz ari dira ezarian zuloak harrapatzen.

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

Baserritarren Eguna gogoan bideoa eta saskia prest

Baserritarren Egunik izanen ez denez, Ekaitza Elkartek seinale gisa bideo bat egin du eta saskia zozketatuko du

NEREA ALZURI

Joan den ortziralean hasi ziren kultur ekitaldiak eta asteburu honetan segida izanen dute. Larunbat honetan, erraterako, urriaren 31n, 20:00etan, Estitxu Pinatxo beratarrak eta Mikel Santxez lesakarrak osatzen duten Dama Beltzak-en emeraldia izanen da eskolan.

Azaroan lehenean, osasun egoera dela eta, Baserritarren Egunik ez du antolatuko Ekaitza Elkartek. Hala ere, oroigarri gisa, aitzineko edizioetako irudiekin bideo bat prestatu du. Gehiago ere bai. Bertako pro-

duktuekin osaturiko saskia zozketatuko du eta txartelak dagoeneko salgai paratu ditu. Juntako kideei erosten ahal zaizkie. Bidenabar, Ekaitza Elkartek eskerrak eman nahi dizkie edizioz edizio parte hartu izan duten herritarrei eta heldu den urtean betikora bueltatu eta Baserritarren Eguna egiteko gogoia adierazi dute.

Kultur ekitaldiei akabaila emateko, azaroaren 6an, *ahobizi* eta *belarriprestentzako* tailerra izanen da. Parte hartzeko Euskara Mankomunitatera deitu behar da.

Euskaraldian izena emateko deia egin diete herritarrei

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra, Euskaraldiaren bigarren edizioa izanen da. Norbanakoen izen-emate garaian gaude, eta *izenematea.euskaraldia.eus* atarian egin daiteke. Duela bi urte 153 aranztarrek eman genuen izena eta ea aurten datuak hobetzen ditugun! Izen-ematea bultzatzeko bideo bat ere egin nahi dute eta bizilagunen arteko 10 segundoko solasaldia bideoan grabatzeko deia luzatu dute. Parte hartzeko 678 03 50 16ra deitu beharko dute.

Aurtengo Euskaraldian, berrikuntza gisa, *ariguneak* izanen



TTIPI-TTAPA

dira, ariketa soziala taldean egiteko entitateak, tartean, herriko hauek: udala, botika, Pabloenea eta Aterpe jatetxeak, Dena eta Apezenea janari-dendak eta Rural Kutxa.

Egur loteak eskatzeko epea azaroaren 6ra arte zabalik

NEREA ALZURI

Negurako prestatzeko, urtero bezala, udalak su egurretarako loteak eskainiko dizkie herritarrei. Bi aukera izanen dira horretarako. Alde batetik, norberak bere aldetik eramaten ahal izanen du egurra, baina bertzetik, nahi duenari

egurra etxeraino eramanez diete kamioian. Beti bezala, kamioi erdi bat izanen da lotea eta kasu honetan, haritz amerikarra izanen dela adierazi dute udaletik.

Interesa dutenek herriko etxera deitu beharko dute azaroaren 6a baino lehen.



TTIPI-TTAPA

Liburutegia zabalik

Martxoaz geroztik itxita egon ondotik, joan den urriaren 7an, herriko liburutegiak berriz ere ateak zabaldu zituen. Astelehen eta asteazkenetan, 16:30etik 18:00etara irekia izanen da. Osasun neurri guztiak beteko dira eta hurbiltzen denak nahi duen liburua hartzeko aukera izanen du.

MARTIX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450

- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Legia, 23 - BERA

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

PRIM, c.b.

Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T/F. 948 625 206 • BERA

Colon Pas. 6 - atzea • T/F. 943 633 050 • IRUN

Potentzia handiko laserra. Allynare metodoa

logurak

www.logurak.com

Centro Prim

regina tolosaecheper

Berdintasunari buruzko saioak prest ditu Cedernak

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Internet bidezko saioak azaroaren 3an, 5ean eta 9an egingen dituzte

TTIPI-TTAPA

Kontziliaziorako Tokiko Itunak programako genero-berdintasuna sustatzeko ekintzen barnean, Cederna Garalur Elkarrekin emakumeen aurkako indarkeriaren arloko prestakuntzari eta sentsibilizazioari buruz sei lantegi antolatu ditu. Prestakuntza honen helburu nagusia indarkeria-kasuak identifikatzeko eta tratatu txarren aitzinean erabilgarri dauden baliabideak ezagutzeko behar diren tresnak ematea da.

Bi orduko saio birtualak izanen dira. Gaztelaniazko saioak

azaroaren 3an (10:00etatik 12:00etara), azaroaren 5ean (09:00etatik 11:00etara) eta 9an (12:00etatik 14:00etara) egingen dituzte. Bertzalde, euskarazko saioak, 16:00etatik 18:00etara izanen dira azaroaren 3an eta 5ean, eta 15:00etatik 17:00etara azaroaren 9an. Lantegietan gehienez ere 20 lagunek parte har dezakete. Ikastaroak Murgibe enpresak bideratuko ditu.

Izen-emateak: Murgibe. Posta elektronikoa: telletxea@murgibe.com. Telefonoa: 662 42 93 68.



Urriaren 19an Lesakako Plaza Zaharrean egin zuten elkarretaratzea. UTZITAKOA

Baztan-Bidasoko Pentsionistak martxan taldearen bilkurak hasi dira berriro

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoko pentsionistak martxan elkarrekin hilabeteroko elkarretaratze dinamika hartu du berriro. Urriaren 19an bildu ziren Lesakako Plaza Zaharrean.

Lesakakoaren ondoren, azaroaren 16an Elizondoko Foruen Plazan egingen dute; abenduaren

21ean Berako Iamoteneko aparkalekuan; urtarrilaren 18an Doneztebako eskolaren aitzinean; otsailaren 15ean Lesakan; martxoaren 15ean Elizondon; apirilaren 19an Beran; maiatzaren 17an Donezteben eta ekainaren 21ean Lesakan. Elkarretaratze guztiak 12:00etan izanen dira.



Bortzirietako
Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

JAKINARAZPENA

2020ko bigarren urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

ORDAINTZEKO ERA

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak: Abisuan agertzen den edozein kontutari egingen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak: Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

ORDAINTZEKO EPEA

- 2020ko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2020ko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekariguarekin kobratuko da.

Etxalar, 2020ko urriaren 20a
Lehendakaria,
Miguel Maria Irigoien Sanzberro

Gipuzkoako zatian obrak egiten ari dira N-121-A errepidean

Horiek bukatu bitartean ibilgailu astunen trafikoa murriztea eskatu dute Bortzirietako alkateek

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako alkateek Nafarroako Gobernuari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari idazki bat bidali diete «ezbeharren bat gertatu aitzinetik» N-121-A errepidearen Gipuzkoako tartea obrak dirauten bitartean neurriak hartu behar direla eskatuz. Duela gutxi, bertze arrazoi batzuegatik, zirkulazio astuna murriztu zuten agintariek, matrikula bikoitien eta bakoitien bidez. Alkateek diotenez, oraingo egoera nahiko larria da neurri horiek berriz aplikatzeko.

Idazki horretan diotenez, «gure harridurarako, errepide zaharraren ezaugarriak zeintzuk diren jakinda eta dagoen arriskua kontuan izanda, ez da inongo neurri gehigarririk hartu: kamioiak desbideratzea edo salgaiak garraiatzeko ibilgailuen zirkulazioa mugatzea adibidez. Matrikula bikoitz eta bakoitien bidez egin izan da bertze egoera batzuetan orain dela ez aunitz».

Egoera hau dela eta, aste hauetan zehar «errepidearen erabiltzaileen aldetik hainbat kexa» jaso dituztela diote alkateek, «trafikoa hagitz trinkoa baita, kamioiz betea, eta aunitzetan, errepidea beraren eta abiaduraren baldintzak direla eta, kamioiak kontrako erreian sartzen dira». Segurtasun ezak kezka sortzen die alkateei; zoritxarrez, «diote euren idatzian» «ez dugu mugitzeko bertze errepide edo alternatibarik. Jada hainbat 'susto eta eskapada' izan dira».

Orain, errepidearen Gipuzkoako zatian obratan ari direnean, ez da argi-seinale berezirik jarri arriskuaz ohartaraziz. Duela bi urte bost hilabetez A-15 errepidetik egin zen garraioaren desbideratze partziala aipatu dute alkateek. Eta Belateko tuneletan hobekuntzak egiten zituzten asteetan ibilgailu astunen joan-etorria arautu zuten agintariek, kamioien matrikula bikoitiaren edo bakoitiaren arabera.

Menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko oinarrizko ikastaroa Lesakan

TTIPI-TTAPA

Mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko oinarrizko zainketak ikastaroa eskainiko dute azaroaren 2tik 6ra arte Lesakako liburutegian, 08:30etik 14:30era.

Hogeita hamar orduko prestakuntza presentziala izanen da, sektorean, Nafarroan, lan egin eta gero enplegu-poltsa batean sartzeko.

Eguneroko bizimoduko oinarrizko jardueren zainketak, mugitzeak eta jardura fisikoak, lehen sorospinak eta disfagia, transmititzen ahal diren eritasunen prebentzioa eta komunikazioa eta alde psikologikoari arreta landuko dituzte. Nafar Lansaren izena emana dutenek www.empleo.navarra.es webgunean, Formación atalean eman dezakete izena.



UTZITAKOA

Lehen mailako osasun arretaren alde

Osasun etxea zaindu lelopean elkarretaratzeak deituak ditu Nafarroako Osasun Plataformak asteazkenetan. Urriaren 7an hasi ziren eta hilaren 14an eta 21ean egin zituzten bigarrena eta hirugarrena. Eskualdean Lesakako osasun zentroaren aitzinean hainbat herritar eta osasun langile bildu ziren.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu



www.ibargoyen.net ☎ **943 616 587**
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Estitxu Arozena eskualdeko hainbat bertso eskoletako irakaslea da. TTPI-TTAPA

«Bertso eskola lotua da baina lotura polita sortzen duena»

ESTITXU AROZENA ALBIZU BERTSOLARI LESAKARRA

Hamasei urte zituelarik hasi zen plazetan Arozena, eta egun, txapelketetan jarraitzen ez badu ere egunerokotasunean bertsozaletasunean murgilduta jarraitzen duela aitortu du lesakarrak

I. REKARTE | LESAKA

Mutrikun sortua eta hiru hilabeterekin Lesakara ekarri zuten aitaren (Manolo Arozena bertsolaria) lan aferak zirela-eta, bi anaia zaharragoe-kin batera. Estitxu Arozenak Lesakako Tantirumairu ikastolan ikasi zuen, eta bertan bizi zen bertso giroak bultzatuta, taldetxo bertsozalea sortu zen bere gelan. Batxilergoan zegoela, bertso eskola sortu eta bertan bertso eskolak ematen hasi zen. Azkenik, hamasei urterekin plazetarako pausoa eman zuen. Egun, Nafarroako bertso eskoletako irakaslea da. Bere bertsolari ibilbideaz, bertso eskolaz eta emakume bertsolarien ingu-

ruko kontuez aritu da TTPI-TTAParekin.

Gaztetatik bertsolaritza munduan murgilduta ibili zara. Nondik datorkizu bertsolaritzarako zaletasuna?

Ezin dut erran nondik heldu den. Aitaren aldeko familia hagitz bertsolaria da. Amaren aldekoa baita, baina ez da aitaren aldetik bezain orokorra. Familian ohitura dugu bazkalondoan bertso zaharrak edo

«FAMILIAN OHITURA DUGU BAZKALONDOAN KANTATZEKO»

kantu zaharrak kantatzeko. Familia kantaria dut, bueno, gara. Gero, Lesakan Tantirumairu Ikastola bertze oinarri bat da. Familia bai, baina baita ikastola ere bai. Ikastolan orain musika ematen dute, baina urtetan musikaren partez bertsolaritza ematen zen. Hortaz, ikastolak eta familiak eragin dutela erranen nuke. Eta gero, taldea ere bai. Gure taldean gela berean ginen Iñi-

«EZ DAGO ALDE HANDIRIK NIRE ETA AITAREN PLAZARATZETIK»

go Olaetxea, Estitxu Fernandez, Xabier Erkizia, Silveira (urte bat gazteagoa) eta ni. Bertso-laritza gustatu eta jarraitzen genuena. Taldeak ere eragin handia du, zuk eta zure aitak bakarrik baduzue zaletasuna, hori hor gelditzen da eta zaila da aitzinera eramaten. Horregatik, niri, taldeak anitz lagundu zidan.

Aita ere bertsolaria duzu.

Nire aita 1988an plazaratu zen, nik ordurako 13 urteak beteak nituen. 1986ko Euskal Herriko Txapelketara elkarrekin joan ginen, nik 11 urterekin dena jarraitu nuen: finalerdiak, finala... Eta, berehala, aita plazaratu zen. Anekdotagisa, aitak beti kontatzen du Nafarroako Bertsozale Elkartera deitu zuela Estitxu Arozenaren aita zela erranez. Beraz, ni bertsoan hasi nintzenerako nire aitak ez zera- matzan urteak plazetan. Nik 13 urte nituen aita plazaratu zenerako eta ni 16-17 urterekin hasi nintzen plazaz plaza. Orduan, ez dago alde handirik nire eta aitaren plazaratze momentuen artean.

Aitarekin taula partekatzea gus- tatzan zaizu?

Nahiago dut taulan aitarekin egon, ni entzule izan eta aita kantatzen aritzea baino. Gut-tiago sufritzen nuen ni ere berarekin taula gaine- kan- tatzen banangoen, eta ez pu- blikoan aditzen egonda. Biok taulan gaudenean, alde bate- tik babesa eta bertze aldetik konpromisoa sentitzen da, zortzi bertsolarietatik bi gu baikara. Horrez gain, aita eta bion artean alde nabari bat dago: nik plazak uzteko era- bakia hartu nuen eta erabaki horretan hagitz erradikala naiz. Orain, plazetako martxa gal- duta anitz kostatzen zait berriz ere taula gainera igotzea. Agian, izan liteke hain gazte plazetan hasi nintzenez, orain pauso bat gibelera eman dudanean, gibelera egin dudalako. Gai- nera, ni astelehenetik ortzira- lera bertso klaseak ematen bizi naiz, mundu horretan.

Aita, aldiz, bertsoan aritzeko deitzen badiote bi aldiz pentsatu gabe joaten da. Zentzu horretan, bera ni baino bertsolariagoa da.

Zenbat denboraz ibili zara txapelketetan?

Nik 17 urtez kantatu nuen txapelketetan. Baina txapelketan egotea ez da soilik saio horretara joatea. Txapelketan baldin bazaude, plazak egin nahi dituzu, bertsoan aritzeko mugitu nahi duzu. Urte pila bat dira bai, 16 urterekin hasi eta 2011n egin nuen azkeneko txapelketa. Ondotik ere zerbait egin dut, baina gutti. Eta bai, gogoan dut hemen, behintzat, taldekako lehiaketa edo zerbait informala antolatu eta bertan kantatzeko. Gertatzen dena da, orain, antolatzaile papera dudala, inguruan bertsolaritza dabilen soldatapeko bakarra, edo ia bakarra, naizelako. Hortaz, ardurak hartu behar ditut, eta ardurak hartzea eta kantatzea zaila da.

Plazatik bertso eskolako irakasle izatera...

Zorte handia dut, bertsolaritza nire zaletasuna da eta irakas-kuntza pila bat gustatzen zait. Eta bertso eskolako irakasle izatean, biek bat egiten dute. Esperientzia bezala zoragarria da. Hain zoragarria, batzuetan pena ematen baitut bertze deus ez probatu izana. Hori ere hala da. Batzuetan neure buruari galdegiten diot zenbateraino den egiten dudana nire erabakia edo ingurukoek eta inguruak egitera bideratu nauena. Bertso eskola lotua da, baina lotura polita. Lanpostu duina da, baldintza onekin eta lan gisa hagitza polita.

Noiz hasi zinen bertso irakasle lanetan?

Bertso irakasle, agian, bertsoan baino lehenago hasi nintzen. Hasteko, 1995ean Kanbon, Jon Sarasuaren baja bat egin nuen asteen bi egunez. Hori baino lehenago, 1993an, Psikologia Gradua egiten ari nintzen bitartean, Antiguoz auzoan arratsaldetan bertso



Arozena 2010ean jokatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketan. BERTSOA.EUS

eskolak ematen nituen. Anek-dota gisa, garai hartan Psikologia Graduan nire irakasle zenari bertso eskolak ematen nizekion. Goizetan bera nire irakasle zen bi orduz eta arratsaldetan ni bere irakasle nintzen bertze bi orduz eta egotera hau bitxia, baina polita zen. 1999an lanaldi osoan hasi nintzen, gauregun arte. 2011n deskantsua hartu nuen amaizan nintzelako.

Irakasle ibilitako urte hauetan, baduzu talde kuttunik?

Gustura egon naizen taldeak aunitz dira, ezin dut bat soilik

hautatu. Aitortu behar dut emaitzak eman baditu, beti oroitzen zarela. Gogoan dut Leitza joaten nintzenean eta Illarregi anaiak ezagutu nitue-nean, «nik hauek etorkizunean ikusi nahi ditut; haurretan horrelako gaitasuna badute, gero nolakoak izanen dira!» pentsatu nuen eta emaitzak ikusi dira. Julio Sotori ere klaseak eman nizekion. Irakasle bezala motibatutako ikasle batek poza ematen dizu. Azkenean, irakasle izatea ez da jakintza guztia dut erakustea, irakasle izatea laguntzea da,

tresnak ematea eta bidean laguntzea. Bertzetik, nik nirean dut Bortzirietako Bertso Eskola. Ez da klaseak ematea bakarrik, urtean zehar egitarau bat edo taldekako lehiaketa bat sortzea da. Bortzirietan, gainera, babes handia dut helduen taldean, eta batzorde bat bailitza antolatzen da. Beti laguntzeko prest daude, adibidez, Iban Garro, Julen Zelaia eta Eneko Fernandez. Hortaz, Bortzirietan elkarte ttiki bat garela iruditzen zait.

Bortzirietan neska gazte talde bat omen bertsoan dabilena...

Talde polita sortu da, edozein proposamen aitzinera ateratzen dute eta beti prest daude edozer antolatzeko. Bertsoan, gizartean bezala, estereotipoek berdin segitzen dute. Haurretan denak nahiko berdin jokatzeko dute, baina 15 urtetatik goiti gauzak aldatzen hasten dira. Mutila, bertsoan pixka bat kaskarra goa bada ere, mikrofono aitzinean erraz jarriko da. Neska, aldiz, bertsoan ongi moldatu arren, pausoa ematea gehiago kostatuko zaio. 90.eko hamarkadan hori horrela zen, eta orain ere bai. Horrek zer pentsatu ematen du, egungo neskek emakume erreferenteak dituztelako. Euskal Herriko Txapelketan txapelduna emakumezkoa izan da bi urtez.

Oraindik ere emakumeak taula gainean epaitzeko joera dago?

Ni hagitza zorrotza naiz gai horrekin eta zentzu horretan gibelera egin dugu. Bertsolariaren balioa ez dago jantzian, bertsoak egin eta kantatzeko gaitasunean baizik. Gizonezkoa ez da epaitzen kirol arropa, bakeroak edo mahoizko galtzak janzten baditu, emakumea, aldiz, bai. Gure garaian *drag-queen*ak deitzen ziguten garaiko gizonezkoak imitatzen genituelako. Baina, emakumeak hori baino anitzagoak gara. Bilakaera bat eman da, bai gizonezko bai emakumezkoen estetikan eta estetika guztiak beharrezkoak dira.

Motzean

Bertso bat hautatu beharko bazenu...

Maialen Lujanbioren *Bi nortasun agiri zarete*. Baina hagitza zaila da bat soilik aukeratzea.

Bertsolari bat?

Hemen ere arazo bera da, ezin dut bakarra aukeratu... Hiru aipatuko nituzke: Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga eta Jon Sarasua. **Nor aditu nahiko zenuke zure bertso bat kantatzeko?**

Ilusioa egiten dit ezagutzen ez dudan pertsona bat nire bertso bat kantatzen aditza.

Bertsoan aritu zaren leku bat?

Azken bi finalak hagitza bereziak izan dira. 2010ean Lesakan eta 2011n Labriten. Biak ere jendez lepo zeuden.

Bertso pentsatuak edo bat-batekoak?

Bat-batekoak.

Marketin ikastaroa azaroaren 3tik aitzinera

Hiru astez eskainiko dute eta asteartetik ortzegunera bitarte biduko dira, Herrigunean

MARGA ERDOZAIN

Proiektu sortzaileen marketin ikastaroa izanen dute azaroaren 3tik aitzinera. Ikastaroaren helburu nagusia sektorean lan egiten dutenen edo erabiltzaileekin erlazioa dutenen gaitasun profesionalak hobetzea da eta guztira 60 orduko formakuntza izanen da. Azaroaren 3an hasi eta azaroaren 19an akituko da. Asteartetan 09:00etatik 13:00etara emanen dute eta astearte eta ortzegunetan goizez eta arratsaldean.

Formakuntza hezigarria eta praktikoa hiru astez

Bederatzi jardunalditan gartuko dute, hiru astez, asteartetik ortzegunera. Gaiak anitzak izanen dira: proiektu sortzaileen marko orokorra, komunikazioa, ideia proiektu bihurtzea, marka sortzea, proiektuari forma

grafikoa ematea eta babesleen akzioak, bertzeak bertze.

Eredu hezigarri nahiz praktikoa emanez eta proiektu zehatzak aztertuz, ikastaroan parte hartzen duten pertsonen ideia bat proiektu bilakatzeko bide egokienak zein diren ikasiko dute eta ikastaroan proiektu garapenean eta formakuntzan esperientzia handia duten profesionalak parte hartuko dute.

Izen-ematea

Izena emateko Lehen Hezkuntzako ikasketak akituta izan beharko dira eta langabezia daudenek lehentasuna izanen dute. 948 45 03 09 telefonora deituz, esantest@navarra.es helbidera idatziz edo <http://www.formacion.infoweb.orrialderean> bidez egin ahal izanen dute.

'Irakurri, gozatu eta zurekin oroitu naiz' kanpaina martxan liburutegian

MARGA ERDOZAIN

Abenduaren 9ra arte *Irakurri, gozatu eta zurekin oroitu naiz* kanpaina martxan da liburutegian. Helburua, iaz bezala, euskaraz irakurri eta gozatzea da baina aldaera batekin: *zurekin oroitu naiz*. Liburutegiako erabiltzaileek euskarazko liburua hartzean fitxa bana beteko dute eta pertsona batekin oroitu dira. Haiei irakurritako liburua oparitzeko gonbita egiten diete. Liburutegi guztietako partaide guztien artean 500 liburu zozketatuko dituzte eta, aukeratua izanez

gero, opari moduan norbanakoen etxera ailegatuko dira mezu bat atxikita duten liburuak. Horretaz gain, kanpainaren bukaeran bertako liburutegian irakurgailu elektronikoko bat zozketatuko dute.

Irakurketa eta idazketa taldeak martxan

Ez da liburuan abiatutako egitasmo bakarra. Urri bukaeran literatura eta idazketa taldeak ere martxan paratu dituzte. Idazten trebatzeko saioak, aurten ere, Marian Benitezek gidatuko ditu.



ARTXIBOKOA

Udazkeneko feriarik ez dute izanen aurten

Nahiz eta aunitzek dagoeneko hala izanen zela pentsatu, Donostebeko Udalak azaroaren 13an ospatzekoak zituzten udazkeneko feriak ez dituztela eginen berretsi du. Herriar eta ingurukoek postuz postuko buelta egiteko urtebete esperatu beharko dute.

Udalak neurriak betetzeko zerbitzuak egokitu behar izan ditu

MARGA ERDOZAIN

Dagoeneko eta printzipioz azaroaren 4ra bitarte, Nafarroako Gobernuak ezarritako neurrietarako herriak hainbat kontu prestatu eta egokitu behar izan ditu. Udal zerbitzuei dagokionez, udal bulegoak irekita daude orain arte bezala, eta hitzordua eskatzea komenigarria da (948 45 00 17 telefonoan); kiroldegiko funtzionamendua ez da aldatuko neurri eta protokolo zorrotzarekin ari baitzen (hemen ere hitzordua eskatu behar da); liburutegian edukiera eta zerbitzuak erabat kontrolatuak



daude zerbitzu segurua bermatzeko. Ipuin txokoa aurrez aurre egin beharrean Zoom-en bidez egiten ari dira eta parte hartzeko honako telefono honetara deitu behar da 641 58 99 08. Azkenik, herriko parkeak zabalik daude, baina edukiera %30era mugatuta.

Oier Berasategik San Antonio taldean jokatu du aurten

M. ERDOZAIN

Errekako jokalaria zen Oier Berasategi doneztebarra Iruñeko San Antonio taldeak fitxatu du. Hortaz, aurtengo denboraldian Espainiako lehen mailan jokatu du. Errekak zortetik onena opa dio. Gozatu!



Oier Berasategi.



'Biba zuek' saioan eman zituen azalpenak Biurrarenak. UTZITAKO ARGAZKIA

Bularreko minbiziak aritu da ETB1en Nieves Biurrarena

Bere bizipenak azaldu zituen 'Biba zuek' arratsaldeko saioan urriaren 19an, Nazioarteko Bularreko Minbiziaren Egunean

MAIDER PETRIRENA

Nieves Biurrarena Maia herritarra, urriaren 19an, Bularreko Minbiziaren Nazioarteko egunean, Euskal Telebistako *Biba zuek* programan atera zen bere bizipenak konatzera.

Nievesi 39 urte zituela, bularreko minbizi diagnostikatu zioten eta ondorioz, beharrezko tratamendua hartu behar izan zuen. Bere bizia guttiz aldatu zen, baina aldaketa horrek indar haundia eman zion bizitzen jarraitzeko eta gainera herrira etortzeak ere aunitz lagundu zion bera

hagitz maitatua sentitu baitzen jasotako laguntzarekin. Orain bi urte berriz ere bertze tumor bat diagnostikatu zioten eta honek ere bere momentu gorrak pasatuarazi zizkion, baina hala ere, minbiziak sentimentalki aberatsagoa egin dio eta bihotza amodioz beteta daukala dio. Minbiziak ez dio inoiz bizitzeko gogoia kendu. Nievesen misioa bertzei laguntzea da, beraz, norbaitek bere elkarriketa aditu eta laguntzerik badu, zorionsua sentituko da. Zorionak Nieves egindako elkarriketarengatik. Biba zu!



AINZANE AGIRRE

Aitatxi-bilobak bi kiloko onddoarekin

Udazkeneko aroan sartuak, mendietan uzta ederra biltzeko aukera izan da. Onddotan jende aunitz ibili da eta mendiak nahiko garbi utzi dituzte. Kilo aunitz bildu dutenak ere badira. Argazkian Joxe Martin Agirre Iriarte bere biloba Aiara Apezetxea Agirrerekin ageri dira, bi kiloko onddoa eskuetan.

Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA

T. 948 631 218

joxemi@kateabike.com

www.kateabike.com

ORBEA

BH

CONDOR

Dasta ezazu!

DENDA ORDUTEGIA Astelehenetik-ortziralerara 08:00-17:00
Martiko. Zalain Ind z/g. 31780 Bera. Nafarroa
 Tel: 948 625 016 · www.martiko.com · martiko@martiko.com

Ikastaroak emateko aukerak aztertzen ari dira Donamarian

Ipar Martxa ikastaroa antolatu ahal izateko guttienez hamar lagunek eman behar dute izena

TTIPI-TTAPA

Donamaria-Gazteluko Udalak ikastaroak eskaintzeko aukerak aztertzen ari da. Berriki, Ipar Martxan interesa duten herritar eta ingurukoei jakinarazteko eskatu die, 722 72 21 63 telefonora Whatsapp idatziz. Hala, herrian ikastaroa antolatzeko aukerarik ote da goen jakin nahi dute.

Ikastaroa aitzinera ateratzeko gutxienez hamar laguneko taldea osatu beharko da eta parte-hartzaileek hiru orduko ikastaroaren truk (larunbat edo igande goizetan eskainiko litzateke) hogeita hamar euro ordaindu beharko litzateke (makilak irakasleak eramanen litzuzke). Ondotik, ikasitakoa baliatuz, herrian eta inguruan ibilbideak egiteko elkartzeko segitzea dute helburu, ohitura osasuntsuak hartzeko.

Hipopresiboak

Ipar Martxaren nondik norakoak ikasteko ez ezik, emakumeentzako abdominal hipopresiboak egiteko ikastaroa ere egitekotan dabilta. Azaroan eta abenduan bi orduko



Donezteben egin zuten Ipar Martxan.

bi saio antolatu nahiko litzuzkete eta horretarako, gutxienez, sei laguneko taldea osatu beharrean daude. Azken saio hauek Gazteluko ostaturako egoitzan eskainiko litzuzketela aitzineratu dute.

Bertsoak eta pandereta

Herrian pixkanaka mugimendua sumatzen hasia da. Astelehenetan 10 eta 14 urte arteko gaztetxoak Estitxu Aroze-narekin bertso eskolan hasiak dira (oraindik izena eman daiteke) eta asteazkenetan, 17:30etik 18:30era, pandereta klaseak eskaintzen dituzte. Orain artean eskolan egiten ziren eskolaz kanpoko jarduerak horiek. Aurten, ordea, udal-letxeko Erabilera Anitzeko Aretoan biltzen dira.

Donamariako liburutegia ortziralero irekita

TTIPI-TTAPA

Donamariako liburutegia garbitu eta antolatu ondotik, herritarrei zerbitzua emateko irekitzen hasiak dira. Ortziral-letan, 17:00etatik 19:00etara irekitzen dute. Orain liburuak digitalizatzeko asmoa dutela jakinarazi dute.



Liburutegia txukundu dute.



Gaztetxoak Mikelperizenaren laguntzaz egindako lanak eskuan dituztela.

Pintura ikastaroa asteazken eta ortzegunetan Gaztelun

TTIPI-TTAPA

Donamaria-Gazteluko Udalak antolatuta, gazte eta helduentzako pintura ikastaroa emanen dute Gaztelun.

Asteazkenetan gazteak 16:30etik 18:00etara eta 18:00etatik 19:30era bilduko dira eta helduendako ordu-egia zehazteke dute (aukeran

emanen zaie). Ortzegunetan, berriz, 17:00etatik 18:30era gazteak eta 16:30etik 18:30era helduak bilduko dira.

Iciar Mikelperizenak emanen ditu eskolak eta matrikula dohainik izanen da. Parte hartu nahi dutenek 661 01 04 16 telefonora deitu beharko dute.



Ezkurra eta Eratsungo herritar batzuk Olazarrekin biltzekoak dira asteazkenetan.

Adinekoen bizi kalitatea aztertzeko tailerrak Ezkurran

TTIPI-TTAPA

Malerrekan bizi diren adineko pertsonen ongizatea eta bizi-kalitatea aztertzeko asmoz, saio batzuk izanen dituzte Malerrekan.

Zehazki, adinekoen bakardadea, gaitasun pertsonalak, baliabideak, zerbitzuak... aztertu nahi dituzte eta Gurutze

Gorria elkarteko Garbiñe Olazar iturendarrak hartuko du horren ardura.

Urriaren 28an, asteazkenean, Ezkurran eginga zuten hitzordua, Iratxo ludotekan, 11:00etan. Eta ondoko sei asteetan (abenduen 2ra arte) asteazkenean ordu batez biltzeko asmotan ziren.

«Eskerrak orain arteko bestak ongi aprobetxatu ditudala»

ANA ALTZURI LASARTE LESAKAN BIZI DEN AURTIZTARRA

TTIPI-TTAPA

Bizitokia inoiz ez da sorterriaren ordezkotik izan Ana Altzuri Lasarterentzat (Aurtiz, 1984). Badira urte batzuk herritik kanpo bizi dela, baina argi dio «aurtiztarra» dela eta «munduaren bertze puntan bizita ere» hala izanen litzatekeela. Hurbil bizi den arren, Lesakan «aitaren eta barrideen» falta sumatzen du eta, hutsa betetzeko, herrira maiz joatea gusatzatzen zaio: «ez dut nahi adina joatea lortzen...».

Urtean zehar, badira hutsik egin ezin diren hitzorduak, eta horien artean sanmartinak egutegian ongi markatuak izan ditu. Urtez urte, ez ditu modu berean bizi: «orain egunez bizi ditut, arratserako ez baldin bada haurtzainik ez dago modurik... eskerrak ongi aprobetxatuak gelditu diren orain artekoak!».

Bada, ordea, urtez urte eutsi duen ohiturarik: «bezperan beti afaria egin izan dugu etxean, batzuetan jende aunitzekin eta bertzeetan gutxiagorekin. Aurtien bigarren kasua izan da, zoritxarrez». Herrira bisita egiteko «aitzakia haundirik ez» du behar Altzurik eta ez-bestetan bueltatzea emateko asmotan da: «ea musukoa jantzi eta lagun artean, distantziak mantenduz eta haizea hartuz, bermuta hartzeko modurik dugun! Ez digute erraza paratu...».

Bertiz «leku berezia»

Aurtiztarrari, bertze aunitzi bezala, zenbait zaletasunetan zuzenean eragin diote koronabirusaren hedapena saihesteko hartu beharreko neurriak. Izan ere, «lagunarteko solasaldi luzeak eta bidaiak» mugatuak izan dira. Bertze zen-



Baso ingeniaria da Altzuri.

bait alorretan, ordea, «zorioneko» sentitzen da. Bertiz Natur Parkean, kalitate turistikoaren Q zigiluaren kudeaketan egiten du lan eta «bakarrik» egoten denez, «norbaitek etortzen denean musukoa paratu eta gelarekin garbitu bertzerik ez» du egin behar. Ingurukoek, berriz, «edukiera mugatu, distantziak mantendu, musukoa jantzi eta manparak jartzearen ondorioz, jendearenganako hurbiltasuna galdu dute». Guztia gainera, bisitarientzat gune segurua izatea bermatu nahi izan dute. Edozein modutan, Bertiz Natur Parkea baita parkearen historia ere bereziak dira, eta «eguraldi onarekin zein txarrekin, lehen eta orain, beti baduzer eskainia».

Naturazaleak bueltatxo bat eman eta parkearen edertasunaz gozatzera gonbidatu nahi izan ditu Altzurik. Eta, modu berean, azaroaren 30era arte eskualdeko bederatzi jantzetan XXXVIII. Ehiza Jardunaldi Gastronomikoak izanen direla oroitarazi du. «Bestarik ez den honetan ere, inguruan bada zer ikusi, non jan eta zertaz gozatua».

Errigora zareak eskatzeko aukera azaroaren 12ra arte

Udazkenarekin batera, martxan da berriz ere Errigora kanpaina. Aurtengoan hiru zare dauka aukeran: beltza (55 euro), berdea (65 euro) eta zuria (75 euro). Aurtien, Nafarroako produktuez hornitutako saskiak bortz euro gehiago ordainduta, AEK, Sortzen eta Seaskari laguntzeko aukera izanen da (irabazien %25 bideratuko zaie). Zareak eskatu nahi dituztenek Iker Gorosterrazu edo Alix Gerekarekin jarri beharko dute harremanetan. Azaroaren 12a izanen da eskaerak egiteko hondarreko eguna.

Iturengo mediku kontsulta berriz ere ireki dute

Martxoan, alarma egoera jarri zenean, herriko kontsulta zerbitzua eten egin zuten. Berriki arte herritarrek medikuarekin edo erizainarekin egoteko Doneztebera joan behar izan dute. Dena den, urriaren 13an, berriz ere, kontsultak martxan paratu zituzten.

Naiara Diaz ariko da Pulunpa eskolako jantokian sukaldari

Urri bukaeraz geroztik, Iturengo Pulunpa eskolako jantokiko sukaldaria Naiara Diaz da. Alix Gerekaren ordezkotua du Diazek eta, Eneritz eta Anuska zaintzaileekin batera, eskolako ttikiei jantoki zerbitzua eskainiko die. Bai jantokian baita eskolan ere, Covid-19aren aitzinean neurri guztiak betez ari dira lanean. Bertzeak bertze, herriko plazan karpak bat paratu dute, eguraldia kaxkarra denean ere eskolara mailakatuta sartzeko eta gorputz heziketa egiteko.

Iturengo ehiztariak uso ehizan dabiltza azken aldian

Urriaroan ohikoa den bezala, Iturengo ehiztariak, usoen esperioan egon eta horiek ehizatzeke, postuetara joaten dira. Aurtien, haize hegoa izan den egunetan, seinalea izan zuten. Izan ere, ehiztari batzuek, euren punteria onari esker, uso batzuk botatzea lortu zuten.



ARTXIBOKOA

Aurtizko bestarik ez

Aurtizko sanmartinak besta bereziak izaten dira herritar eta ingurukoentzat. Aurtien, ordea, bertzelako giroa izan da egun horietan herrian. Inguruko herri guztietan bezala, birusak eragindako egoeratik, osasuna lehenetsi eta heldu den urtera arte esperatzea erabaki dute.

Gizarte Segurantzaren Doneztebeko bulegoa irekitzeko sinadurak biltzen

Gizarte Segurantzaren Arreta eta Informazio Zentroak (CAISS) aldaketa handiak izan ditu azken urteotan. Zerbitzua egunero jasotzetik asteen bi egunetan eginera pasatu zen lehenbizi eta gerora, eskualdeko gizarte zerbitzuen mankomunitateen arabera, «zerbitzuaren kalitateak nabarmen egin du okerrera». Zehazki, «aitzinetik hitzordua erreserbatzea zaildu, masifikatu, arreta atzeratu...» dela adierazi dute. Gehiago ere bada. Euren ustez, «egoerak okerrera» egin du. Izan ere, Covid-19aren ondotik, bulegoa ez dute berriz ireki. Bulego horrek Baztan-Malerreka-Bortziria-Leitzaran inguruko, 30.000 bat biztanleri eskaintzen dio zerbitzua. Eta hori itxita izateak gaur egun, herritarrengan ondorio zuzena du. Batetik, 70 kilometro egin behar dituzte Iruñean gestioak

egin ahal izateko, «horrek dakarren denbora, gastu eta arriskuarekin, batez ere N-121-A errepideko istripuen intentsitate handiagatik». Bertzetik, prestazioak modu telematikoa kudeatzea, «herritar gehienak ez dutenean horretarako behar den ezagutzarik ez baliabiderik».

Sinadura bilketa

Hori horrela, Doneztebeko Gizarte Segurantzaren bulegoa «egunero eta aurrez aurre berriro irekitzeko» sinadura bilketa abiatu dute. Bortzirietan gizarte zerbitzuen bulegoetan, udaletxean edo osasun etxean sinatzeko deia egina zuten eta Baztan, Malerreka eta Leitzaldean ere biltzekoak zituzten (lerro hauek idazterakoan tokia zehazteke zuten). Sinadurak urriaren 30era arte bilduko dituzte.

Naroa Elizalde lau eta erdiko Master Cup txapelketan parte hartuko du

FERMIN ETXEKOLONEA

Abiatu berri den eskuz bana-kako Master Cup txapelketan ari da Naroa Elizalde zubietarra. Saillapen fasea jokatzeko ari da oraindik eta saillakuek azaroaren 27an finalaurdenak jokatu dituzte eta finala abenduaren 17an izanen da.



Naroa Elizalde.

Zubietako errotara joateko erreserbak online egin daitezke

Covid-19aren hedapenasaiheteko eta jendearen arteko kontaktu zuzenak saihesteko, neurriak hartu dituzte Zubietan ere. Horrela bada, errota museo bisitatu nahi dutenei erreserbatzeko deia egin diete, web orrialdearen bidez. Orain, bertan eskura ordaindu beharrean, Internetez egin daiteke erreserba. Nafarroa Ezagutu Sarean edo udalaren webgunean dago sarbidea. Ordubeteko bisita gidatuaren truk helduek hiru euro eta jubilatuek eta gaztetxoek 1,5 ordaindu beharko dute.

Zubietako Udalak hilerria erabiltzeko ordenantza prest du

Kolunbarioak paratzearekin batera, hilerria erabiltzeko eta bertako zerbitzuak hartzeko eskubide eta tasak arautzen dituen ordenantza onartu du Zubietako Udalak. Hortaz, orain, hilobien kontzesioari, eraikitzeari, mantentzeari eta zaintzeari eta kolunbioari buruzko beste-lako xehetasunak ere irakurgai daude Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 180. zenbakian. Horrez gain, ordenantzara lotura zuzena www.zubietea.eus atarian zintzilikatu dute.



OLATZ MUTUBERRIA

Narbarteko Herriko Ostaturia irekita

Hainbat hilabetetako geldialdiaren ondotik, urriaren 7an, ireki zuten Narbarteko ostaturia. Zoaiako Rafak hartu du ardura eta egunero irekitzen du. Hemendik aitzinera, 07:00etatik 22:00etara, herritarrek badute otordu edo tragoxka baten bueltan elkartzeko txokoa.

Etkez etxeko zerbitzua inguruko herrietan,
ostiral, larunbat eta igande arratsaldeetan

TITI OSTATUA

ESKAERAK:
Amezti, 7 · DONEZTEBE · T. 948 45 02 71

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Jarrai gaitzazu!



Iaz Kantu Zaharren Egunera 363 lagun joan ziren. ARTXIBOKOA

Osasun neurriak zorrotz betetzen ari dira elkarteko kideak

Elizondon izaten den yoga ikastaroan parte-hartzea sei lagunera mugatu dute eta astean behin eskainiko dute

PABLO IRASTORTZA

Ez da zaila asmatzea zer izan den azkeneko zazpi edo zortzi hilabetetan denon buruetan gehien landu dugun aferra: espero, desio, ikusi eta jakin gabe agertu den birus madarikatuaren bisita.

Arkupeak erretiratuen elkarte izanik, kideak hara eta hona mugiarazten saiatzen da. Aspaldiko urteetan helduek egunerokoa osasuntsu bizi ahal izateko antolatzen ditu elkarteak auzo, herri, elkarte, areto, kiroldegi eta igerilekuetan ematen diren solasaldiak, ikastaroak, soinketa saioak eta bertzelako hitzorduek.

Jarduera horiez guztiez gain, mota guztietako irteerak edo bidaiak ere antolatu ohi ditu: batzuk aubusez etxetik hurbil eta egun-pasa joateko; bertze batzuk urrutia dauden herrialde batzuk ezagutzeko hiru-bortz egunetakoak; kostaldeaz gozatzeko zortzi-hamabortz egunekoak; hegazkinez Balear edo Kanariar irletara, Europako herrialdeetara, Ameriketara, Argentina, Mexikora... joatekoak.

Martxo hondarretik aitzinera bidaiarik gabe

Aurten, ordea, urte berezia izan da eta hainbat hilabetetan gure etxetik ateratzea ere ezinezkoa izan dugu. Baime-na izan dugunean ere, antolatuta zeuden irteerak ezin izan dira egin. Segurtasun neurriak betetzeko ezintasunagatik, bertan behera gelditu dira, tamalez. Osasun arduradunen agindua betez, bai bidaiak agentziak, bai hotelak, baita bidaiariak behar-beharrezkoak dituen antzeko bertze edozer baliabide ere hetsiak zeudenez... nora bidaiatu?

Konfinamenduak ekarri digun alde on edo probetxugarri bakarra, bertako bazter, auzo, herri eta inguruak hobeki ezagutzeko aukera izan da eta aurten horixe egin dute elkarteko kideak.

BIDAIK BAZTERRAK EZAGUTZEKO BALIATU DITUZTE

2019ko irteerak, bidaiak eta bestak

Data	Helmuga	Bidaiari kopurua
Urtarrilak 26	Tolosa	266
Otsailak 7	Bilbo	107
Martxoak 5	Xabier	112
Martxoak 21	Euskal Kantu Eguna	363
Martxoak 28	Mus finala	96
Apirilak 4	Soinketa Eguna	95
Apirilak 8-11	Madril-Toledo	64
Maiatzak 5-18	Gandia-Benidorm	43
Maiatzak 9	Lourdes	64
Ekainak 21-28	Galizia	102
Ekainak 27-30	Andorra	96
Uztailak 26	Aralar	223
Abuztuak 31	Arantzazu	210
Irailak 2-9	Mallorca	44
Irailak 14	Lezo	145
Iraila-urria	Italia	131
Azaroak 15	Doneztebeko feriak	60
Abenduak 5	Iruñea	117
Denetara	18 bidaiak	2.338 bidaiari

2020ko irteerak eta ospakizunak

Data	Helmuga	Bidaiari kopurua
Otsailak 6	Bertso bazkaria	220
Otsailak 20	Donostia	150
Martxoak 10	Xabier	126
Denetara	3 bidaiak	496 bidaiari

Ikastaroetan aldaketak

Mugarik gabeak dirudite Covid-19ak gure egunerokoan ekarri dizkigun ohitura aldaketek. Argi dago, azken astetan osasun agintariek, denon onerako, paratu dizkiguten arau zorrotzagoak zintzo arraio bete behar ditugula. Elkarteak antolatutako ikastaroak tal-

deka egiten direnez, zerikusi zuzena dute aipatutako neurri aldaketekin. Ekimen batzuetan badaude azken orduko berriak: Elizondoko Arizkunenea kultur etxean egiten diren yoga ariketetan, orain arte kopuru librea edo muga-gabea bazegoen ere, gehienez sei laguneko taldeak izanen dira hemendik aitzinera.

Bertzalde, orain artean, ikastaro horiek astean bi egunez ematen ziren. Hemendik aitzinera, berriz, egoera aldatu edo osasun legeak arindu arte, astean egun batez izanen da Elizondoko yoga hitzordua.

YOGA IKASTAROA ASTEAN EGUN BATEZ ETA TALDE TTIKIAN IZANEN DA

DESKONTUAK BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta
aprobetxatu
aukerak!



Caser
RESIDENCIAL ANAKA

%5 DESKONTUA
Egonaldiak, erreabilitazioa eta eguneko zentroan. Txarielduna eta bere 2. graduako senideak barne

Anaka, 8 | IRUN
T. 943 66 77 80

ttipi-ttapa

%10 DESKONTUA
eskola

Koskontako bidea, 7-1. | LESAKA
T. 948 63 54 58

Turi Sari
LAND

%50 DESKONTUA
sarreran

Irisarri, 1 | IGANTZI
T. 948 92 89 22

Semper

%10 DESKONTUA
matrikulan

BERA | T. 948 63 02 98
LESAKA | 948 63 82 99

Arturo

%5 DESKONTUA
arropetan

Altzate, 30 | BERA
T. 948 63 01 36

bixkak
KIROL ETA MODAKO
erropa denda

%5 DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 81 10

KATEA BIKE

%5 DESKONTUA
konponketetan

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 63 12 18

Xulufraia

%5 DESKONTUA
30etik gorako dekorazio gaietan

Altzate, 18 | BERA
T. 948 63 12 66

GASLA
Corteo: mugimenduaren erakunde

%5 DESKONTUA
kosmetikan
%5 DESKONTUA
oparietan 50etik gora.
Promozioetan ezik

Pio Baroja, 11 behe | Bera
T. 666 42 61 96

ALZURI
ELEKTRIZITATEA

%5 DESKONTUA
etxetresnetan
promozioetan ezik

Bitirria, 33 | LESAKA
T. 948 62 75 31

KARLOS ALZUGARAY
DISTEPATA Eus. Ont. D.G.

%10 DESKONTUA
hamar saioko bonoan

Itzea, 20 behe | BERA
T. 607 85 32 08

bortzirudi

DESKONTUA
%15 Kamisetetan
%10 laguntza lanetan
%5 kopia, enkua demazio eta plastikazotan 3etik goiti
* Aurrekontutik kanpo

Eztegara, 26 esk. behe | BERA
T. 948 63 15 21

LESAKAKO
UDAL
KIROLDEGIA

%40 DESKONTUA
matrikulan

Komentu, 2 | LESAKA
T. 948 63 74 00

Urdu Bera
BERRIKUNTZEKETA eta BERRIKUNTZE

%20 DESKONTUA
urteko abonarenean
matrikulan

Toki Ona Kiroldegia | BERA
T. 948 63 02 15

AGARRA
KIROLAK

%5 DESKONTUA
kirol artikuluetan
%15 DESKONTUA
ehiza arropetan

Altzate, 22 | 31780 BERA
T. 948 63 09 99

ZK zela
KIROLAK

%5 DESKONTUA
erosketa guztietan

Altzate, 6 | BERA
T. 948 63 05 98

kantagorria

%10 DESKONTUA
lentzerian

Behoko Plaza, 10 | LESAKA
T. 948 62 75 14

ZU
Ioredenda
dekorazioa
osagarnak

%5 DESKONTUA
lore moztuan
30etik gorako
erosketetan

Altzate, 33 | BERA
T. 948 62 57 86

elika
Dietetika
eta elikadura

%5 DESKONTUA
kontsultan

Itzea, 6 behe | BERA
T. 948 63 12 83

oreKa
nutrizioa eta dietetika

%5 DESKONTUA
kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 73 73

INTZURI
OPTIKA

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bitirria, 28 | LESAKA
T. 948 62 75 50

Ostargi optika

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA
T. 948 63 07 53

HK podologia
NORA MAIZA

5€ DESKONTUA
ibilkeraren
azterketa digitalean

Legia, 42 | BERA
T. 688 878 177

txinelka

%10 DESKONTUA
erosketa guztietan

Plaza Zaharra, 25 | LESAKA
T. 948 63 75 94



Errigoraren saskiak auzolanean betetzen, Ablitasen. ERRIGORA

Azaroaren 12ra arte eska daitezke Errigoraren saskiak

'Egiten duguna gara' lelopean kanpainan parte hartzeko deia egin diete herritarrei

TTIPI-TTAPA

Bertze urte batez, hemen da Errigoraren *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* kanpaina, aldi honetan berritasunez beteta. Iaz bezala, Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko produktuez osatutako hiru saski eskainiko dituzte azaroaren 12ra arte eta, jasotakoaren %25 bertako euskalgintzara bideratuko dute.

19. Korrikaren mezuan Lorea Agirrek errandakoari eutsiz, *Egiten duguna gara* leloa aukeratu dute: «auzia ez da izan ala ez izan. Nolako edo halako izan. Kontua ez da hori. Kontua

ekitea da. Egitea. Egiten duguna gara».

'Egiten duguna gara'

Errigoratik adierazi dutenez, «*egiten duguna gara* dei bat da, euskal jendarteari kanpainan honetan parte hartzeko deia; saskiak eskatuta, %25eko ekarpena egiteko Tuterako, Lodo-

sako eta Vianako ikastolei; Erriberako AEKri; Sortzenek hezkuntza publikoan D ereduko lerroak zabaldu eta mantentzeko egiten duen lanari eta Nafarroa hegoaldean eta erdialdean euskarari hauspo berria emateko helburua duen Agerraldia egitasmoari». Gisa berean, «*egiten duguna gara* asmo-adierazpena» dela nabarmendu dute: «azken urteetan ekarpenetik partida bat gorde izan dugu agerraldia martxan jartzeko, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko eta euskararekiko jarraera baikorrak birsortzeko ekin-tzak egiteko».

Bertzetik, «*egiten duguna gara* jarrera bat» dela diote: «aldatu nahi ditugun egoeren aurrean ardura hartzekoa». Hala, ikastolen jaialdiak, Sortzenen jaia eta Korrika alde batera utzi izanak eragin dien diru-galera arintzen laguntzeko, AEKri, Seaskari eta Sortzeni laguntzeko aukera izanen da Errigoraren kanpaina honetan.

Gehiago ere bai. «*Egiten duguna gara* baieztapena» dela uste dute Errigoran: «aspaldiko urteetan askotariko jatorri eta grinak ditugun artean egiten ari garen komunitatea-

ren egiaztapena». Oroitarazi dutenez, 2013an kanpaina abiatu zenetik ia 1.200.000 euroko ekarpena egin zaio euskalgintzari, baina «hori baino askoz gehiago lortu du Errigorak, hala nola, auzolana balioan jartzea; zonaldeko 25 ekoizlek bat egin eta ekoizpenaren eta euskararen alorrean urratsak ematea edo euskal herritarren artean, ekoizle eta kontsumitzaileen artean eta pertsona eta kontzeptu ustez apartekoan artean zubiak eraikitzea».

Hiru saski

Hiru saski atera dituzte aukeran: beltza (betikoa), 50 euroko balioa duena, kanpaina honetako saski klasikoa; berdea (ekologikoa), 60 euroko balioa duena, produktu ekologikoz osatua eta zuria (berezia), 70 eurokoa, gutiziez osatua. Horietako bakoitza borts euro gehiago ordainduta, hau da, saski beltza eta Korrikaren katilua eskatuta (55 euro), 12,50 euroko ekarpena egingen zaio euskalgintzari eta 5 eurokoa AEKri; saski berdea eta Seaskaren egutegia eskatuta (65 euro), 15 euroko ekarpena euskalgintzari eta 5 eurokoa Seaskari; saski zuria eta haziak eskatuta (75 euro), 17,50 euroko ekarpena euskalgintzari eta 5 eurokoa Sortzeni. Eskaerak eta ordainketak online egin daitezke, errigora.eus webgunean. Hala moldatzen ez denak herriz herri banatu dituzten eskuorrien bidez egin ahal izanen du eskaera.

SASKI BELTZA, BERDEA ETA ZURIA IZANEN DIRA AUKERAN

5 EURO GEHIAGO ORDAINDUZ AEK, SEASKA ETA SORTZEN-I LAGUNTZA

SASKI BELTZA
betikoa
+ Korrikaren katilua
50+5= **55€**

SASKI BERDEA
ekologikoa
+ Seaskaren egutegia
60+5= **65€**

SASKI ZURIA
berezia
+ D ereduaren haziak
70+5= **75€**

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

URRIAK 24 - AZAROAK 12

errigora.eus



Bardoak ekimeneko finalistak Lizarra Ikastolako aretoan. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA



Bertsonautak taldea suertatu zen garaile. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Bertsonautak nagusi izan dira Bardoak ekimeneko finalean

Leitzako Atekaberts komeni eta Berako Lamixene taldeei gailendu zitzairen Baztan-Malerrekako taldea Lizarran

TTIPI-TTAPA

Lizarra Ikastolako aretoan jokatu zen Bardoak ekimeneko finala urriaren 17an, giro beroan; edukiera mugatzeko neurrien ondorioz, 100 lagun bildu ziren ekitaldian. Berako Lamixene, Malerreka-Baztango Bertsonautak eta Leitzako Atekaberts komeni taldeak aritu ziren bertsotan. Azkenean, Bertsonautak taldekoak izendatu zituzten txapeldun.

Urtarrilaren 31n abiatu zen 2020ko Bardoak, Nafarroako taldekako bertsolari txapelketa, eta Lizarra Ikastolako aretoan egindako finalean buka-

tu zen. Tartean, hamar hila-bete joan dira, eta ia zazpi hilabeteko etena, Covid-19ak eragindako pandemiaren ondorioz. Azkenean, osasun prebentziorako neurri guztiak beteta, eta edukiera 100 lagunetara mugatuta, jokatu zen taldekako txapelketako finala. Nafarroako Bertsozale Elkar-teak Lizarra Ikastolarekin eta Nafarroa Oinezekin elkarla-nean antolatu zuen saioa, eta laguntzaile izan zituen Lizarrako Bertso Eskola eta Lizarrako Udala. Hiru talde izan ziren kantuan: Berako Lamixene, Malerreka-Baztango

Bertsonautak eta Leitzako Atekaberts komeni.

Hasierako agurrek jarri zioten abiapuntua saioari. Musikak lagunduta, aurkezpenerako baliatu zuten taldeek agurra. Horren ondotik, ofizioen txandari heldu zioten. Zortziko handian, Aitor Elexpuru eta Iker Gorosterrazu aritu ziren kantari. Zortziko txikian Alazne Untxalo eta Aitzol Eizmendi aritu ziren; seiko motzean, Julen Zelaia eta Miel Mari Elosegik *Luze* ibili ziren bertsotan.

Hiruna punturi erantzun zioten gero Iker Gorosterrazuk, Xabat Illarregik eta Patxi Castilok. Ondotik, hurrenez hurren, poltsa beroari, festetako txanoari eta Korrikako petoari bertso bana kantatu zioten Julen Zelaia eta Alazne Untxalok eta *Luze*. Horren ondotik, koplari ariketan, kantuan aritu ziren Egoitz Gorosterrazu, Ekhiñe Zapiain eta Ane Intxausti. *Bat, bi, hiru* jolasean, binaka aritu ziren hiru talde-

tako kideak, gai-jartzaileak emandako zerrendari, habanera doinuaren puntuka, ahalik eta hitz gehien eranstean. Zuhaitz motak bildu behar izan zituzten Lamixenekoe, etxeko tresnak Bertsonautek, eta koloreak Atekaberts Komenikoak. Ondotik, bakarka aritu ziren Alazne Untxalo, Xabat Illarregi eta Patxi Castillo, gaia emanda.

Hiruko ofizioan, Miel Mari Elosegik *Luze*, Ekhiñe Zapiain eta Egoitz Gorosterrazu aritu ziren. Gero, saio puntuagariari amaiera emateko, puntuka aritu ziren hiru taldeak.

Ariketa puntuagari guztiak bukatuta jakinarazi zuten talde irabazlearen izena. Orduan izendatu zuten *Bertsonautak* taldea 2020ko Bardoetako txapeldun. Lizarrako Bertso Eskolako eta Nafarroako Bertsozale Elkarteko hainbat ordezkari banatu zituzten sariak. Horien ondotik, bertsolari guztien azkeneko agurrekin bukatu zen saioa.

UEMAk zerbitzu sektorea euskaratzeko baliabideak denen eskura paratu ditu

TTIPI-TTAPA

Zerbitzu sektorean euskara naturaltasunez erabiltzeko baliabide ugari eskaintzen ditu UEMAK, doan. Bertzeak bertze, faktura takoak, kartelak eta sektoreko hiztegiak. Orain, kartelak eta gainerakoak eskatu ahal izateko gunea osatu

du: uema.eus/kartelak UEMAKo kide diren herrietako udalek, ostalariek eta merkatariek erabili ahal izanzen dute zerbitzua, doan.

Ez da berria UEMAK bertako kide diren udalei eta udalerririk horietako merkatariei, ostalariei eta zerbitzu sektoreko

gainerakoei eskaintzen dien zerbitzua. Orain, ordea, azken urteotan batzuentzat eta bertzeentzat egindako kartelak bildu, eta horiek errazago eskatzeko eta pertsonalizatzeko gunea prestatu du UEMAK, eta uema.eus/kartelak gunera sartuta, nahi duten kartelak hautatzeko eta eskatzeko modua izanzen dute dendariak eta ostalariek, horretarako eskaerarik orria beteta.

UEMAko kide diren udalen laguntzarekin, UEMAK urtero egiten du kanpaina ostalariei eta merkatariei artean, gutunak edo posta elektronikoak bidaliz, beraien zerbitzuak herriaren erakusleiko diren heinean euskara ezinbertzekoa dela nabarmenduz eta horretarako hainbat argudio eta azalpen emanez, hizkuntza paisaia euskaratzeko laguntza eskaintzearekin batera.

Mendialdeko azoka eginen dute azaroaren 8an

Herriko eta inguruko nekazari eta artisauak parte hartuko dute udalak eta Cederna Garalur elkarteak antolatutako azokan

TTIPI-TTAPA

Egoera tarteko azaroko Feri Egun handia bertan behera utzi behar izan badute ere, udalak eta Cederna Garalur elkarteak elkarlanean mendialdeko azoka antolatu dute azaroaren 8rako. Nekazarien eta artisauen lanak ikusteko

eta erosteko postuak izanen dira, eta ez daaziendarik izanen. Azoka herrian barna zabalduko dute, eta udaletik adierazi dutenez, norabide bakarra izanen du –zirkuitua moduan–. 10:30etatik 14:00etara egonen da zabalik eta edukiera ere mugatuko dute.



Aurten estreinakoz lau emakumezko hasi dira pilota eskolan. AINHOA ZABALETA

30 lagunek eman dute izena Umore Ona pilota eskolan

TTIPI-TTAPA

Astelehenetan Antton Apeze-txearekin, asteartetan Antton eta Igor Apezetxearekin eta ostegunetan Angel Salaberriarekin, guztira 30 haur eta gaztek eman dute izena pilota eskolan. Bost eta 20 urte bitartekoak dira gehienak, eta horiei aurten estreinakoz nagusien mailan hasi diren lau nesken izenak gehitu behar zaizkie: Ainhoa Zabaleta, Mayi Zelarain, Maria Eskudero eta Irati Arozena. Ostegunetan 19:30ean biltzen dira entrenatzeko.

Gainerakoan, komisiok, Leire Alsua (diruzaina), Lurdes

Loiartek (idazkaria), Asier Lujanbiok (lehendakariordea) eta Igor Elizegik (lehendakaria) segitzen dute lanean.

Txapelketak

Entrenamenduez gain, bosgarrenez, herri mailan Umore Ona pilota txapelketa antolatzeko asmoa dute. Baina gehiago ere bai. Mendialdeko klubekin entrenamendu bereziak –haurren mailatik gora– eta txapelketak antolatzen dituzte. Hain zuzen, buruz burukoaren barne bost jardunaldi eginak dituzte eta osasun egoeraren arabera, berriaz hastekoak dira.

BERTSOA

LURDES HUIZIREN FAMILIA

Eskerrik asko

Suhiltzaileen agurra aparta bezain txukuna, edo bere lankideek jarraian a ze jarduna. Lagun batek egindako irakurketa leuna aipatuz Lurdes zutela bihotzez lagun kuttuna.

Auresku ikusgarria, denok hunkitu gaittuna, gitar ta bertso doinuek argituz egun iluna. Eskerrikasko guztioi, hori da elkartasuna! bihotzetik bihotzera, zuei gure maitasuna.

Euskaraldirako prestatzen ari dira herritarrak

TTIPI-TTAPA


2018ko Euskaraldian izandako arrakasta errepikatzeko gogoz, azaroaren 20tik abenduaren 4ra eginen den bigarren edizio-ara begira hasi dira herritarrak. Euskaraldirako lantaldea ere osatu dute Leire Iribarren, Mayi Zelarain, Amalur Narbarte, Iñaki Etxeberria, Luzia Etxeberria, Naroa Zugarramurdi eta Ainhoa Zabaletak.

17 entitatek eman dute izena ariguneizateko eta *ahobizi* edo *belarriprest* izan nahi dutenek *izenematea.euskaraldia.eus* atarian edo Amaia kafetegian



Euskaraldirako lantaldeko kideak.

edo estankok dauden orrietan eman dezakete izena. Lantaldetik erronka luzatu dute: «2018an Goizuetan 148 lagunek parte hartu genuen. Ea aurten kopurua gaitzitzen dugun».



AINHOA ZABALETA

Emakume tailerra larunbatean

Emakume taldeak antolatuta, Kattalin Artolaren gidaritzapean tailerra egiten ari dira herriko hainbat emakumezko. Urriaren 17an egin zuten lehendabiziko saioa udaletxeko ganbaran –ikus argazkia– eta larunbat honetan, urriaren 31n, bigarrena eta azkena eginen dute, 10:00etatik 14:00etara.

Urtea bukatu arteko agenda lantzen ari da pesta batzordea

Herriko hainbat eragilerekin elkarlanean ari da eta azaroaren 15ean baserritarren azoka egingen du

JM BARRIOLA

Herriko beste hainbat eragilerekin elkarlanean, kultur ekitaldi antolatzeari ekin dio pesta batzordeak. Segurtasun neurrien artean, abendura bitarte denetariko hitzorduak antolatzeko asmoa du. Aste honetan, esaterako, presoen inguruko ekimenak egitekoak zituzten, baina Nafarroako Gobernuak ezarritako azken murrizketak direla eta bertan behera utzi dituzte.

Azaroan sartuta azoka eta haurrentzako antzerkia egingen dituzte. Zehazki, azaroaren

15ean, baserritarren azoka izanen da eta azaroaren 21ean haurrentzako antzerkia.

Herri aretoa abenduaren 18an

Herri aretoa abenduaren 18an irekitzea aurreikusi dute eta abenduaren 20an *Orantzaro* dokumentala ikusteko aukera izanen da. Abenduaren 26an, bestalde, *Balikebale* saioa antolatzeko asmoa dute eta abenduaren 27an *Zaldi urdina* izenburu duen antzezlan ikusteko aukera izanen da. Xehetasun gehiago aurrerago emanen dugu.



Udalak 250 metro koadroko karpa alokatu du. JM BARRIOLA

Udalak karpa bat jarri du Erleta eskolaren aurrean

JM BARRIOLA

Eguraldi txarrak hasi diren honetan eta Covid-19aren ondorioz ezarri diren baldintzak direla eta, udalak karpa bat jarri du Erleta eskolaren aurrean. Aulki enpresari alokatu dio 250 metro koadroko estalpea. Aste tartzet, eskolako eta institutuko ikasleek dute era-

biltzeko aukera. Horrez gain, udalak herriko eragileei jakinarazi die, kultur ekimenak bertan antola daitezkeela. Hitzaldiak, kontzertuak, antzerkiak edo beste antolatu nahi izanez gero, oholtza eta argindarra prest utziko dituzte, batez ere asteburuei begira. Udaletxean eskatu behar da baimena.

Jeiki abesbatzak partaide bila dabilela jakinarazi du

Jeiki abesbatzak jendea sartzeko kanpaina abiatu du. Berezi ki gizonezkoak nahi dituzte eta musika jakitea beharrezkoa ez dela adieraztearekin batera, probatzera azaltzeko deia egin dute. Nahi duenak telefono zenbaki honetara dei dezake: 606 39 38 42.

Tokiko zuraren saria jaso du Ibero dorreak

«Erdi Aroko dorrearen distira eta dotoretasuna berreskuratzen dituen esku-hartze bikaina» kontuan hartuz, Egurtek Sarien barne, tokiko zuraren saria irabazi du Ibero dorreak. Udan jakinarazi zuten saritua izanen zela eta duela bi aste jaso zuen saria.



NEREA MAZKARAN

Nafarroako herriak etorkizunari begira

Nabarralde Fundazioak antolatutako Herrigabetuak jardunaldien baitan, mahai-ingurua egin zuten urriaren 8an udaletxean. *Nafarroako herriak etorkizunari begira* izenburupean aritu ziren David Campion, Amparo Viñuales, Josepe Irigarai eta Koldo Leoz, Ollo, Erronkari, Auritz eta Lizarrako alkateak.



GIZARTE ZERBITZUAK

Emakume baserritarrak elkarlanean

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna gogoan, Emakume Baserritarren Topagunea egin zuten urriaren 15ean Atekabeltzen. Herriko eta inguruko hainbat emakume baserritar bildu ziren eta elkarlanean, azaroan tailer bat eta heldu den urterako egutegia egitekoak dituzte.



Herriaren etorkizuna ere izan zuten hizketagai lehenbiziko saioan. ENERITZ IRAOLA

Hirigintza planaren parte-hartze prozesua martxan

Lehenbiziko saioaren ondotik, Aresok dituen indarguneen eta ahulezien diagnostikoa osatu dute

TTIPI-TTAPA

Eguno errealtatera egokitze, hirigintza plana berritzeko asmoa du udalak eta horretarako herriarrek parte-hartze prozesua jarri du martxan. Irail bukaeran egin zuten lehenbiziko bilera eta bertan jasotako ideiak herriar guztiei jakinarazi dizkiete orain. Denen artean, Aresok dituen indargune eta ahulezien diagnostikoa osatu dute.

Lehenbiziko saioan, ingurunea eta kokapena azpimarratu zituzten indargune nagusitzat: «naturarekin kontaktu zuzena izateko ingurune aberatsa eta lasaia» dela esanez. Dena den, mendi-bideak hobetu, zuhaitzak landatu eta ibaiak garbitu eta garraio-zerbitzua hobetzea premiazkotzat jo zuten.

Arlo ekonomikoan, langabezia tasa oso txikia duen herria da, bertako poligonoari eta herritik gertu dauden enpresei esker hein handi batean. Landa turismoaren gorakada ere herriarentzat mesedegarria izaten ari dela uste dute.

Herriaren etorkizuna ere izan zuten hizketagai eta urtetan

biztanleriaren galera eta zahartzea kezka iturri izan badira ere, gaur egun gazteen artean herrian geratzeko gogoia badela ikusi dute. Gainera, jaiotze-tasa ona da eta gazte ugari gelditu dira azken urteetan herrian bizitzen. Auzolanerako joera ere bada eta antolatzen diren ekintzak herria bizirik mantentzen dutela uste dute bertaratu zirenek. Bada zer hobetu, ordea, zerbitzuak indartzea beharrezkoa dela aipatu zuten: «lokal publiko eta espazio estalirik ez baita herrian eta zerbitzu gutxi». Etxebizitza berrien beharra badela ere ikusi dute, baina herriaren idiosinkrasia galdu gabe. Herriaren irudia hobetzeko aukera izan daiteke.

Lehenbiziko zirriborroa osatzeko ideia batzuk jaso ondotik, bigarren saioa egiteko zuten urriaren 14an. Nafarroako Gobernuak Covid-19aren bilakaera tarteko hartutako neurrien ondorioz, bertan behera gelditu zen saio hura. Hau idazterakoan oraindik ez zuten zehaztua noiz izango zen parte-hartze prozesuaren bigarren saioa.

Errigorako saskiak eskatzeko aukera zabalik

Urriaren 24tik azaroaren 12ra eska daitezke herrian Errigorako saskiak. Elkarte gastronomikoak itxita daudenez, aurtan, Sastinea tabernan edo udaletxean jarriko dituzte eskaerak egiteko orriak. Hiru saski jarri dituzte aukeran, beltza (betikoa), berdea (ekologikoa) eta zuria (berezia) eta antolatzaileek, ahal denetan, saskia online ordaintzeko eskatu dute diruarekin ibiltzea saihesteko. Saskien banaketa, berriz, azaroaren 27an egingen dute Plaza Zaharrean 19:00etatik 20:00etara.

6.446 euro bildu dituzte uso postuen enkantean

Irailaren 19an egin zuten uso postuen aurreneko enkantearen ondotik, irailaren 26an egin zuten bigarrena eta dena 6.446,67 euro bildu dituzte. Azken urteetan 23, 24 eta 25 postuak ez dira enkantera atera eta herriko Usoa Elkarteari eman zaizkio zuzenean. Hala, 24 postu izan dira enkantera ateratakoak eta hirugarren eta laugarren postuak izan dira diru gehien bildu dutenak: 1.050 euro lortu dira hirugarrenarekin eta 1.011,67 euro laugarrenarekin.

Euskaraldian izena emateko epea zabalik dago

TTIPI-TTAPA

Aurreko edizioan hainbat herriarrek parte hartu zuten Euskaraldian, baina Leitza izena emanda. Oraingoan, ordea, Aresok herri bezala parte hartuko du. Bi *arigune* zehaztu dituzte: udala eta Guraso Elkarte. Datozen asteetan

materiala ere salgai jarriko dute eta Euskaraldiko txapak ere herrian bertan hartzeko aukera izango dute parte-hartzaileek. *Ahobizi* edo *belarriprest* rola hartu nahi dutenek azaroaren 19ra arte irekita izango dute izena emateko epea. Anima zaitezte!



UTZITAKOA

Olanok urrezko domina

Anartz Olano herriarrek urrezko domina lortu du Nafarroa ordezkatzuz Erregearen kopako (Copa de S.M. El Rey) esku pilotako banakako txapelketan. Gaztela Leongo Cabrerizo pilotaria mendean hartuta (10-2 eta 10-2) lortu zuen garaipena Galizian.



Landa Begiradak jardunaldien barne, Riechmannen solasaldia izanen dute.

Jorge Riechmann filosofoaren solasaldia azaroan

'Soiltasunaren indar eraldatzailea' goiburupean klima larrialdi eta krisi ekosozial aldirako balioak izanen ditu solasgai

TTIPI-TTAPA

Hondarreko urteetan bezala, aurtun ere, Landa Begiradak jardunaldiak egingen dituzte Baztanen. Aurtengo gonbidatu nagusia Jorge Riechmann filosofoa eta ekologia sozialaren aitzindaria izanen da. Riechmannen klima larrialdi eta krisi ekosozial aldirako balioak izanen ditu solasgai. Hain zuzen, oraingo egiturazko krisi aldian materialki bideragarriak diren bizimoduez gogoe-ta sustatuko du. Eta, era berean, neurriko bizimoduaz arituko da, aski izatearen zentzuaz, «balio horiek gabe ezinezkoa

baita etengabeko hazkundera eta kontsumoaren oinarritzen den sistemaren aitzinean alternatibak garatzea».

Azaroaren 14an Arizkunenean
Soiltasunaren indar eraldatzailea goiburupean azaroaren 14an dute hitzordua, 12:00etan, Arizkunenea kultur etxean. Covid-19a dela eta, edukiera mugatua izanen da. Energia Onak eta Hazitiko Hozietaldeen antolatutako hitzordura joan nahi dutenek sarrerak aitzinetik –urritik– hartu beharko dituzte, Arizkunenea kultur etxeko bulegoan.



Hodei Aleman.

Hodei Alemanek Nazioarteko Kopa Katalana txapelketa jokatu du larunbatean

TTIPI-TTAPA

Baztandarra txirrindulari taldeko Hodei Aleman kirolaria Nazioarteko Kopa Katalana txapelketa parte hartzeko aukeratua izan da. Nafarroako Selekzioarekin parte hartuko du eta urriaren 31n, Bartzelonan du hitzordua, 10:00etan. Txirrindulariek 4,5 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute.

Nafarroako probak bertan behera

Covid-19aren hedapena dela eta, Gobernuak harturiko neurri zorrotzagoekin batera, aurtengo Nafarroako txirrindulari probak bertan behera uztea erabaki dute eta denboraldia akitutzat eman dute: «indartsuago bueltatuko gara!».

Bertako produktuen azoka larunbatean Elizondon

Artisauen lanak edota bertako produktuak ikusi eta erosi nahi dituztenek urriaren 31n, hondarreko larunbatean, izanen dute aukera. Izan ere, Elizondoko plazan azoka izanen dute. Postu guztiak 10:00etatik 14:00etara egonen dira ikusgai.

'Motxilaren umea' filma Elizondon azaroaren 20an

Haurren Eskubideen Nazioarteko Egunean, azaroaren 20an, *Motxilaren umea* filma ikusteko aukera izanen da kultur etxean. 17:00etan pantailaratu dute filma eta ikusi ahal izateko 689 03 50 78 telefonora deitu eta izena eman behar da. Edukiera mugatua izanen da.

BRIKO
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak

konfiantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Folk Ametsetan zikloa azaroaren 1etik 15era

Azaroaren 1ean, 8an eta 15ean kontzertuak izanen dituzte Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Kultura Baztordeak, 2020 Arte eta Kultura programaren laguntzaz, Folk Ametsetan zikloa antolatu du azarorako. Kontzertuak azaroaren 1ean, 8an eta 15ean, igandetan, izanen dira Arizkunenean kultur etxean, 19:00etan.

Sarrerak dohainik izanen dira baina edukiera mugatua izanen da eta ikusleek kontzertuetara sartzeko gonbidapena aurkeztea ezinbertzekoa izanen dute. Sartzeko txartelak emanaldia hasi baino 60 minutu lehenago jaso behar dituzte Arizkunenean kultur etxean eta pertsonako gehieenez ere bi gonbidapen hartu ahal izanen dira.

Zeltiar musika

Azaroaren 1ean, heldu den igandean, Alasdair Fraserrek, biolin tradizio aberatseko irakasleak, eta Natalia Haaserrek, biolontxelo-jotzaileak, giro-tuko dute kultur etxea eta musika zeltiarra izanen da entzungai. Musikariek entzuleekin konektatzeko aukera izanen dute.

Munduko musikak

Musika freskoa, dibertigarria eta dantzagarria izanen da azaroaren 8an. Fox trota, txotisa, jota, erronda, pasodoblea... Penintsulatik bertze lurralde batzuetara eramanez

KONTZERTUETARA SARTZEKO GONBIDAPENA ERAMAN BEHAR DA

gaituen musika-bidaiaz gozatu dute bertaratzen direnek: Balkanetako oihartzunak, japoniar oroitzapenak, kaioen kantuak, itsasoaren soinuak...

Gontzal Mendibil

Azaroaren 15ean, igandean, itxiko da zikloa. Gontzal Men-



Mendibilen 'Biok' izeneko lanaz gozatu dute entzuleek azaroaren 15ean.

dibilek *Biok* izeneko diskoa aurkeztuko du, sentiberatasun poetikoz beterik dagoena. 18. musika lan horretako pieza hunkigarriak, bere kantu eza-gunak, Iparragirreraren oroitzapenak...

penezko konposizioak... aditu ahal izanen dituzte. Mendibilek Anjel Unzuren, Iñaki Diegezen eta Ainhoa Tabuyoren laguntzaz eskainiko du emanaldia.



AMAIUR azken gaztelua

Babestu nahi duzu?

Izan kontu zuk emandako diruak gazteluan eta bisitarien gunean harri bat gehiago moldatzeko edo paratzeko balioko du.

% 80

Zerga-desgrabazioa

PARTIKULARRAK

% 30

Zerga-desgrabazioa

ENPRESAK

* Nafarroako Foru Ogasunean zergak ordaintzen dituen pertsona fisikoaren edo enpresaren mende.

1 Internetez

Sartu:

www.amaiur.eus/bisitari-zentrua/



eta egin zure ekarpena

2 Zuzenean bankoan

Diru-sarrera egiteko kontua:

ES66 3008 0043 1238 8532 1624

Eta bidal lezaguzu datuak:

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____

NAN: _____

Ekarpenaren kopurua:

20€ ☐ 50€ ☐ Beste bat

Gure helbidea:

Gaztelu Elkarte Karrika Nagusia z/g
Amaiur 31715 Nafarroa edo
info@amaiur.eus e-postara

Ikusi proiektua

www.amaiur.eus










Azaroan ekitaldi kulturalak izanen dituzte Iruritan

Azaroaren 14an Amets Arzallusek 'Miñan' liburua aurkeztuko du eta azaroaren 28an bertso saioa izanen dute

TTIPI-TTAPA

Irurritako Gazteak eta Dorrea Kultur Elkartek antolatuta, azaroan larunbatero (18:00etan) ekitaldiak izanen dituzte gizarte bilgunean. Azaroaren 7an, Graciana de Zozaya eta Maria Cruzat Irurritako Dorrearen egi-leez ariko dira solasean. Hilaren

14an, Amets Arzallusek Ibrahima Balderen istorioa ardatz duen *Miñan* liburua aurkeztuko du. Azaroaren 21ean, berriz, frankismoaren esklaboak Artesiagako bidean izan zireneko kontuez ariko dira; eta hondarreko larunbatean bertso saioa izanen dute.

Ipuin-kontaketa azaroaren 5ean Elizondon

Ameli eta xirrikituaren jostunek ipuin-kontalariaren eskutik, zazpi eta hamabi urte bitarteko gaztetxoendako ipuin-kontaketa izanen dute Elizondon azaroaren 5ean. Arizkunenean dute hitzordua 17:00etan eta edukiera mugatua izanen da (izen-ematea 689 03 50 78).

Hizkuntza debekuaren ondorioez solasaldia azaroaren 5ean

Euskaraldia batzordeak solasaldia antolatu du azaroaren 5erako, ortzegunerako. Ainize Madariagak norberaren hizkuntza debekatzeko eragiten dituen ondorio pertsonalak izanen ditu solasgai. 19:00etan elkartuko dira Arizkunenea kultur etxean.

Baztan Kirol Elkartek ez du ikuslerik onartuko entrenamenduetan

TTIPI-TTAPA

Baztan Kirol Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak entrenamenduetan ez duela ikuslerik onartuko jakinarazi du. Hortaz, klubeko zuzendariak, koordinatzaileak edo kolaboratzaileak bakarrik izanen dira, zerbait egin behar duten ka-

suetan. Klubekoak ez direnek aitzinetik baimen bat eskatu beharko dutela nabarmendu dute. Horrez gain, kirol kudeaketarako programa bat egin dute. Horrek taldeko kide guztien, zuzendari, koordinatzaile, entrenatzaile, laguntzaile... lanak erraztuko ditu.



UTZITAKOA

Poskonetik birusari ostikada

Elizondoko Poskonea zentrokoek birusari ostikada emateko egiten ari diren erronka solidarioarekin bat egin dute eta Anfasekoak egitasmoarekin bat egitera animatu nahi izan dituzte. Ea ostikadaz ostikada birusak alde egitea lortzen dugun!

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

MARMOLES SOULE

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKARÓZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN S.L.
ESTRUKTURAK

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



Zigaurren lanak akitu artean behin-behineko ur biltegia paratu zuten. UDALA

Udalak «premiatzko lanetan» 54.217 euro inbertitu ditu

Iruritako saneamenduan eta Zigaurreko ur-biltegia egin dituzte lanak

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak Iruritako saneamendu sare nagusian «premiatzko lanak» egin behar izan ditu, urri hasmentan.

Iruritan saneamendu sare zulatuta

Etxe baten konponketan ari zirelarik saneamenduko sarean

zegoen zuloa eta ur galera agertu ziren. Egoera horretan, sare ordezkatzeko lanak egin behar izan zituzten Iruritako karrika nagusiko 18. eta 24. zenbakien artean.

Inbertsioa 40.735,62 eurokoa izan zen. 2.347,40 euro proiektuaren idazketa eta zuzendaritzara bideratu dira eta

38.388,22 lanak egiteko erabili dira. Idazketa Doarq arkitectura bulegoak egin zuen eta lana Miguelenek. Nafarroako Gobernuak lanen premiazkotasuna onartu zuen eta %85eko dirulaguntza emanen du.

Zigaurreko ur-biltegia arraildura

Modu berean Zigaurre auzoko ur-biltegia arraildura batetik ur-zurruzta agertu zen. Hori dela eta, Baztango Udalak Nafarroako Gobernuaren oniritziarekin premiatzko lanak hasi behar izan zituen urri erditsuan. Arraildura konponetzeaz gain biltegiaren barneko aldea iragazgaizteko asmoa agertu zuten. Modu berean, lanekiraun bizkitartean auzoan ura izateko behin-behineko ur-biltegia ere paratu zuen udalak.

Hori aitzinera eraman ahal izateko, denera 13.480,05 euroko inbertsioa eginen dute; 11.665,05 lana egiteko eta 1.815 obraren idazketa eta zuzendaritza egiteko. Lana Arakanek eginen du eta idazketa eta zuzendaritza LKSk. Azken lan hauen kostuari dagokionez, Nafarroako Gobernuak %85 diruz lagunduko du.

Bi pertsona hil dira urrian Baztanen izandako istripuetan

Lehenbiziko euriteekin batera, zoritxarreko berriak izan dira inguruan. Baztanen izandako auto istripuetan bi lagun hil dira.


Urriaren 14an, Almandozen, Berroetako bidegurutzearen parean gertatu zen ezbeharra. Auto batek eta kamioi batek istripua izan zuten eta auto-ko gidaria bertan hil zen. Kopilotua, larriki zauritua, Iruñeko Ospitalgunera eraman zuten anbulantzia medikalizatu batean.

Urriaren 16an, berriz, pertsona bat hil zen Amaiurren izandako auto istripu batean. Ezbeharra 15:00 aldera gertatuta zen, N-121-B errepidean. Auto baten eta kamioi baten arteko talkaren eraginez, autoan zihoan gidaria hil zen.



ferreteria
Quevedo

**TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK**



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com



Amaiurko arkeologia zentroan ari da lanean Marian Ariztia. UTZITAKOA

«Indusketa lanetan eskuez gain bihotza ere jarri dutela ikusten da»

MARIAN ARIZTIA DANBORIENA AMAIURKO ARKEOLOGIA ZENTROKO LANGILEA

Hondarreko hamabortz urteetan Amaiurko gazteluan egindako indusketa lanetan bildutako aztarna arkeologikoak museoan bildu dituzte. Horri esker, bisitariek mendetako historia ezagutzeko aukera dute

N. BAZTERRIKA | AMAIUR

Amaiurko gazteluko kondairek «txikitatik» interes handia eragin diote Marian Ariztia Danborienari (Amaiur, 1976). Aspaldiko jakin-mina lanbide bihurtuta, gaur egun irailean ireki zuten arkeologia zentroan ari da lanean: «azken urteetan egin diren indusketa lanek eta ireki den zentroak aukera ederra eskaini didate».

Hasmentarekin «kontent»

Abuztuaren 8an inauguratu zuten zentroa eta ordutik, Ariztiak «jendeari harrera egiten eta herriko zein Baztango historiaren zatitxo bat turistei azaltzen» dihardu. Bi hilabeteotan «2.000 bisitari inguru» izan ditu. Orain artean izan diren gehien-gehienak «eskualdekoak, Euskal Herriko hainbat txoko euskaldunetakoak» izan dira, baina «kataluniarrak eta Madrildik eto-

riak» ere izan dituzte. Abuztuaren izan zuten bisitari gehien: «iraileko hirugarren astetik aitzinera asteburuetan bakarrik irekitzen hasi gara». Birusak baldintzatua izan da irekiera eta, zentzu horretan, «urte berezia» izanen dela jakitun dira: «ireki aitzinetik ere bagenekien birusa gure artean zela...».

Berezitasunak berezitasun, neurriak hartuz, ateak irekitzea erabaki zuten eta, aitortu dutenez, «kontent» daude orain artean izandako bisita kopuruarekin, baita bertan izan direnek egin duten balorazioarekin ere: «jendea kontent joan

da, arras lan txukuna dela eta ongi azalduta dagoela aipatu dute. Oraindik ireki denetik denbora gutxi pasatu den arren, azalpenek Amaiurren gertatutakoa hobeki ulertzen lagundu diela adierazi dute...».

Auzolanean berreraikitako historia

Aranzadi elkarteak hondarreko 15 urteetan egin dituen indusketa lanetan berreskuratutako material arkeologikoak dira museoaren oinarria. Ariztiaren ustez, elkarteak berak eta haiekin auzolanean ibili diren guztiek «lan ederra eta txukuna» egin dute. Arkeo-

logia zentroak hori ageriko egiteko eta estimatzeko bide eman dielakoan dago: «orain agerian gelditu da langile hauek eskuez gain, bihotza ere jarri dutela indusketa lanetan».

Pieza bakoitzak «gazteluaren garapena, urteetan gertatutako aldaketak, bertako bizimodua...» irudikatzeko bide ematen die ikusleei. Horrela, bisitariek borts mende gibelera egiten ahal dute. Hain zuzen, museoko «atal batean eguneroko bizimodua azaltzeko lau bitrina dituzte: txanponak, arropetako apaingarriak, eguneroko lanak, borroketarako erabiltzen zituzten tresnak... daude ikusgai, gazteluan bertan harrapatutakoak». Guztien artean, auke ratzea «zail» den arren, bere irudiko, «guda materialak, kanoi bolak eta ezpatak» dira ikusleen arreta gehien erakartzen dutenak.

Zentrotik kanpo ere bada zertaz gozatua

Zentroak ekarpen handia egin dio herriari eta herritarrei. Izan ere, orain «etxean entzundako historia eta istorioak egiaztatzeko» aukera dute. Ingurukoei ere «historiaz gehiago jakiteko» aukera eman die. Hain zuzen horregatik, bisitatzea merezi duela uste du Ariztiak: «hurbildu eta animatu zentroa bisitatzea».

Hortik kanpo, herrian bada zertaz gozatua. Gaztelua eta arkeologia zentroa ez dira herriko interesgune bakarrak, errotak ere ikusmira eragiten du: «uraren medioz taloak egiteko artoa nola bereizten den erakusten dute... Eta herriko lixutegia, arkua, karrika bera... Amaiur bere osotasunean herri zoragarria da».

Zerbait aipatu beharko balu, herrian «azpiegitura eta ibilbideak» baino ez dituztela falta dio amaiurtarrak. Eta, horixe dute begiz joa orain: «gabezia hori betetzeko lanean ari gara, herriaren edertasuna denentzako gozamenaren izan dadin».

«AMAIURKO GAZTELUAREN HISTORIA HOBEBEKI EZAGUT DAITEKE»

«ZENTROAK ADITU DUGUN HISTORIA EGIAZTATZEKO BALIO DU»

Baztan Ikastola 50. urteurrena ospatzen ari da

Ikastolaren ibilbidearen parte izan diren guraso, ikasle zein irakasleak elkarriketatuko dituzte hilabetero Xorroxinen

TTIPI-TTAPA

Aurtengo ikasturtea berezia da Baztan Ikastolarendako zein ikastola osatzen duten guztiendako. Bizi dugun egoerak 50 urte hauen ospakizuna baldintzatu duen arren, hainbat dira martxan paratu dituzten ekimenak.

Batetik, hilabetero Xorroxin Irratian elkarriketa bat egingen dute, urte hauetan guztietan ikastolako ibilbidearen parte izan diren guraso, ikasle zein irakasleen ibilbidea bilduz.

Eta bertzetik, ikasturte honen harira sortutako logoa duten



kamiseta eta musukoak salduko dituzte. Jada lehendabiziko ale guztiak saldu dira eta laster gehiago aterako omen dituzte.

Egoera zaila izan arren, segurtasun neurriak mantenduz ikasturte berezi hau ospatuko dute.



Joan den urtean lehenbizikoz ospatu zuten Gau Beltza Anizen. M. MARITORENA

Gau Beltza ospatuko dute urriaren 31n Anizen

MAITANE MARITORENA

Iaz hasitako bideari jarraiki, aurtenera, urriaren 31n bigarren aldiz ospatuko dugu Gau Beltza Anizen. Covid19-ak sortu duen egoera kontuan hartuz, maskarak eta distantzia kontuan hartuko dira. Aurpegi erdia beharrez, begiak bakarrik geldituko dira bistan, eta egitaraua horren

arabera antolatuko da. Herrian barna ginkana moduko bat izanen dute, ezustekoren bat baino gehiago izanen dira eta elkartean distantziak mantenduz beldurrezko konturen bat izanen da. Parte-hartzaileek gertatuko denaren berri izanen ez dutenez momentua ailegatu artio, ez dugu gehiago aitzinatuko.

ELIZONDO KIROPRAKTIKA

Munduko hirugarren osasun-lanbidea da kiropraktika, nerbio-sistemak bizkarrezurraren mailan dituen interferentziak eta horien ondorioak prebenitu eta zuzentzeko. Garunak, bizkarrezur-muinak (bizkarrezurretik jaisten denak) eta gorputzeko organo, ehun eta zelula guztietara adarkatzen diren nerbioek osatzen dute nerbio-sistema. Gaur egun lau estres-mota ditugu nagusiki. Estres fisikoa (erorketak, jarrera txarrak, mugimendu errepikakorrak...), estres emozionala (pentsamendu negatiboak, eguneroko arazoak), estres kimikoa (elika-duraren kalitatea, hidratazioa, airearen kalitatea...) eta estres elektromagnetikoa (mugikorrak, ordenagailuak, wifi...). Estres horiek bizkarrezurraren mailan interferentziak sortzen dituzte, eta, ondorioz, gorputzaren egituretara %100era iristea eragozten dute. Kiropraktikoaren helburua da interferentzia horiek kentzea eta zure gorputzari bere gaitasunen %100ean funtzionatzen laguntzea. Modu naturalean egiten du, eta, hala, gorputzeko alderdi guztietan eragiten du (nerbio-sistema, immunitarioa, hormonala, digestio-sistema, emozionala...).



"Kiropraktikarekin emozionalki hobeki sentitzen naiz, gauzak lasaiago hartzen ditut eta fisikoki indartsuago sentitzen naiz, nire ongizate orokorraren sentimendua handitu egin da. Kiropraktikara eraman ninduten txaraldiak arindu egin dira, eta, konparaziora, duela zenbait hilabete ez dut inolako hotzeririk; "hagitz arraroa da niretzat".

Josune



Deitu **948 580 701**
telefono-zenbakira
hitzordua hartzeko!

Balda Doktorearen Plaza,
1-1B | ELIZONDO

Etxeen «nolanahiko salmenta» saihestu nahi du EH Bilduk

Merkatua garestitzearen ondorioz «bizilagunak bailaratik kaporatzeko arriskua» ikusten du

TTIPI-TTAPA

Etxe handien «nolanahiko salmentak» Baztango herrietan izaten ahal dituen ondorioez ohartarazi nahi izan zuen urri hasieran EH Bilduk ohar bidez. Azken aldian, etxe handiak erosteko asmoz kanpoko inbertitzaileak «han-hemen» omen dabilta, eta hori «hedatzen ari den joera» dela gaineratu du. «Afera biziki larria» delakoan dago EH Bildu.

Bere hitzetan, «etxe horien erosketa landa-hoteletarako edo bigarren bizitegiarako da». Hala, «azkeneko aldian bailaran ezagutzen ari garen ostatu-turistikoen gehiegizko eskaintza eta herritarrak bizitegia eskuratzen dituzten zailtasunak handitzen» direla uste du eta «bereziki kontuan hartzekoa» iruditzen zaio «erosle horiek ordaintzeko duten ahalmena gainerakoen gainetik» izatea, «horrek merkatuaren kariatzea dakar, herritar arruntak etxe horiek erosteko aukeratik baztertuz». Gehiago ere bai. Merkatua garestitzearen ondorioz, «ohiko bizilagunak bailaratik kanporatzeko arriskua»

ikusten du, «erosahalmen handiko jendearekin ordezkatu» izanen delako eta «tokiko biztanleen bizitegia izateko eskubidean ondorio zuzena» izanen duelako. Horrek «auzo herrikoia» klase sozial ahaltsuagoek ordezkatzeko prozesua» eragin dezakeelakoan dago. Baztanen, «irudiko zerbaiten hastapenean» egon daitezkeela dio: «lehenago ere Ipar Euskal Herrian horrelakoak salatu izan dituzte; jubilatu ondotik heldu diren paristarren gelditu gabeko etorrerak etxeak eta lurak nola garestitu dituen, arazo sozial larria sortuz».

Egoera ikusita, eta «gibelerat bueltarik ez duen bidean sartu aitzinean», EH Bilduri «beharrak» iruditzen zaio «kontzientzia sozial bat sortzea: ohiko bizitegia izateko lehenestea eta salneurriak arrazoizkoak izatea». Gisa berean, «norberen ondareekin hartzen diren erabakiek ondorio sozialak» dituztela azpimarratu du, eta EH Bilduren irudiko, «herritar guztioi dagokigu nahi dugun bailara ereduaren arabera jabetza pribatuarekin egin ahal dena finkatzea...».



ORDIZIAKO UDALA

Kortariko gazta Ordizian saritua

Urriaren 15ean XXXIII. Ordizia Txapeldun gazta lehiaketa jokatu zen. Zenauroko Jon Etxebarria (Ipiñaburu) izan zen garai-le, eta bigarren postua ere eskuratu zuen, 9,15eko puntuazioarekin, urrezko gazta eskuratu zuen. Hirugarren postua, berriz, Julen Arburuarentzat izan zen (Kortaria).



UTZITAKOA

Lekaroz kantuz girotu dute

Urriaren 18an Baztan Kantuz egitasmoak Lekaroz izan zuen hitzordua. Herritarrak eta ingurukoak eguerdian plazatik abiatu eta karrikaz karrika ibili ziren, bazterrak girotuz. Hurrengo hitzordua azaroaren 15ean izanen dute, 12:00etan Arraiozko plazan.

UDAZKENEKO eskaintzak 2020

Motozerra HUSQVARNA 120 MARK II 189€

Haize-makina HUSQVARNA 125B 229€

BANATZAILE OFIZIALA HUSQVARNA®

BB BLOK BAT TAILERRAK

Santiago 85 | ELIZONDO T 948 580 898

www.biokbat.com

Husqvarna READY WHEN YOU ARE

Jazz kontzertua abenduaren 7an Arizkunenean

Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, Victor Anton Quartet 'Changing Gears' diskaren emanaldia izanen dute azaroaren 7an, larunbatean Elizondon. Arizkunenea kultur etxean izanen dasaioa, 19:00etan (gonbidapenak 18:00etatik aitzinera jaso ahal izanen dira).

Kantu herrikoia ikasteko ikastaroa urtariletik martxora

Azaroaren 2tik 5era bitarte eman daiteke izena eta parte-hartzaileek 60 euro ordaindu beharko dituzte

TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Kultura Batzordeak euskal kantu herrikoia ikasi eta interpretatzeko ikastaroa antolatu du heldu den urte hasierarako.

Urtarrilaren 13tik martxoaren 17ra (hiru hilabetez) emanen dute Elizondon, Arizkunenea kultur etxean. Parte-hartzaileak asteazkenetan bilduko dira, arratsalde, bi orduz, 18:30etik 20:30era.

Abestiak ikasi eta interpretatzeko ikastaroa

Ipar Euskal Herriko Kalakan musika taldeko partaide izandako Thierry Biscary izanen dute saioen gidari eta ikastaroan izena ematen dutenek euskal abestiak, horien tes-tuingurua, abesteko guneak eta bertze ezaugarri batzuk aztertzeo aukera izanen dute.



Thierry Biscary izanen dute gidari.

Izen-ematea irekita azaroaren 2tik 5era

Azaroaren 2tik 5era, heldu den astelehenetik ortzegunera, eman daiteke izena 948 58 12 79 telefonoan (07:30etik 15:00etara) edo kultura@baztan.eus helbidean. Parte-hartzaileek 60 euro ordaindu beharko dituzte.



UTZITAKOA

'Birziklatu beira haiengatik' kanpaina

Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Egunean, Ecovidriok eta Baztango Udalak 'Birziklatu beira haiengatik' kanpaina aurkeztu zuten. Hala, Elizondon beirazko ontzien birziklapena eta bularreko minbiziaren prebentzioa sustatzeko edukiontzi arrosak paratu zituzten.

Zazpi 'arigune' izanen dira Euskaraldiaren bigarren edizioan

TTIPI-TTAPA

Saratarrak ere Euskaraldiaren bigarren edizioarako prestatzen ari dira. Aurtengo berrikuntza *ariguneak* izanen dira eta haien izena emateko epea finituta, Saran lau entitatek eman dute izena: Aldaxka haurtzaindegia, Olhain ikastolak, San Josepe eskolak eta turismo bulegoak.

Norbanakoen izen-ematea

Ahobizi edo *belarriprest* izanez oraindik parte hartu nahi dutenek horretarako aukera izanen dute, izena emateko epea zabalik baita oraino. Bertzeak bertze, euskaraldia.eus webgunean edo jadanik eskuragarri dagoen telefono aplikazioan eman daiteke izena.

Eskolako mahai zahar batzuk emateko

Herriko etxetik jakinarazi dute-nez, eskolako mahai zahar batzuk dituzte emateko. Arri-matzekoak dira eta interesatuek herriko etxean eman beharko dute izena, 05 59 54 20 28 telefonora deituz edo mairie@sare.fr helbidera idatziz.

SARA

Aurten ere Eguberrietako egutegia atera du Olhain ikastolak

TTIPI-TTAPA

Eguberrietako egutegiak at-eratu aurten ere Olhain ikastolak. Kopuru mugatua izanen dela ohartarazi dute eta bi modutara eskuratzeko aukera izanen da. Saran Baketun, Herriko Etxeko Edantegian, Plekan eta Harategian ukan daiteke eskutik eskura eta herri-kanpo, berriz, Senperen (Euskal Vrak-en), Azkainen (Plazan ostatuan), Zuraiden (Goxoki edertasun saloian) eta Baionan (Pyrénées ostatuan) erosten ahal da. Horrez gain, olhain.eguberri@gmail.com helbidera idatziz ere egin daiteke eskaera eta egutegia «zauden tokira hurbilduko» dutela jakinarazi dute ikastolatik.



Griparen kontrako txertoa botikan hartu behar da

Griparen kontrako txertoa hartzeko hitzorduaren berri eman du herriko kontseiluak ohar bidez. Jakinarazi duenez, aitzineko aldietan ez bezala, ez dute herriko etxean emanen. Aldi honetan, botikara joan beharko da txertoa hartu ahal izateko.

Covid-19a dela eta Ongi Izaite Eguna ezeztatu dute

Covid-19ak azaroan egitekoa zen Ongi Izaite Eguna ezeztatu du. Egoera zein den ikusirik, antolatzaileek azken urteotan hainbat terapeuta eta sendagileren bilgune izan den hitzordu arrakastatsua ez egitea erabaki dute. 2021era begira egon beharko orain...

ZUGARRAMURDI/URDAZUBI



Joan den urteko txapeldunak eta txapeldunordeak. MARIFA ETA KORO

Neguko pilota txapelketa jokatzeko hasiak dira Zugarramurdi

MARIFA ETA KORO

22 lagunek eman dute izena neguko pilota txapelketan. Behin ere baino aniztasun gehiago dauka aurtengo parte-hartzeak, batez ere adinaren aldetik, 16 urtetatik 50 urtetarainoko parte-hartzaileak direlako. Hala ere, oraindik nesken parte-hartzea da erron-

ka, aurtengo pilota txapelketan ere neska bakarrak parte hartuko duelako.

Txapelketa urriaren 24an, joan den larunbatean, hasi zen eta lehenbiziko faseak urtarrilaren 23a arte iraunen du. Irabazleek, hortik aitzinera, finalaurrekoak eta finala jokatu dituzte.

Urmenetaren 'Sugarren mende' lanaz azaroaren 7an Zugarramurdi

MARIFA ETA KORO

100 urtez izan ziren gertakari historikoetan oinarrituz, *Sugarren mende* nobela grafikoa argitaratu du Asisko Urmene-tak.

Inkizioak eragindako aldaketak aztergai

1513. urtean hasi eta 1610. urterainoko sorgin ehizako prozesuak ikertu ditu, baina ikuspuntu berritzaile batetik: biktimak aztertu beharrean ('sorginak' deitutakoak), aitzakia horrekin inkisizioak makinatu zituen aldaketa politiko, ekonomiko, eta sozialak erakusten ditu.

Garai hartan kolpatuak izan ziren herri guztiek (baita Ttapi-Ttapa banatzen den eremuko udalek, juntak eta batzar gehienek ere) babestu dute Urmenetak eragindako ikerketa



Azala.

hau eta liburuaren argitaratzean parte hartu dute.

Aurkezpena

Liburu hau Zugarramurdi aurkeztuko da, azaroaren 7an, hurrengo larunbatean. *gureberriak.com* webgunean salgai izanen da liburua, egilearen eskaintza eta guzi.

Dantxarineko pintxoaren hamabortzaldia azken txanpan

ARANTXA ETA IRAIA

Dantxarineko pintxoaren hamabortzaldia azken txanpan da. Urriaren 31 arte izanen da eta aurtengo, berrikuntza bezala, pintxo guztiek onddoak eta urdaiazpikoa izan behar dituzte.

Pintxo egile hoberenak sukaldariek osatutako epamahiaren eskutik jasoko du saria.

Badira pintxoak probatzen eta baloratzen duten bezeroendako sariak ere: pintxoak dastatu ondotik, datuak utziz gero, zozketa batean parte



hartuko dute eta Mutrikuko Haitzalde landetxean asteburu-pasa irabaz dezakete. Bertzalde, Facebooken ageri diren argazkietan iruzkina uzten dutenak Urdazubiko jatetxe batean bi lagunendako bazkariaren zozketan sartuko dira.

Urdazubin ere Euskaraldia egingen dute

Euskaraldia martxan jarriko duen antolakuntza taldea sortu ondotik, herritarrak ekimenaren parte izateko animatu ditu. Parte hartzeko izen-emate orriak Miren Oiartzabal farmazian eta Karretero ostatuan utzi dituzte eta www.euskaraldia.eusorrialdean ere apunta daiteke.

Bizi Garbia erabiltzeko deia herriko etxetik

Ikaburuko birziklapen puntuan gehiegizko zaborra agertu da eta herriko etxeak isunak jarriko dituela gogoratzearekin batera, Senpereko Bizi Garbia birziklapen puntua erabiltzeko eskatu du. Senpererat altzariak eta Ikaburuan utzi ezin diren zabor handiak eraman daitezke.

Logroñon epaitutako herritarren oroimenean ekitaldia azaroaren 7an

MARIFA ETA KORO

Azaroaren 7an 410 urte beteko dira gure arbasoak Logroñoko Inkisizioak epaitu zituela.

Herritarrek ez dute atzendu Zugarramurdi, Urdazubi eta bertze herri batzuetako hainbat biztanlek «sekulako bidegabekeria» jasan zutela eta urte aunitzez «fama txarra izan zutela gure artean (hala sinestarazi zigutelako)». Dena den, «zorionez, gaur egun badakigu herritar haiek jende zintzo eta ausartak izan zirela». Hortaz, ez dute haiei keinurik egin gabe gelditu nahi.

Omenaldia azaroaren 7an

Azaroaren 7an, lehenbiziko larunbatean, eguerdian, omenaldi ekitaldi bat egingen dute.

Bertzeren artean, sagarrondo bat landatuko dute beraien oroimenez, hala egin baitzuten orduko zugarramurdierrek, Urdazubiko monasteriotik bereizteko hasi ziren lehenbiziko pausoak eman zituztenean.

Tokia ez da oraindik guztiz finkatua, eguraldiaren arabera, lezean edo Etxeberriko atean egingen dute.

«Urdazuri ibaiaren berezko izena Sarrakari(a) da»

JOXET LAHETJUZAN LIBURUAREN IDAZLEA

PIERRE BASTRES SENPERE

Ur Hertsi edo Urdazubi, Senpere trabeskatzen duen ibaiaren berezko izena atzeman du Joxet Lahetjuzanek.

Joxet Lahetjuzan, nor zaitugu?


Laurogei urte ditut, azkaindarrak sortzez, ama Oyhantio-Andiazabal Azkainen bizi izana, Aduna eta Irun aldeetatik familia etorri zen aitzina, senpertarra bizitzez, aita Lahetjuzan-Sudre laborariaren lurretan Ibarrun auzoan eraiki dudana Arkazketa etxean, sarratarra bihotzez, Lahet eta Lahetjuzan deiturak, Saran sortu eta Urdazubin ere zortzi mendeetan zehar kokaturik egonak dira. Nihaur ofizioz elektronikagintzan ari izana naiz, laborantzian zenbait urte lan egin ondotik. Eta, haur denbora ordutik geroz jakin-nahi min batez betitik eta osoki hartua

Zergatik eta noiztik piztu zaizu liburu hauen sortzeko nahikeria?

25 urterekin konturatu nintzen Nivelle, Iparralde eta Hegoaldeko ibai bakarra zela, bertze guztiek euskaraz zuten izen bat ez ukaiteko, izen berezi bakar bat beren ibilbide gutxirako. Bakarra! Laster pentsatu nuen kasu bakar hori ezinezkoa zela eta bilatuz hasi nintzen. Saiatu nintzen baina debalde eta 30 urte behar izan ziren eraman ordenagailuaren eta Interneten agerpenerako, eta gero bertze 20 urte ikerketari berriz lotu eta «Sarrakaria» hitza berreskuratzeko.

Nola da egituratua edo antolatua liburu hau?

Liburua ipar-erdaraz idatzia da ezinbertzean, jendeketa zabala hunki eta beraz eragin ahal bezain zabalena ukan



Lahetjuzan eta liburuaren azala.

dezan. Egia da, haatik, gaia ikusi eta, euskaraz idatzi behar-ko nuela. Gauzak gutxienean eginik ere, lehen aitzinsolas eta xehetasunak euskaraz emanak dira. Gero, gaztelezko hego-erdara baizik mintzo ez duten urdazubiar eta zugarramurdiar biztanleen

«IBAI HORI URDAZURI DEITZEA NOLA ETA ZEIN DEN EZEGOKIA IKUSI»

errespetuz, bigarren aitzinsolas bat, lehenaren kasik itzulpena. Eta segidan, liburuaren gorputz gehiena, Sarrakaria xeheki aipatuz, frantses ipar-erdaraz. Azken parte bat bilaketak egin artean atzeman Sarrakariaren ibai-arroko leku edo gertakari batzuen argitasunekin: Ohol-dizun Dantxarineko auzoa, ..., Sara / Senpere arteko Herbururen 'Cherchebruit' izendapen bitxia, Ibaiaren Ola-Orabidea, Ugarana, Urhandi, Urhertsi, Urdazuri, bertze bertakoetako izenak, Akotz hitzaren erranahia,...

Aztergaiak eta frogak non aurkitu dituzu? Eta zer da aurkitu duzun gehien harritu zaituena?

Xehetasun horietatik gehien-gehienak Internetez bilduak, liburutegietan frogatuak dira edo *armiarma.eus* euskal literaturaren sareko gunetako baliocetan, edo *gallica.bnf.fr*, Munduko eta gehien bat Frantziako artxiboen Pariseko Liburutegi Nazional ezin agortuan. Lekukotasun mintzaturik ez, aro zaharregietako aipamenak izaki eta lekukotasun idatziak, 1700 urteetako bi liburu eta Frantziako kalastra zaharra, duela bi mendetako lekuez irudikapen xehe eta zehatzak erakusten dituenak dira, leku eta izen, Erdi Arotik 1800 urteak arte guti aldatuak. **Eta burutzeko, segidarik eman nahi zenioke lan honi?**

Segida bat emateko balitake oraino gai edo materia, gero eta dokumentu gehiago agertzen baita numerizaturik, bai Baionako artxiboetan, baita orokorki Interneten sarean ere, etxetik beretik aritzeko ahala ematen dutenak. Bilatzeko lana, baina, gero, ezin da jakin zer osotasunez betetzen den bilatzaile atzemaile. Harridura batzuk ere, ikusiz demagun Urdazuri deitzea ibai hori nola eta zoin den ezegokia. Banuke asmo segidabati buruz, ahala den artean, ikusiko! Zerbait kontakturi dagokionez, *joxet@lahetjuzan.eus* zuzenbidera bidali.

Irati Alcantarilla nagusitu da Larrekon egindako Xilabako saioan

TTIPI-TTAPA

Xilaba Bertsolari Txapelketa-ko final herenetako lehen saioa jokatu zen Senperen urriaren 17an. 200 bertsozalek bete zuten Larreko. Saioko irabazle Irati Alcantarilla Urdanpilleta izan da, 324,5 punturekin, eta azaroaren 11n Bardozen ospatuko den final aurrekoan kantatzeko lekua lortu zuen. Aitor Servier Etxexuri izan zen bigarren (321,5), Miren Artetxe Sarasola hirugarren (318,5), Patxi Iriart Hiribarren laugarren (309,5), Kerman Diaz bosgarren (296,5) eta Gillen Hiribarren seigarren (286,5).



Irati Alcantarilla Larrekon kantari.

Antzerkia eta dantza azaro hasieran Larrekon

Terre Contraire antzerki taldeak *La Terre d'Havel* antzez-lana emanen du azaroaren 3an, asteartean, 19:30ean Larreko gelan. Sartzea 20 euro gostako da (urririk 18 urtetik beheitikoentzat). Azaroaren 7an eta 8an, berriz, Pantxika Telleriaren Eilerale dantza konpainiak *O!* dantza saioa emanen du. Larunbatean 16:00etan eta 18:00etan eta igandean 11:00etan, 16:00etan eta 18:00etan egingen dituzte emanaldiak. Aitzinetik izena eman behar da (*elirale.prod@gmail.com*).



Baztan Futbol Taldeak denboraldi berriari ekin zion hirugarren mailan, eta oraingoz segitzen duen talde bakarra da.

Hirugarren mailako finalean izanen da Leitzako Julen Olano

TTIPI-TTAPA

33 aizkolarik izena eman dute aurtengo Euskal Herriko hirugarren mailako aizkora txapelketan aritzeko. Hori dela eta, hiru kanporaketa egin dituzte. Kanporaketa bakoitzean lehenengo bi postuetan sailkatu diren aizkolariak izanen dira oraindik data eta lekurik zehaztu ez duen finalean. Lehen kanporaketa urriaren 18an, jokatu zuten Burgelun (Araba). Aizkolari bakoitzak lau kanaerdiko (54 ontzakoak) moztu behar zituen eta nafarrak gailendu zirela erran daiteke, bi lehenbiziko postuak Arribeko Txomin Amundarain (9 minutu eta 59 segundo) eta Leitzako Julen Olanorentzat (10 minutu eta 8 segundo) izan baitziren. Biak izanen dira finalean. Urriaren 24an eta 25ean jokatzeak zituzten bertze bi finalaurrekoak. Beintza-Labaiengo Jon Telletxea Agurainen aritzekoa zen larunbatean eta Berako Oier Larretxea igandean Aramaion.

Liga hasi orduko utzi behar izan dute zenbait futbol taldek

Beti Gazte eta Gure Txokoako taldeek jardunaldi bakarra jokatu dute eta hirugarren mailako Baztanek aitzinera segitzen du

TTIPI-TTAPA

Covid-19aren eraginez joan den denboraldia bukatu gabe utzi zuten eskualdeko kirol taldeek eta Covid-19aren eraginez denboraldi berezi bat abiatu dute berriz ere. Osasun egoera dela eta, Nafarroako Gobernuak emandako agin-

duak eta ezarritako debekuak kontuan hartuz, eskualdeko kirol talde batzuek, Baztango BRT errugbi taldeak eta Doneztebeko Erreka eskubaloit taldeak, erraterako, oraingoz ez dutela entrenatuko eta lehia-tuko adierazi dute. Bertze batzuek, segurtasun neurriak

betez entrenatu bai, baina oraindik ez dute konpetitzeko baimenik. Futbol talde nagusiei dagokienez, batzuk urriaren 17-18ko asteburuan hasi ziren ligan. Gipuzkoako ligan ari diren Lesakako Beti Gazteko eta Berako Gure Txokoako taldeek etxetik kanpo jokatu zituzten lehen partidak. Nafarroako araudi berriarekin, ordea, oraingoz ez dute jokatzeko segitzetik izanen, ez baitute Gipuzkoara joaterik. Espainiar estatu mailako lehiaketa den hirugarren mailan ari den Baztan futbol taldeak Fontellasengaraipenarekin ekin zion denboraldi berriari eta gaur gaurkoz, «normaltasunez» segi dezake jokatzeko.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Canabal eta Aldabe Errege Kopan garaile

Urriaren 18an A Coruñan jokaturako Espainiako Errege Kopako federazioen arteko pilota txapelketan nagusitu ziren Oihan Canabal eta Joseba Aldabe igantziarrak. Eskuz binakako finalean Errioxako Esteban eta Sanchez irabazi zieten (10-2 eta 10-7).



UTZITAKO ARGAZKIA

Ipar Martxa ikastaro jendetsua Lesakan

Ipar Martxa hastapen ikastaroa antolatu zuen Lesakako Beti Gazte elkarteak urriaren 17an eta arrakastatsua suertatu zen. Larunbatean goiz eta arratsalde, Harriondoa Kultur Etxearen atariko belaian aritu ziren makilekin trebatzen hogen bat lagun.



Kategoria nagusian garaile izan zen Marc López jaurtiketa batean. UTZITAKOA

57 kirolari bildu ditu Espainiako Disc Golf txapelketak Igantzin

Irrisarrin jokatu zen urriaren 10 eta 11n eta Marc López kataluniarra gailendu zen kategoria nagusian

TTIPI-TTAPA | IGANTZI

Lehen aldiz Nafarroan jokatu da Espainiako Disc Golf Txapelketa, hain zuzen ere, Irri-Sarri Landeko zelaian. Txapelketa urriaren 10 eta 11n jokatu zen eta Galizia, Madril, Euskal Herria, Katalunia, Cadiz eta Asturiasko elkarteetako jokalaririk onenek parte har-

tu zuten, hainbat kategoriatan banatuak: gizonezkoen sub-18, sub-15, Master-a eta Grand Master-a eta Emakumezkoentzako irekia.

Zortzigarren edizioa BAXI Basajauna Disc Golf (BBDG) Elkarteak antolatu zuen, CRK Disc Golfen aholkularitzarekin. Espainiako Disc Golf Elkartearen (AEDG) babespean eta Professional Disc Golf Associationek (PDGA) antolatuta-ko torneoen parte izan da.

ren (AEDG) babespean eta Professional Disc Golf Associationek (PDGA) antolatuta-ko torneoen parte izan da.

Baxi Basajauna elkarteko Mikel Ibarrola doneztebarrak aipatu digunez, «Covid-19 dela eta azken orduan bakarren bat etorri ez bazen ere, 57 kirolarik parte hartu zuten txapelketan. Denak txoratuta gelditu dira hemengo parajeekein eta instalazioekin. Errate baterako, Cadizko Puerto de Doñana klubeko hamabi lagun izan ziren Irrisarriko instalazioetan txapelketaren aitzineko aste osoan, eta inguruko ostatu, aterpe eta jabetxeetan ere sumatu zuten, kirolariekin batera, senideak eta lagunak ere etorri baitziren».

Mikel Ibarrola Nafarroako txapeldun da Master40 kategorian, baina Espainiako txapelketan ezin izan zuen goitiko postuetan ibili. «Gu hasiberriak gara –onartu du–, Oviedoko klubak, adibidez, urteak daramazki jokatzeko eta hori nabari da, kategoriako podioko postu guztiak beraientzat izan baitziren. Halere, kontent gaude, Baxi Basajaunako Jose Rouget Letamendia finalean sartu delako».

NIRE USTEZ



MIKEL IBARROLA
BAXI BASAJAUNA

«Disc Golf eskola egiteko asmoa dugu Irrisarrin»


Ibarrolaren erranetan, «bizi dugun garai hauetarako kirol egokia da disc-golfa, ez baituzu kontakturik bertze kirolariekin. Taldeka banatzen dira kirolariak, txandaka botatzen du bakoitzak bere diskoa, kanpoan jokatzen da...». Alde horretatik, Irrisarrin udaberritik hasita Nafarroako lehen Disc Golf eskolarekin hastekoak ziren, baina Covid-19aren eraginez ezin izan dute hasi. Ibarrolak aipatu digunez, «proiektua hor dago oraindik, eta horretarako taldean *fitxatu* dugu Iñaki Gonzalez Olaizola, Berako Toki Ona institutuko gorputz hezkuntzako irakaslea». Kirola ttikien artean ezagutzera emateko saskiak ere paratu nahi dituzte eskualdeko parketan, «Doneztebeko Intzakardi parkean, erraterako».



IÑAKI PORTO

Ezkurra II.a txapeldunorde Nafarroakoan

Aldabek eta Ionek irabazi zuten Nafarroako XV. Erremonte txapelketa, urriaren 10ean Zubirin jokaturako finalean Josetxo Ezkurra II.a doneztebarrari eta Barricarti 35-30 irabazi ondotik. Segurtasun neurri guztiak zorrotz bete arren, giro ederra izan zuten Zubiriko pilotalekuan.



ONA ONARI

Eneko Herrera bikain mendi duatloian ere

Euskal Herriko Mendi Duatloi Txapelketa Ibarran jokatu zen urriaren 10ean eta Eneko Herrera sunbildarra hirugarren izan zen 25 urtez beheitiko kategorian. 5,34 km lasterka, 15 km mendi bizikletan eta azken 2,67 km lasterka egiteko ordubete, 33 minutu eta 33 segundo behar izan zituen.

URRIAK 29 - AZAROAK 12

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

IKASTAROAK

IRURITA

Koro ttiki

Gizarte Bilgunean, asteazkenero. Ttikienak 17:30ean. Ondotik, koxkorrak.

LESAKA

'Ziberfeminismoa. Emakumeak, sareak eta teknologia'

Harriondoan, urriaren 29an 18:00etatik 20:00etara.

Oroimen mintegia

Ramoni Ordoki gidari. Asteazkenetan, 16:00etatik 17:30era.

Informatika ikastaroa

Azaroaren 19ra arte, astelehen eta ortzegunetan, 16:30etik 18:30era.

Organo tailerra

Organoaren jardunaldien barne. Urriaren 31n, 17:00etan, nahi duen guziarentzako irekia.

ELIZONDO

Gaita eta atabala ikastaroa

Arizkunenean, larunbatero, 09:00etatik 10:00etara (gaita 10:30 arte).

Plastika lantegia

Arizkunenean, azaroaren 7an, 14an, 21ean eta 28an, 17:30etik 19:00etara.

Kantu herrikoiak

Arizkunenean, urtariletik martxora. Izen-ematea: azaroaren 2tik 5era.

IGANTZI

Emakumeentzako arte topaketa

Azaroaren 7ra arte, ortzirale (17:30etik 20:30era) eta larunbatetan (09:30etik 12:30era).



UTZITAKOA

ARANTZA Dama beltzak

Estitxu Pinatxo eta Mikel Santxezen eskutik. Eskolan, urriaren 31n, 20:00etan.

ARANTZA

Euskaraldia tailerra

Herriko etxeko aretoan, azaroaren 6an, 19:00etan.

BERA

Musika sortu eta nahasteko aplikazioak

DJ makalaren eskutik. Beralandetan, azaroaren 6an, 17:30etik 19:30era.

SOLASALDIAK

ELIZONDO

Norberaren hizkuntza debekatzeak dakartzan ondorioak

Arizkunenean, azaroaren 5ean, 19:00etan.

'Soiltasunaren indar eraldatzailea'

Jorge Riechmannen eskutik. Arizkunenean, azaroaren 12an.

ZUGARRAMURDI

'Sugarren mende'

Azaroaren 7an.

IRURITA

Graciana de Zozaya eta Maria Cruzat

Gizarte bilgunean, azaroaren 7an, 18:00etan.

Amets Arzallus eta Ibrahima Balde

'Miñan' liburuaren aurkezpena. Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean, azaroaren 14an, 18:00etan.

Frankismoaren esklaboak Artesiagako bidean

Gizarte bilgunean, azaroaren 21ean, 18:00etan.

KONTZERTUAK

ARANTZA

Dama beltzak

Eskolan, urriaren 31n, 20:00etan.

LESAKA

Organo kontzertua

San Martin de Tours elizan, urriaren 31n, 18:30ean.

ELIZONDO

Zeltiar musika

Arizkunenean, azaroaren 1ean, 19:00etan.

Jazz kontzertua

Arizkunenean, azaroaren 7an, 19:00etan.

Fetén Fetén

Arizkunenean, azaroaren 8an, 19:00etan.

Baztan Kantuz

Arizkunenean, azaroaren 15ean, 12:00etan.

Gontzal Mendibil

Arizkunenean, azaroaren 15ean, 19:00etan.

ERAKUSKETA

BERA

Bidasoko deportatuak

Kultur etxean, azaroaren 1era arte. Astegunez 17:00etatik 19:00etara eta asteburuetan 10:00etatik 12:00etara.

TAILERRAK

EZKURRA

Adinekoen bizi kalitatea aztertzekeo tailerrak

Iratxo ludotekan, abenduaren 2ra arte asteazkenero, 11:00etatik 12:00etara.

IKUSKIZUNAK

DONEZTEBE

Ipuinen txokoa

Haizea Loiraren eskutik. Asteartero, 11:00etatik 12:00etara.

ELIZONDO

Ameli eta Xirrikituaren jostunek ipuin-kontalaria

Arizkunenean, azaroaren 5ean, 17:00etan.

'Motxilaren umea'

Arizkunenean, azaroaren 20an, 17:00etan.

LEHIAKETAK

LESAKA

Beti Gazte argazki lehiaketa

Urriaren 31ra arte (xehetasunak 767. zenbakian).

Ipuin lehiaketa

Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara bitartekoentzat. Azaroaren 20ra arte.

AZOKA

ELIZONDO

Bertako produktuen azoka

Plazan, urriaren 31n, 10:00etatik 14:00etara.

GOIZUETA


Mendialdeko azoka

Kaleetan, azaroaren 8an, 10:30etik 14:00etara.

Nire aukera

«Sarean euskal komunitate bat sortzea gustatuko litzaidake»

XABI IRIARTE IBARROLA DONEZTEBEKO GAZTEA



Jakin-min handia duen eta ikasten, hausnartzen eta galderak egiten gozatzen duen gaztea da Xabi Iriarte (Doneztebe, 2000). Lagunekin egon eta honetaz eta hartaz solas eginez, esperientziak biziz edo ikusiz eta adituz harrapatzen du interesa eragiten dioten gaiak helatzeko eta horietan sakontzeko aukera: «maite ditudanekin denbora pasatu, urpekaritza egin eta bideoak ikustea dut gustuko». Prozesu horretan begiak erne eta belarriak fin izatea ezinbertzekoa da, eta horiek trebatzen ere badabil: «Mondragon Unibertsitatean ikus-entzunezko komunikazioa ikasten ari naiz, hirugarren mailan nago».

Kamera artean trebatu

Kamerak etxean bertan eza-gutu ditu Iriartek eta, bere ustez, horrek eragin zuzena izan du hartu duen bidean: «aita argazkilaria da eta noizbehinka bere saltsan sartzeak mundu horren edertasuna erakutsi dit». Zenbat eta gehiago sartu, «orduan eta gustukoago» izan du: «aitari esker, kamera aitzinean egoteko ohitura hartu nuen...». Bide horri segika jo zuen uni-

bertsitatera eta, bertan, pixkanaka «lasai eta gustura sentitzen, nire bidea egiten, joan naiz».

Youtube kanala sortu

Unibertsitatean ez ezik, kanpoan ere harrapatu du ikasteko modurik: «Youtuber eta Streamerren eduki aunitz ikusten ditut».

Horietan ikusitako hutsa betetzeak emandio, hain zuzen, hasi berri duen proiektuari heltzeko aitzakia: «hamaika dira dauden edukiak baina euskaraz eskaintza ez da arront zabala... hortik sortu zen ideia, 'zergatik ez dut nik sortzen?' pentsatu nuen».

Pentsatu eta egin. Halaxe ireki zuen bere kontua doneztebar gazteak: «zalantza eta beldur aunitz izan ondotik, hurbileko jendeak eman zidan babesa baliatuz aitzinera ateratzea erabaki dut».

«JENDEAREN ERANTZUNA IKARAGARRIA IZAN DA»

Orain arte edukiak ikustea gustuko izan badu ere, orain edukia sortzea gehiago gus-tatzen zaiola ohartu da Iriarte. Eta hori baliatuz, «euskaraz den aukera bat» eman nahi du.

Bere lehenbiziko bideoak Zabiron12 kontuan zintzilikatzen hasia da. Ildo horretatik jotzeko, jendeari mezua zabaldu nahi izan dio: «edozeinek edozein motatako edukia sortzen ahal duela ikustea nahiko nuke, mugikorra edo ordenagailua nahikoa da horretarako». Denen ekarpenak bilduz, «gazteok bertakoa den eta euskaraz dagoen edukia ikusi eta euskal komunitate bat sortzea» aukera ona izan litekeela uste du.

Interneta horren eskuragarri dugun garai honetan hizkuntzak bere presentzia izan dezan lan egiteko prest dago Youtuberra: «denbora aunitz pasatzen dugu sare sozialetan, ikus-entzunezkoak ikusten eta ohitura horrek iraunen duelakoan nago...».

Ideiak landu

Iriarteren lehenbiziko ekarpena Niko Mindegia herritarri eginiko elkarrizketa izan da, «inguruan ezaguna izateaz gain, hurbilekoa dudan pertsona da eta berarekin elkar-izketak onak aterako zela seguru nekien». Aitzinera begira, beriz, bertzelako aukerak begiz joak ditu: «elkarizketak ditut gustukoekin baina Twitch plataforman eta bideo-jokoetan ere interes handia dut».

Momentuz, jendearen erantzuna «ikaragarria» izan da: «jendeak proiektua zabaltzen lagundu dit eta horrek urduritasuna utzi eta aitzinera segitzeko indarra ematen dit». Hala den artean behintzat, ideiak lantzen segituko du: «bi aste-tik behin bideo bat goitzea pentsatu dut, baina dudan denboraren arabera izanen da, ikasketek dute lehentasuna eta».

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

LABAIEN. Zaharberritzeko dagoen baserria eta eraiki berria den etxea salgai, bizitzeko prest. 19.000 m²ko lur eremuarekin. Eguzkitsua eta bista ederrekin. ☎630 23 50 64.

LESAKA. Etxe ederra salgai. 5 logela, 3 komun, sukalde ederra, egurrezko tximiniarekin. Garaje, txoko eta lorategia haundiak. Eskaintzak aditzeko prest. ☎609 47 72 77.

ELIZONDO. Pisu eguzkitsua salgai. Sukaldea, egongela, 3 logela, bainugela, trastelekua eta balkoi ederrekin. Hegoaldera begira. ☎693 69 49 76.

EROSI

Etxea, baserria, borda, errota, pisua edota terrenoa erosiko nituzke. Ez du inporta ze egoeratan dagoen. Beratik hasita Leitzaraino izan daiteke baita Zugarramurdi ere. ☎652 65 15 79 (Agustin).

ERRENTAN HARTZEKO

MALERREKA, BORTZIRIAK eta BAZTAN en gazte ardurasua pisu bila. Pisu txiki bat osorik alokatzea litzateke lehen aukera, baina beste norbaitekin pisua konpartitzeko ere prest. Toki lasaia nahiago, gehienez 500 euro ordaintzeko prest eta ondo isolatutako etxea izan beharko luke. ☎655 71 94 16.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

BERA. Itzea karrikan 14m²ko aparkatzeko marra salgai. ☎633 04 55 24.

LANA

ESKAINITZAK

Urarekin lan egiten duen enpresa batek **langile-muntatzaile** bat behar du. PVC, PP eta PEarekin lan egin izana eta elektrizitate-elektronikan eta metal nahiz plastiko soldaduran ezagutzak baloratuko dira. Enpresan gelditu eta promozionatzeko aukerak. Bidali curriculum: lanaukera01@gmail.com.

BERA. San Jose zahar etxean erizain bat behar dute, lanaldi osoan. Eri-zaintza gradua edo diplomatura duena, euskaraz jakitea eta geriatrian aritua izatea baloratuko dute. Hasieran urtebeteko kontratua, gero mugagabea egiteko aukerarekin. Deitu edo bidali CVak: resibera@laresnavarra.org. ☎948 63 01 04 (Amaia).

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan
Bizum bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

ESKARIAK

Gizarte- eta osasun-arloko ikastaroa egina duen bat **interna** gisa aritzeko lan bila. ☎685 23 04 87.

Zerbitzari lanetan eta **haurrak zaintzen** esperientzia duen neska lan bila. ☎622 40 21 95.

BERA. Lur dut izena eta Beran bizi naiz. Lana egin nahi dut. Sukaldari ona naiz eta esperientzia ere badut pertsonak zaintzen. Autoa ere badaukat mugitzeko. ☎644 21 98 44.


GOIZUETA. Orduka etxeak garbitzen edo adineko jendea zaintzen lan egiteko prest. ☎618 96 18 04.

LEITZA eta GOIZUETA inguruan lan bila. Etxeak garbitzen, adinekoak zaindu, abereen lanak egiten lagundu... ☎690 98 61 18.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

ETXALAR. Zakurkumeak oparitzeko. Mestizoak. Neurri ertainekoak. ☎686 67 31 05.



Ttiki hauek **familia bila** dabilta. Jostalariak, abenturazaleak eta bizkorrak dira. ☎652 75 08 17.

Bi katakume oparitzeko. ☎640 65 04 22.

Zortzi hilabeteko **txakur mestizoa**, Collie eta Mastin, opari. ☎630 18 48 47.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,07
- 1.koa 3,93
- 2.koa 3,79

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,09
- 1.koa 4,04
- 2.koa 3,82

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,26/3,36
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,20/8,60
- 8-10 kilokoak: 5,80/6,20

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 35 €

Zerri gizena 1,296 €

Zerramak 0,400€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua urriaren 9tik 16ra bitarteko prezioak)


Urte bat eta erdiko **mastina oparitzeko**. Zakur zoragarria eta atseгина. Txiparekin eta txertoak hartuta. Maite dut baina etxean edukitzen uzten ez didatelako oparitu nahi dut. ☎672 23 14 69 / 627 78 43 62.

LESAKA. Urte eta erdiko Border Collie arrazako zakur emea oparitzeko, hagitz xuabea eta alai eta txerto guztiak jarrita. ☎610 62 57 65.

SALGAI



Setter ingeles **zakurkumeak** salgai, 2 hilabetekoak LOErekin. Aita eta ama arrunt langileak. ☎670 30 35 20.



Betizueak salgai. Argazkikoa ama bere ume urruzarekin. Manejatzeko modukoak. ☎655 70 60 73.



LEITZA. Txerrikumeak salgai, bizirik edo labean erretzeko prestatuak. ☎690 98 61 18.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

BERA. Postas inguruan Audi baten giltza aurkitu dute. ☎687 87 14 31.

SALEROSKETAK

LESAKA. 800 akazia pikete salgai. ☎628 03 25 58.



90 cm-ko **bi ohatze** eta **armairua** salgai. Ohatze bakoitza 300 eurotan eta armairua 150 eurotan. ☎673 54 87 67.

NARBARTEKO UDAL JABETZAKO PISUAREN ENKANTE PUBLIKOA

Bertizaranako Udalak 2020ko urriaren 16an egindako Osoko Bilkuran erabaki zuen udalaren jabetzakoa den NARBARTeko etxebizitza (Jose Maria Lakoizketa Taldea 4, 3. C) besterentzea enkante publiko bidez.

Bizitzera sartzeko prest: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta berogailua.

- Lizitazioaren oinarritzko prezioa: 91.150, 26 €
- Behin-behineko bermearen zenbatekoa: 1.823 €
- Eskabideak aurkezteko epea: 2020/10/16tik 2020/11/16ra.
- Gutun-azal itxian aurkeztu behar dira proposamenak www.bertizarana.eus/albisteak atalean argitaratu diren baldintzak jarraituz.
- Informazio gehiago: udalaf@bertizarana.eus helbidera idatziz edota 948 59 20 18 telefono zenbakira deituz.



BERTIZARANAKO
UDALA

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

**SANTESTEBAN
TAILERRAK**

MEGANE TECH ROAD dci 90CV
2018 urtekoa - 13.200 € - 48.000 km

RENAULT MEGANE ZEN TCE 140 CV
2020 urtekoa - 17.700 € - Sus. finantzieroi lotua

www.talleressantesteban.com
DONEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com

SORTZEAK

- **Nahikari Elizalde Mariezkurrena**, Zubietakoa, irailaren 23an.
- **Udane Barberena Gamio**, Zigakoa, urriaren 8an.
- **Ekiñe Telletxea Piñuela**, Zubietakoa, urriaren 17an.
- **Stefan Merticariua**, Goizuetakoa, urriaren 6an.

EZKONTZAK

- **Alphonse Lasaga** eta **Jennifer Sandrine Bouriquet**, irailaren 5ean Saran.
- **Maxime Germain Pequignot** eta **Charlotte Laura Laurent**, irailaren 5ean Saran.
- **Peio Larralde** eta **Marion Iramuno**, irailaren 19an Saran.
- **Fabrice Larralde** eta **Arantxa Ordoki**, irailaren 26an Saran.
- **Israel Galan Gill** eta **Aida Exposito Aguilar**, Zizur Nagusikoak, urriaren 17an Igantzin.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 63 54 58 telefonora deitu edo info@ttipi.eus helbidera idatzi beharko du. Nahiago duenak Whatsappez ere idatz dezake: 744 48 43 61.

URTEBETETZEAK




Berako **Adur** eta **Oinatz Arozenak** 7 urte bete dituzte urriaren 22an. Zorionak gure mutikoei! Muxu pottolo bat familiaren partetik.



Arantzako **Aimar Baleztena Goñik** 3 urte beteko ditu urriaren 29an. Zorionak etxeko tikiari! Muxu bat!



Aiora eta **Olaia Goienetxe Zubieta** lesakarrak bederatzi urte beteko dituzte urriaren 28an. Segi hazten, ikasten eta orain artean bezalakoak izaten! Ospakizunaren zain geldituko gara.




Leitzako **Oier Zabaletak** 9 urte beteko ditu urriaren 30ean. Zorionak etxekoan partetik, segi beti bezain langile eta bizkor. Muxuak!!



Leitzako **Izargi, Laia** eta **Haizeder** lehengusuek 4, 1 eta 2 urte beteko dituzte azaroaren 19an, urriaren 31n eta 22an. Zorionak eta muxu haundi bana *xaltxerak*!! Arratsaldeko goxo-goxoa prestatu!



Noak azaroaren 9an urtea beteko du eta **Julenek** azaroaren 15ean 4 urte. Zorionak etxeko guztien partetik.



Sunbillaiko **Hegoa Irazoki Urtxegi** eta amabiz **Anparo Gelbentzu Errandoneak** urriaren 22an eta 30ean urteak beteko dituzte. Urtebetetze egun bereziak pasa ditzazuela. Muxuak.



Maddi Antxorena Aizkorbek 2 urte beteko ditu urriaren 31n. Zorionak bihotzez eta muxu handi bat!

HILBERRIAK

- **Patrick Libier**, Sarakoa, irailaren 11n, 56 urte zituela.
- **Maurice Delpech**, Sarakoa, irailaren 28an, 82 urte zituela.
- **Julian Landa Arginarena**, Elizondokoa, urriaren 6an, 84 urte zituela.
- **Joxe Ramon Otxoteko Irigoien**, Lesakakoa, urriaren 7an, 55 urte zituela.
- **Roberto Etxebeste Ariztoi**, Ituregoa, urriaren 7an.
- **Ixidro Saralegi Jaurena**, Lesakakoa, urriaren 8an, 77 urte zituela.
- **Ceferino Apezetxea Zubiri**, Goizuetakoa, urriaren 9an, 85 urte zituela.
- **Pedro Mari Sagastibeltza Villanona**, Leitzakoa, urriaren 11n, 55 urte zituela.
- **Jose Antonio Perurena Almandoz**, Goizuetakoa, urriaren 11n, 83 urte zituela.
- **Ignacio Aiestarán Tapia**, Lesakakoa, urriaren 16an, 79 urte zituela.
- **Eustasio Mariezkurrena Telletxea**, Urrozkoa, urriaren 16an, 80 urte zituela.
- **Juan Enrique Abril Berasain**, Berakoa, urriaren 16an, 79 urte zituela.
- **Juan Martín Gamio Aleman**, Arraiozkoa, urriaren 18an, 84 urte zituela.
- **Ramon Urdaniz Jaimerena**, Elbetekoa, urriaren 20an, 98 urte zituela.
- **Martina Goikoetxea Buenetxea**, Berakoa, urriaren 21ean.



«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com



BAZTAN
BIDASOA

Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

URTEURRENA

Lino INDAKOTXEA ARIZTEGI

Zubietan, 2009ko urriaren 20an
XI. urteurrena

Udazkeneko hostoen antzera joan zinen
eta gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko,
baina bizi garen artean,
ez zaitugu ahaztuko.

ASKO MAITE ZAITUGU!

IZASKUN, JONE, LANDER ETA FAMILIA




OROIGARRIA

Juan Enrique ABRIL BERASAIN

1940.11.03 - 2020.10.16

Moncayo inguruko haize hotzetatik
etorri zinen Larhango magal epelera.
Gure gogoan betirako geldituko da
zure eskuzabaltasuna,
emandako maitasuna,
eta gure alde hainbertze lan egina.

Bihotzez, mila esker.
ETXEKOAK



Familiak Elizondoko Benito Menni egoitzako lantaldeari eskerrona eman nahi
dio, emandako zaintza, arreta eta maitasunagatik.

OROIGARRIA

Ixidro SARALEGI JAURENA

Lesakan, 2020ko urriaren 8an, 77 urte zituela

Guretzat izandu zara
ona berezi ta bitxi,
saltsero eta alaia
ene! nola adierazi,
sukalde kontuak maite
zartagia ezin utzi,
ondoak biltzen gustura
bazun zuretzat garrantzi,

inauteriak bultzatzen
ez zenun egin lan gutxi
gogoan dugu Edurne
zuriz zinelarik jantzi,
zure irrifarra eta
maitasuna ezin ahanzi,
senar maitea eskerrak
maite zaitugu atautxi.

ETXEKOAK

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten guziei, mila esker.



IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA (Kanttonberri, 14) | **DONEZTEBE** (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | **LESAKA** (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**

KONTATU KONTUAK



UTZITAKO ARGAZKIA

Erratzuko herriak Amaiurko herriari ekarpena. Erratzuko herriak mila euro eman dizkio Amaiur herriari, memoria historikoa bizirik mantentzeko egiten duen lanagatik. Herrigintza lantzen duenaren adibide ona da Amaiur, auzolana eta lan zientifikoa ongi uztartu dituen. Hortaz, Erratzutik Amaiurrera, herritik herrira, sari ederra ailegatu da. Lana egiteke dago oraindik eta horrelako laguntza ongi etorriko da. Amaiurtik «eskerrik beroenak» eman nahi izan dizkiote Erratzuko herriari.



MARKOS NEGUERUELA

Goienetxe-Larralde senideak. Etxalarko Goienetxe-Larralde bortz anai-arrebak gogoan Markos Negueruelak argazki hauxe bidali du. Gaur egun, bortzetik bakarra bizi da, eskuinean dagoena, Dolores, eta 93 urte ditu.



Bi kilotik goitiko onddoa Sunbillan. 2,159 kiloko onddoa –hori baieztatuz argazkia ere bidali zuten TTIPI-TTAPARA– topatu zuen urriaren 20ko arratsaldean Angel Gagok Sunbillako mendietan barna. Ez zen eguneko bere ahogozagarri bakarra izan. Izan ere, onddo aunitz topatu zituen seinala argazki gehiago bidali zituzten. Otordu ederrak egiteko osagai faltarik ez dute izanzen Gagoren inguruan... On egin!



Euskaraldia aurkezteko argazkiak. Ate joka dugu Euskaraldia. 2018ko arrakastaren ondotik, aurten berriz ere Euskaraldia izanen da azaroaren 20tik abenduaren 4ra. *Euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan* lelotzat hartuta, herritarren hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera handitzeko helburuarekin. Horren harira, Euskaraldia aurkezteko argazkiak ateratzen aritu dira han eta hemen, tartean, Lesakan –goiko irudia– eta Igantzin –beheitiko irudia–. Izen-ematea zabalik dago izenematea.euskaraldia.eus atarian.



LEITZAKO GAZTE ASANBLADA

'Txor-txor' bakarriketa Leitzan. Euskaraldiko batzordeak antolatuta, *Txor-txor* bakarriketa saioaz goatzeko aukera izan zuten urriaren 15ean Leitzan. Beatriz Egizabal aktoreak saio umoretsua egin zuen.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ateraldi edo ekitaldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, bidali mezua info@ttipi.eus era edo whatsapppe 744 484361ra.

PLAZAN BAZAN

MARIPURTZIL

PELLOZIRI



ISPILUAN

Maripurtzil eta Pelloziri antzezlan baterako jantzi dira ispilu aurrean, baina ispiluak ez die beren isla ongi itzultzen. Aurki itzazu bi irudien arteko 9 aldeak.



Marrazkiak: Garbiñe Ubeda (Alurri)

INTERNETEN ERE BAI !


<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



DOMINOA



Hartu arkatza eta osa itzazu lauki zuriak, domino zati honek zentzua izan dezan.

SUDOKUA




ETXEKO LAN GUZTIAK
NIK EGITEN DITUDALA BESTERIK
EZ DUT ESAN...

	A				
	E				G
Z	U				RR
E				G	U
RR				U	
				Z	

Bete itzazu lauki zuriak, GEZURRA hitza osatzen duten hizkiekin. R bikoitza hizki bakar bat balitz bezala hartuko dugu. Beraz, G, E, Z, U, RR eta A dituzu sudoku honetako sei elementuak. Gogoratu sudokuetan elementu bakoitzak behin agertu behar izaten duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

DADOA



Zortzi dado hauetatik erdiak ez datoz bat dadoaren irudi zabalduarekin. Identifika itzazu onak eta txarrak. Zalantzak sortzen baldin bazaizkizu, ebaki ezazu irudi zabaldua eta muntatu ezazu.

EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra



EMAN IZENA!

www.euskaraldia.eus



Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua